Bizkaiko Gizarte-Eraginari Buruzko Azterketa

lantegiBatuak

Bizkaiko
Gizarte-eraginari buruzko azterketa

Laguntzaileak:

UNIÓN EUROPEA

Fondo Social Europeo

Aurkibidea

1. **Sarrera** 8

2. **Lantegi Batuak-en aurkezpena** 11

2.1.1. Sarrera 12
2.1.2. Historia 12
2.1.3. Egitura 13
2.1.4. Produkzioaren antolaketa 13
2.1.5. Negozio-unitateen jarduerak 16
2.1.6. Instalazioak 18
2.1.7. Inbertsioak 20

3. **Urritasuna duten pertsonekin gizartean eta lan-munduan parte hartzea** 22

3.1. Lanak gizarteratzeko estrategia bezala duen garrantzia 23
3.1.1. Sarrera 23
3.1.2. Langile kopurua eta langile kopuruaren bilakaera 25
3.1.3. Langileen banaketa urritasun motaren arabera 30
3.1.4. Langileen banaketa jarduera alorraren arabera 33
3.1.5. Gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko ibilbidea edo sustapen-prozesuak 36
3.1.6. Urritasuna duten pertsonak onartzeko eskarien bilakaera 43

3.2. Urritasuna duten pertsonei laguntza eman eta jarraipena egiteko zerbitzuak 48
3.2.1. Sarrera 48
3.2.2. Egokitze pertsonaleko eta sozialeko zerbitzuak 49
3.2.3. Prestakuntza-jardueren hedadura 52
3.2.4. Prebentzio eta osasun zerbitzua 54
3.2.5. Pertsonen gogobetetasunaren balorazioa 57

4. **Jardueraren azterketa eta eragin ekonomikoa** 64

4.1. Sarrera 65
4.2. Bizkaiko jarduera ekonomikoari egiten dion ekarpena 66

4.3. Lantegi Batuak-en barne-kudeaketa 71
4.3.1. Portaera ekonomiko-finantzarioa 71
4.3.2. Diru-laguntzak 73
4.3.3. Kudeaketa-eredua 74

4.4. Eragin Ekonomikoa 76
4.4.1. Enplegua 76
4.4.2. Osasun-sistema 79
4.4.3. Gizarte-aurrekia 82
4.4.4. Familien gastua 83

4.5. Berrikusitako itzultze-kontua 85

5. Gizarteak urritasuna ulertzeko duen modua 88

5.1. Sarrera 89
5.2. Urritasun mota desberdinen ezaguera eta bilakera 90
5.3. Urritasuna duten pertsonen artean aukera-berdintasunaren hedapena 96
5.4. Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren balorazioa 101
5.5. Urritasuna duten pertsonei ematen zaien laguntzaren erantzukizuna 109
5.6. Lan-aukerak sortzen dituzten zentroei buruzko ezagutza 113

6. Alde indartsuak eta ahulak 126

7. Aholkuak 129

7.1. Gizarte-eragina 130
7.2. Eragin ekonomikoa 131

8. A Eranskina. Metodologia 132

Koadroen aurkibidea

2.1 koadroa Lantegi Batuak-en jarduera nagusien deskribapena, jarduera-alorren arabera 17
2.2 koadroa Lantegi Batuak-en produkzio-instalazioen deskribapena 19
2.3 koadroa Lantegi Batuak-en bilakaera: urteko inbestimendua v. urteko soberakina 20
3.1 koadroa Lantegi Batuak-eko langile kopurua eta langile kopuruaren bilakaera. 2001-2005 26
3.2 koadroa Langile kopuruaren bilakaera urritasun motaren arabera. 2001-2005 31
3.3 koadroa Urritasuna duten langile kopuruaren bilakaera, jarduera alorrarena arabera. 2001-2005 33
3.4 koadroa Lanbide-zentroko langileen mugimenduak. 2001-2005 37
3.5 koadroa Enplegu zentro bereziko langileen mugimenduak. 2001-2005 39
3.6 koadroa Ingurune arruntean lanean ari diren langile kopuruaren bilakaera. 2001-2005 43
3.7 koadroa Jasotako onarpen eskarien bilakaera. 2001-2005 45
3.8 koadroa Egokitze-programen bilakaera. 2001-2005 49
3.9 koadroa Egokitze pertsonal eta sozialerako ekintzen bilakaera. 2001-2005 50
3.10 koadroa Mediku-azterketen bilakaera. 2001-2005 56
3.11 koadroa Lantegi Batuak-eko pertsonen gogobetetasuna. Batez bestekoa. 2004 59
4.1 koadroa Balio erantsi gordinaren banaketa: Lantegi Batuak vs. EAE 66
4.2 koadroa Balio erantsi gordinaren bilakaera: Lantegi Batuak vs. Bizkaia 67
4.2 koadroa bis Lantegi Batuak Bizkaiko industria-jardueraren zati bezala 68
4.3 koadroa Azpikontratazioaren presentzia EAEko ekonomian, 2001 69
4.4 koadroa Lantegi Batuak Bizkaiko industri-azpikontratazio osoaren zati bezala: Fakturazioa eta lanpostuak 70
4.5 koadroa Lantegi Batuak Bizkaiko zerbitzu*-azpikontratazio osoaren zati bezala: Fakturazioa eta lanpostuak 70
4.6 koadroa Inbestimenduen bilakaera: Lantegi Batuak vs. Bizkaiko industria osoa. 1998-2003 72
4.7 koadroa Diru-laguntza garrantzitsuenen ezaugarriak 74
4.8 koadroa Enpleguaren bilakaera: Lantegi Batuak vs. Bizkaia osokoa. 2000-2004 77
4.9 koadroa Lantegi Batuak-ek sortutako enpleguaren balioetsitako balioa. 78
4.10 koadroa Bizkaiko enpresa kopurua, langile kopuruaren arabera, eta teknikoko urritasuna duten pertsonentzat gorde behar den lanpostu kopurua (2004) 79
4.11 koadroa Mediku-azterketen laburpena, taldeka. 2000-2005 80
4.12 koadroa Mediku-azterketen balioa, dirutan (2005) 81
4.13 koadroa Kalkulua: %65eko urritasuna edo handiagoa dutenei pentsio ekarpen txikiagoa egiteagatik sistema publikoak aurrezten duena. 83
4.14 koadroa Urritasuna duten pertsonak lanbideratze-zentroan egoteagatik familiek zeharka aurrezten dutenaren kalkulua 85
4.15 koadroa Berrikusitako itzultze-kontuaren kalkulua 86

5.1 koadroa Urritasun moten ezaguera berezkoa 91
5.2 koadroa Urritasun mota desberdinek azken urteetan Euskadin izan duten bilakaera....92
5.3 koadroa Urritasun mota desberdinek etorkizunean Euskadin izango duten bilakaeraren balorazioa....93
5.4 koadroa Urritasuna duten pertsonen aukera-berdintasunari buruzko balorazioa 96
5.5 koadroa Urritasuna duten pertsonen diru-iturria zehaztea. (%)....99
5.6 koadroa Lana izatearen abantaila nagusia. (%)....100
5.7 koadroa Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren balorazioa. (%) 102
5.8 koadroa Bizkaian urritasunari laguntzeko hainbat prestaziok eta zerbitzuk duten egoeraren balorazioa. (%) 104
5.9 koadroa Urritasuna duten pertsonen gizarteratzean hainbat eragileri egozten zaien erantzukizun-maila. (%) 110
5.10 koadroa Ardura gorena duen eragilea (%)....111
5.11 koadroa Urritasuna duten pertsonentzat enpresetan lanpostuak gorde behar direla dioen araudiaren ezaguera (%)....112
5.12 koadroa Bizkaian urritasuna duten pertsonak prestatzen dituzten eta haiei lana ematen dieten enpresei buruzko ezaguera (%)....114
5.13 koadroa Lantegi Batuak-en lantegien ezaguera (%)....116
5.14 koadroa Lantegi Batuak-en zerbitzuen ezagutza (%) 119
5.15 koadroa Lantegi Batuak-en zentro eta lantegietako enplegu kopuru osoaren balioespena (%)....120
5.16 koadroa Profil soziodemografikoa, Lantegi Batuak-en ezagueraren arabera (%)....121
5.17 koadroa Lantegi Batuak-en ordezko irtenbidea (%)....124

Grafikoen aurkibidea

2.1 grafikoa Kudeaketa-organoen arteko erlazio grafikoa 13
2.2 grafikoa Organigrama 15
2.3 grafikoa Lantegi Batuak-ek egindako inbestimendua v. urteko soberakina, 1998-2005 20
3.1 grafikoa Lantegi Batuak-eko langile kopuruaren bilakaera, 1986-2005....27
3.2 grafikoa Langile kopuruaren gehikuntza zentro motaren arabera, 1986-2005 28
3.3 grafikoa Langile kopuruaren banaketa, zentro motaren arabera. 1986-2005 (%)....30
3.4 grafikoa Langile kopuruaren banaketa urritasun motaren arabera. 1986-2005 (%) 31
3.5 grafikoa Langile kopuruaren bilakaera, urritasunaren arabera. 1986-2005 32
3.6 grafikoa Urritasuna duten langile kopuruaren bilakaera alorraren arabera, eta epean izandako gehikuntza (%). 2001-2005....34
3.7 grafikoa Urritasuna duten pertsonen proportzioaren bilakaera, jarduera alorren arabera....35

3.8 grafikoa Lanbideratze-zentroan langileen mugikortasunak izan duen bilakaera. 2001-2005 (%) 38
3.9 grafikoa Erregimen bereziko langileen mugikortasunak izan duen bilakaera. 2001-2005 (%) 40
3.10 grafikoa Ingurune arruntean lanean ari diren langile kopurua. 2001-2105 42
3.11 grafikoa Onarpen eskari kopuruaren bilakaera. 2001-2005 46
3.12 grafikoa Adimen-urritasuna dutenen itxaron zerrendaren bilakaera. 1996-2005 47
3.13 grafikoa Egokitze pertsonal eta sozialerako ekintzen bilakaera. 2001-2005 51
3.14 grafikoa Talde-prestakuntzan egindako lanaren bilakaera. 2002-2005 53
3.15 grafikoa Talde-prestakuntzan egindako lanaren bilakaera. 2002-2005 54
3.16 grafikoa Mediku-azterketen bilakaera. 2001-2005 56
3.17 grafikoa Lantegi Batuak-eko pertsonen gogobetetasun-indizea. Batez bestekoa 61
5.1 grafikoa Urritasun moten ezaguera berezkoa, adinaren arabera. (%) 91
5.2 grafikoa Urritasun mota desberdinen azken urteetako eta etorkizuneko bilakaera. (%) 94
5.3 grafikoa Urritasun mota desberdinen azken urteetako eta etorkizuneko bilakaera. Batez besteko puntu-kopurua. 95
5.4 grafikoa Urritasuna duten pertsonen artean aukera-berdintasunaren hedapena. (%) 97
5.5 grafikoa Urritasuna duten pertsonak eskubide osoko kide bezala onartzea. (%) 98
5.6 grafikoa Lana izatearen abantaila nagusia. (%) 100
5.7 grafikoa Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren balorazioa. (%) 102
5.8 grafikoa Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren gogobetetasun-indizea. Batez bestekoa 103
5.9 grafikoa Bizkaian urritasunari laguntzeko hainbat prestaziok eta zerbitzuk duten egoeraren balorazioa. (%) 105
5.10 grafikoa Bizkaian urritasunari laguntza ematearekin zerikusia duten hainbat alderdiren balorazioa. Batez besteko puntuazioa. 107
5.11 grafikoa Integrazioaren aldeko jardueren ezaguera. (%) 108
5.12 grafikoa Urritasuna duten pertsonen integrazioa sustatzeko ardura duten eragileak eman zaien erantzukizun-mailaren arabera. Batez besteko puntuazioa. 111
5.13 grafikoa Indarrean dagoen araudia betearazteko zaintza. (%) 113
5.14 grafikoa Bizkaian urritasuna duten pertsonak prestatzen dituzten eta urritasuna duten pertsonei lana ematen dieten enpresei buruzko ezaguera (%) 115
5.15 grafikoa Urritasuna duten pertsonak prestatzen dituzten eta urritasuna duten pertsonei lana ematen dieten erakundeen ospea. Oinarria: LZBak ezagutzen dituztenak (%) 115
5.16 grafikoa Lantegi Batuak-en lantegien ezaguera beren inguru hurbilenean (%) 117
5.17 grafikoa Lantegi Batuak-en zerbitzuen ezaguera (%) 119
5.18 grafikoa Lantegi Batuak ezagutzen dutenen ezaugarri nagusiak (%) 122
5.19 grafikoa Egiten diren lanen kalitatearen balorazioa (%) 123
5.20 grafikoa Lantegi Batuak-en ordezko irtenbidea (%) 124



Sarrera

1 Sarrera

Lantegi Batuak Fundazioa, bere ibilbide dagoeneko luzean, erreferentzia puntu bihurtu da **Bizkaian urritasuna duten pertsonak gizartean eta lan-munduan sartzeari** dagokionez. Urte hauetan erdietsitako lorpenek argi erakusten dute hau:

Bizkaian **duen txertatze maila** agerian uzten dute, inolako zalantzarik gabe, gaur egun dituen 2.000 langile baino gehiagok, bere instalazioen muina osatzen duten 17 lantegiek nahiz fakturatzen dituen ia 40 milioi euroek

Sortu **diren lan-aukerek** izan duten bilakaera ona

Enpresetan **lanpostu arruntetan** lanean ari diren urritasuna duten pertsonek ere izan duten bilakaera ona

Lanpostuak sortzen dituzten azpiegituretan egindako **inbestitze** garrantzitsuak

Fundazioaren **kudeaketa**-eredua, **iraunkorra eta irabazi-asmorik gabekoa**.

...

Esandako guztia egia den arren, egia da baita ere Bizkaiko gizarteak errealitate honetan duen parte-hartze mailari buruzko zalantzak daudela; hau da, zalantzak daude Bizkaiko gizarteak ezagutzen eta baloratzen ote dituen ez soilik **Lantegi Batuak** nahiz bestelako ekimenak urritasuna duten pertsonak integratzeko egiten ari diren jarduerak, baizik eta urritasun fenomenoa bera, azken urteotan izan duen bilakaera, aukera-berdintasuna, indarrean dagoen araudia, eta abar.

Galdera honi erantzun egokia emateko landu da **Lantegi Batuak** izateak berak eta **Lantegi Batuak**-ek eraginda garatutako jarduerek izan duten **gizarte-eraginari** buruzko azterketa hau. Eragin honi buruzko ikuspegi ahalik eta zabalena izateko asmoz, interesgarria iritzi zaio gai hau ikuspuntu bikoitz batetik sakontzeri:

Alde batetik jardueraren gizarte-baldintzak kontuan hartuz egin den azterketa dago; hots, urritasuna duten pertsonekin engaiatuta dagoen erakundea eta honek gizartearekiko oro har dituen harremanak kontuan hartzen dituen ikuspuntuan oinarritzen dena.

Bestetik, enpresa eta ekonomia jarduerari dagozkion baldintzak kontuan hartuz egin den azterketa dago; hots, hainbat alorretan, hala industrian nola zerbitzuetan, zerbitzu-eskaintza zabala ematen duen erakundea kontuan hartzen duen ikuspuntuan oinarritzen dena.

Hau dela eta, hiru kapitulu handitan egituratu da azterketa:

1. Urritasuna duten pertsonekin gizartean eta lan-munduan parte hartzea.

Bertan **Lantegi Batuak**-en ardatz edo izateko arrazoi nagusiari buruz sakontzen da, hau da, gizarteratzeko estrategia modura enplegua erabiltzeari buruz. Eta zehazki aztertuko dira urritasuna duten pertsonak lan-munduan txertatzeko ibilbidea eta eskaintzen zaizkien laguntza eta jarraipen zerbitzuak.

2. Jardueraren eta eragin ekonomikoaren azterketa.

Lantegi Batuak bezalako erakunde batek behar bikoitzari erantzuten dio. Alde batetik, urritasuna duten pertsonen garapena lortzeko lan-aukerak sortzeari. Bestetik, berriz, hori enpresa-irizpideekin egiteari. Kapitulu honetan, beraz, **Lantegi Batuak**-ek egiten duen jarduera enpresaburuen ikuspegitik aztertuko da, bai Bizkaiko ekonomia-jardueran duen ekarpen eta eragina, nola bere barne-kudeaketa eredua aztertuz.

3. Gizarteak urritasuna ulertzeko duen modua.

Azkenik, hirugarren kapitulu honetan Bizkaian gizarteak urritasunari buruz duen sentiberatasuna eta **Lantegi Batuak Fundazioarekiko** duen gertutasuna neurtu nahi dira.

Lantegi Batuak-en aurkezpena

Lantegi Batuak-en aurkezpena

2

Lantegi Batuak-ek 1964. urtean hasi zuen bere jarduera, GORABIDEk (Adimen-urritasuna duten pertsonen aldeko Bizkaiko elkartea) sustatutako okupazio eta lan babestuekin izandako lehen esperientziekin.

1983an hasi zen erakundea **Lantegi Batuak izenarekin** lanean. Gaur egun ezaugarri hauek dituen erakunde oso profesionala da:

Ondo zehaztutako egitura
Kudeaketa-sistema oso aurreratua
Eraginkortasuna neurtzeko adierazleak eta
Bere finantza-kontuak urtero ikuskatzeko prozedurak

Erakundeak **sei negozio-unitate ditu bi alorretan banatuak (industria eta zerbitzuak) eta lanerako prestatzeko zerbitzuak, enplegurako zerbitzu bereziak eta lanpostu arruntak sustatzeko zerbitzuak sortzen dira**.

Instalazio-sare zabala du, Bizkaiko lurralde osoan banatzen diren 17 zentrok osatzen dutena. Sare honek bezeroei zerbitzu eta industri produktugama anitza eskaintzeko aukera ematen dio.

Zerbitzu eta industri produktu hauen artean honako hauek nabarmen ditzakegu:

Mekanizazioak eta muntaiak
Muntaia elektrikoak
Bestelako muntaiak
Zerbitzuak: lorezaintza, garbiketa, lorelan (garden centre), bestelako zerbitzuak
Lanerako. Bezeroen instalazioetan ezarritako enklabeetan oinarritutako programa
Zuzeneko publizitatea

2.1.1
Sarrera

Lantegi Batuak irabazi-asmorik gabeko erakundea da, izaera iraunkorra duena. Bere helburua **lan-aukera** ahalik eta normalizatuenak **sortzea** da, **urritasuna duten pertsonen garapen-maila ahalik eta handiena** lortzeko asmoz, batez ere adimen-urritasuna badute eta bizkaitarrak badira.

Hau dela eta, **Lantegi Batuak** Fundazioak lanerako prestatzeko zerbitzuak, enplegurako zerbitzu bereziak eta lanpostu arruntak sustatzeko zerbitzuak sortzen ditu; hauek norbanako bakoitzari gizarteko eta laneko garapen jarraitua egiteko aukera ematen diote, prestakuntza eta lan-entrenamendutik hasi eta lan ordaindura bitarte, **nork bere gizarteratze osoa** lortzeko.

Lan-aukera hauek **industri eta zerbitzu jarduerak sortuz eta kudeatuz** sortzen dira. Zerbitzu hauek gizabanakoei **gizartean eta lanean txertatzeko ibilbide** osoa egiteko aukera ematen diete batetik, eta erakundea gizabanako hauen, bezeroen eta inguruko komunitatearen **gogobetetzea** lortzeko bidean jartzen dute bestetik.

2.1.2
Historia

Lantegi Batuak-ek bere jarduera 1964an hasi zuen GORABIDEk (Adimen-urritasuna duten pertsonen aldeko Bizkaiko elkartea) sustatutako okupazio eta lan babestuekin izandako lehen esperientziekin.

1983an hasi zen erakundea **Lantegi Batuak izenarekin** lanean. Helburua ezarritako lantegi-sarearen kudeaketa eta koordinazioa zentralizatzea izan zen.

1998an **Lantegi Batuak**-ek **Fundazioa** eratu zuen, bere nortasun juridikoarekin.

2.1.3
Egitura

Lantegi Batuak Fundazioaren aginte eta ordezkaritza organoa 18 lagunek osatzen duten patronatua da: lehendakari bat, 14 berezko batzordekide eta beste hiru hautazko batzordekide. Hauez gain bada patronatuko kide ez den idazkari bat ere.

Halaber, **Lantegi Batuak**-ek badu **kontseilu betearazle** bat ere, gaur egun bederatzi lagunek osatzen dutena: Lehendakaria, zazpi batzordekide eta idazkari bat. Hilean behin egiten dituzte bilerak.

Hala patronatuko nola kontseilu betearazleko lanpostuak ez dira ordainduak.

Kudeaketa-organoen arteko erlazio grafikoa

2.1 grafikoa



2.1.4
Produkzioaren antolaketa

Orokorrean hartuta, **Lantegi Batuak**-en egitura **sei negozio-unitatetan** banatzen da batetik, eta **funtzio-arlotan** bestetik.

Funtzio-arloek erakunde osoaren beharrak betetzen dituzte eta hauek dira: gizarte-kudeaketa arloa, administrazio eta finantza arloa eta industri arloa.

Hiru arlo hauen artean **gizarte-kudeaketa** arloa da egitura handiena duena eta bere ardura nagusiak orientazioa eta langileak aukeratzea, gizarte eta lan garapena eta lan-harremanak dira.

Administrazio eta finantza arloak **Lantegi Batuak**-eko kontabilitatearen eta finantzen ardura izango du.

Industri arloaren erantzukizuna izango dira erosketak, sistemak eta garapen berriak. Hauez gain industrializazio prozesuez eta hauen koordinazioaz ere arduratuko da.

Funtzio-arlo hauez gain, **"kudeaketa integratuko zerbitzu"** bat ere badu **Lantegi Batuak**-ek. Zerbitzu honek honako alor hauetarako kudeaketa eta laguntza ematen dio erakundeari: prebentzioa, kalitatea eta ingurumena. Komunikazio-jarduerak ere egiten ditu entitate osoarentzat.

Negozio-unitateei dagokienez, berriz, esan bakoitzak zuzendari bat duela, unitatearen jarduera guztien gaineko ardura osoa duena; baita urteko aurrekontua prestatzekoa eta inbertsio planak egitekoa ere. Jarduerak produkzio-zentro bat baino gehiagotan egiten dira sarri askotan.

Mekanizazioa eta muntaiak – 6 produkzio-zentro. 324 langile eta 217 lagun lanerako prestakuntza-zerbitzukoak (2005).
Muntaia elektrikoa – 5 produkzio-zentro. 303 langile eta 261 lagun lanerako prestakuntza-zerbitzukoak (2005).
Bestelako muntaiak – 5 produkzio-zentro. 118 langile eta 247 lagun lanerako prestakuntza-zerbitzukoak (2005).
Zerbitzuak – 322 langile (2005).
Lanerako – Bezeroen instalazioetan kokatutako enklabeetan oinarritua. Ez du, beraz, bere produkzio-zentrorik. 193 langile guztira (2005).
Zuzeneko publizitatea – produkzio-zentro bat. 80 langile eta 26 lagun lanerako prestakuntza-zerbitzukoak.

Kudeaketa-organoei dagokienez, erakunde osoarentzat izaera estrategikoa duten prozesuak kudeatzen dituen **zuzendaritza batzorde** bat du **Lantegi Batuak**-ek.

Bada **kudeaketa batzorde** bat ere, zuzendari nagusiak eta funtzio-arloetako zuzendariek (3) osatzen dutena. Kudeaketa batzorde honetako kideek, negozio-unitateetako buruekin eta laguntza-koordinatzaile batekin batera, lehenago aipatutako zuzendaritza batzordea osatzen dute.

Organigrama

2.2 grafikoa



Negozio-unitateak	Langile kopurua	Zentroak eta zerbitzuak
Mekanizazioak eta muntaiak	541	6
Muntaia elektrikoak	564	5
Bestelako muntaiak	365	5
Zerbitzuak	322	5
Lanerako	193	2
Zuzeneko publizitatea	106	1

2.1.5
Negozio-unitateen jarduerak

Lantegi Batuak-eko negozio-unitateak bi alorretan banatzen dira: **industria-alorra eta zerbitzu-alorra**.

Konpainiak **industria-alorrean** hasi zituen bere jarduerak, eta honen ondorioz alor hau da, oraindik ere, fundazioan salmenta-kopuru, inbestitze nahiz lanpostu kopuru handienak dituena.

Alor honetako jarduerek azpikontratatzeko eta hainbat zerbitzu kanpoan kontratatzeko prozesuekin dute zerikusia. Jarduerak alor hau osatzen duten hiru negozio-unitateek burutzen dituzte:

Mekanizazioak eta muntaiak
Muntaia elektrikoak eta elektronikoak
Bestelako muntaiak.

2005. urtean **industria-alorreko** salmentak 29.850.000 €-koak izan ziren, hau da, **Lantegi Batuak**-en **salmenta osoen %79**.

Zerbitzu-alorrak, berriz, garbiketa-jarduerekin (era guztietako garbiketak: eraikinak, orokorrak, obratakoak, bideetakoak, eta abar) hasi zuen bere ibilera eta hazten jarraitzen du, batez ere ematen diren zerbitzuen eskaintzari dagokionez.

Jarduera hauek osatzen dute eskaintza gaur egun:

Lorezaintza
Garbiketa
Zuzeneko publizitatea eta dokumentu-kudeaketa
Enklabeak
Lorelan (Garden Centre)
Bestelako zerbitzuak.

Alor honetako salmentak 8.057.000 €-takoak izan ziren 2005eko ekitaldian (**Lantegi Batuak**-en **salmenta osoen %21**)

Lantegi Batuak-en jarduera nagusien deskribapena, jarduera-alorren arabera

2.1 koadroa

	Industria-alorra
Mekanizazioak eta muntaiak	Konformazio-lanak
	Mekanizazioak
	Galdaragintza txikia eta soldadura
	Kobrezko pieza eta barra-egituren fabrikazioa
	Multzoak eta azpimultzoak muntatzea
Muntaia elektrikoak eta elektronikoak	Zirkuitu elektronikoak muntatzea
	SMD teknologia eta teknologia konbentzionala
	Uhin bidezko soldadura
	Test-in-circuit eta test funtzionala
	Kableatzea eta gardeinatzea
	Lotura-txirikordak
	Ekipamendu elektrikoak
	Maniobra-transformadoreak
	Material elektrikoa muntatzea
Bestelako muntaiak	Maneiua eta erretraktilatzea
	Poltsaratzea, etiketatzea eta kit-ak
	Kontsumo-produktuak ontziratzea eta paketatzea
	Multzoak eta azpimultzoak muntatzea
	Plastiko gaineko markatzeak eta soldadurak
	Produkzio-ilaretarako jarduera osagarriak
	Manufakturak eta bigarren amaiera-operazioak
	Produkzio-logistikarako jarduerak
	Zerbitzu-alorra
Zuzeneko publizitatea eta dokumentuen kudeaketa	Mailing-en maneiua (gutun-azaletan sartzea, tolestatzea, ...)
	Digitalizatzea
	Ofimatika zerbitzuak
Enklabeak	Bezeroen instalazioetan (enklabeak) ekoizpenak, muntaiak, paketatzeak nahiz logistika-kudeaketa jarduerak egitea
Garbiketa	Era guztietako eraikinetakoak, orokorrak, obretakoak, bideak, eta abar.
Lorezaintza	Parkeen, lorategien eta berdeguneen mantentze-lanak.
Lorelan	Publikoarentzat zuzeneko salmenta duten lorategi instalazioak.
Bestelako zerbitzuak	Gasolindegien kudeaketa, salmenta-makina automatikoak, igogailu publikoen kudeaketa, kioskoak, eta abar.

2.1.6
Instalazioak

Lantegi Batuak-en instalazio batzuk **Fundazioarenak dira**, beste batzuk **alokairuan** dituzte eta besteak ***erabiltzeko utziak*** izan dira. Gehien gehienak (%88 edo, beste hitz batzuetan esateko, 17 zentroetatik 15) lehenengo motakoak dira (jabetzan daude). Zentro bat (Errekalde, Bilbo) alokairuan dago eta beste bat (Otxarkoaga, Bilbo) Bilboko Udalak utzita erabiltzen da.

Instalazio hauek arloka aztertuz gero, **Lantegi Batuak**-en instalazio gehienak industria-alorrekoak dira (bai kontabilitate-balioarengatik, nola kopuruz).

2005eko abenduaren 31n, 17 instalazioen kontabilitate-balio garbia (Lorelan kontuan hartu gabe) 12 milioi €koa izan da.

Instalazio fisikoak lortzeko egindako inbestimenduez gain, zentro bakoitzeko makineria erosteko egindako inbestitzeak daude. 2005 azken ekitaldia ixterakoan **Lantegi Batuak**-en makineriaren kontabilitate-balio garbia 3,4 milioi €koa izan zen (industria-alorreko zentroei dagokien balioaren %86).

Lantegi Batuak-en produkzio-instalazioen deskribapena

2.2 koadroa

JARDUERA	LANTEGIA	URTEA	ESTATUSA	ERAIKINAK ETA LURSAILAK			BESTELAKO IBILGETU MATERIALAK		
				Kontabilitate balioa	Amortizazio metatua	Balio garbia	Kontabilitate balioa	Amortizazio metatua	Balio garbia
Mekaniz. eta muntaiak	Gernika	1977	Jabetzan	895.224	378.079	517.145	250.412	192.992	57.420
Mekaniz. eta muntaiak	Txibila (Abadiño)	1976	Jabetzan	788.315	452.097	336.218	430.097	408.145	21.952
Mekaniz. eta muntaiak	Basauri	1980	Jabetzan	530.692	264.783	265.909	339.299	107.695	231.604
Mecanizados y Montajes	Derio	1983	Jabetzan	714.460	335.798	378.662	852.445	442.369	410.076
Mekaniz. eta muntaiak	Amorebieta	2002	Jabetzan	1.515.300	124.631	1.390.669	373.739	153.884	219.855
Mekaniz. eta muntaiak	Loiu bi (Loiu)	1999	Jabetzan	553.181	116.926	436.255	543.186	251.689	291.497
Muntaia elektrikoak	Errekalde (Bilbo)		Alokairuan	327.820	225.066	102.754	325.773	159.787	165.986
Muntaia elektrikoak	Otxarkaoga (Bilbo)	1984	Erabiltzeko utzia	186.325	95.032	91.293	74.751	53.447	21.304
Muntaia elektrikoak	Erandio	1983	Jabetzan	1.692.887	776.790	916.097	1.058.719	602.284	456.435
Muntaia elektrikoak	Sestao	1998	Jabetzan	422.503	125.377	297.126	577.320	276.526	300.794
Muntaia elektrikoak	Etxebarri	1991	Jabetzan	1.288.865	663.162	625.703	374.522	262.110	112.412
Bestelako muntaiak	Zalla*	1986	Jabetzan	1.228.025	190.470	1.037.555	101.828	54.942	46.886
Bestelako muntaiak	Garamendi (Bilbo)	1972	Jabetzan	45.645	33.354	12.291	22.734	15.922	6.812
Bestelako muntaiak	Loiu	1999	Jabetzan	846.473	177.792	668.681	264.805	108.925	155.880
Bestelako muntaiak	Plazakola (Markina)	1986	Jabetzan	554.440	222.909	331.531	249.191	119.028	130.163
Bestelako muntaiak	Zorrotza (Bilbo)	2003	Jabetzan	3.301.654	139.962	3.161.692	381.734	53.813	327.921
Zuzeneko publizitatea	Etxebarri		Jabetzan	1.682.035	257.086	1.424.949	933.233	514528	418.705
LORELAN	Zalla*		Jabetzan	762.972	22.695	740.277	71.109	13453	57.656

* Erabilera-erregimeneko lursailak (Zallako Udala).

2.1.7
Inbertsioak

Lantegi Batuak fundazio bezala eratzearen ondorioz, behartua dago erakundearen jarduerek sortutako urteko finantza-soberakinaren gutxienez **%70** erakundean bertan inbestitzera.

1998-2005 bitartean **Lantegi Batuak**-ek **guztira 18.764.030 €ko soberakina** metatu zuen. Kopuru honek gutxienez 13.135.000 € **Lantegi Batuak**-eko jardueretan inbestitzea ekarriko luke.

Baina berez **Lantegi Batuak**-ek 1998 eta 2005 bitartean bere jardueretan egindako inbertsioa 19.539.980 €-koa izan da. Hau da, urteko soberakinaren **%104**, beraz, legeak eskatzen duena baino **%34** gehiago.

Lantegi Batuak-en bilakaera: urteko inbertsioa v. urteko soberakina

2.3 koadroa

000€

Azalpena	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	Guztira
Urteko soberakina €	1.385	1.536	2.014	2.923	2.949	3.113	2.523	2.320	18.764
Urteko inbertsioa €	1.042	1.827	2.396	1.764	3.451	3.468	2.430	3.163	19.540
Inberts./soberakina (%)	%75,2	%118,9	%118	%60,3	%117,0	%111,4	%96,3	%136,3	%104,1

Lantegi Batuak-ek egindako inbertsioa v. urteko soberakina, 1998-2005

2.3 grafikoa



Urritasuna duten pertsonekin *gizartean eta lan-munduan parte hartzea*

3 Urritasuna duten pertsonekin gizartean eta lan-munduan parte hartzea

Lantegi Batuak-ek urritasuna duten pertsonen alde egiten duen esku-hartzearen ardatza lana da. Urritasuna duten pertsonak gizarteratzeko legearen arabera (LISMI) lanpostu batetara hiru modutan iris daiteke: lan-sistema arruntaren bidez, babestutako enplegu zentro berezien bidez eta laneratze-zentroen bidez.

1986. urtean, LISMI legea onartu zenetik lau urtetara eta EAEan Laneratze-zentroen Dekretua onartu zen urtean, **Lantegi Batuak-ek 580 langile zituen**: 437 (%75) Laneratze-zentroan eta 75 (%13) besterik ez Enplegu Zentro Berezian. Denak ala denak adimen-urritasuna zutenak ziren.

Ia 20 urte beranduago, **2005**. urtean, **2.165 langile ditu guztira Lantegi Batuak**-ek (+%273,3). Hauetatik **1.149 (%53) Enplegu Zentro Berezian** daude ordaindutako lanpostu egonkor batekin –1986an 75 ziren–, eta **751 (%35) lanbideratze-zentroan** daude, hau da, lan-egiteko bat dute egokitze psikosomatikorako eta bizi duten gizartera moldatzeko lanabes.

Urritasuna izaerari dagokionez berriz, **Lantegi Batuak-eko langileetatik 1.900 (%88) urritasuna duten pertsonak dira** neurri batean edo bestean, eta 265 langilek (%12) ez dute urritasunik. Talderik handiena adimen-urritasuna duten 1.332 lagunek (langileen %62) osatzen dute.

Jarduera alorrak kontuan hartzen baditugu, urritasunen bat duten langileen %71k **industria-alorrean** egiten du lan eta %28k **zerbitzu-alorrean**.

Lantegi Batuak-ek sortzen dituen lan-aukerek **lan-munduan sartzeko eta gizarteratzeko ibilbide** bat izan behar dute eta urritasuna duen pertsonari bere ahalmenak ahal beste garatzeko aukera eman behar diote. Hau dela eta honako sustapen helburu hauek ezarri dira: urtero Lanbideratze-zentrotik %2 Enplegu Zentro Berezira igarotzea eta EZBtik lanpostu arruntetara %1,5 igarotzea.

Azken bost urteetan **sustapen-indizeak** urtero bete dira, eta baita gainditu ere. 2005. urtean Lanbideratze-zentrotik Enplegu Zentro Berezira %2,3 igaro dira eta Enplegu Zentro Berezitik lanpostu arruntera, berriz, %1,5.

Sustapena ezin da langilea eta lanpostua bata besteari egokitzeko **prestakuntza programetatik eta banakako ebaluaziotik** bereizi. 2005. urtean 851 lagun ebaluatu ziren eta 1.834k talde-prestakuntzako jardueretan parte hartu zuten. Hauez gain, 1.804 azterketa mediko egin ziren.

Etorkizunari dagokionez, eskaria hazten ari da oraindik. 2005. urtean 421 onarpen-elkarrizketa egin ziren; honek behar hauekin bat datozen lan-aukerak sortzen jarraitzeko engaiamenduaren aurrean kokatzen du Lantegi Batuak. Elkarrizketatu hauetatik %50ek gorputz- nahiz zentzumen-urritasuna zuten, %29k adimen-urritasuna eta gainontzeko %21ek buru-nahastea.

Lanak gizarteratzeko estrategia bezala duen garrantzia 3.1

3.1.1 Sarrera

Gorabide izenarekin sortu zenetik (1964) **Lantegi Batuak**-ek urritasuna duten pertsonen aldeko esku-hartzea izan du bere lanaren ardatz.

Dezente beranduago, 1982. urtean, Minusbaliatuak Gizarteratzeko Legeak (LISMI) urritasuna duten pertsonak laneratzeko hainbat era arautzeko aukera eman zuen. LISMIren 37. artikuluan azaltzen denaren arabera, hauek dira legearen xede behinenak:

1 Urritasuna duten pertsonak **lanpostu-sistema arruntean** txertatzea edo, hau ezin bada,
2 Urritasuna duten pertsonak **babestutako enpleguaren eredu bereziaren** bidez produkzio-sisteman sartzea.

Urritasuna duten pertsonak **lanpostu-sistema arruntean** sartzeko, aipatutako Legearen 38. artikuluak zera esaten du: **50 langile baino gehiago dituzten enpresetan ezin daitezkeela urritasuna duten pertsonak langileen %2 baino gutxiago izan**. Praktikan oso ezarpen eskasa izan du arau honek; hori dela eta osabidezko beste neurri batzuk eragin ditu (adibidez, erosketak babestutako lanpostuekiko enpresetan egitea).

Emandako bigarren aukerari dagokionez, **lanpostu babestuei** dagokienez, alegia, aipatutako legeak zera dio 41. artikuluan: *"beren urritasun motagatik nahiz urritasunaren ondorioengatik, behin-behinekoak nahiz behin betikoak izan, lan-jarduera bat ohiko baldintzetan burutzeko gai ez diren urritasuna duten pertsonei enplegu zentro berezietan eman beharko zaie lana..."*. Urritasun fisikoa, psikikoa nahiz zentzumenena dutenak har ditzaketen **enplegu zentro berezi** (EZB) hauen helburu nagusiak honako hauek dira:

Lan produktibo bat egitea, merkatuan erregulartasunez parte hartuz
Lan ordaindu bat ziurtatzea
Urritasuna duten pertsonei egokitze pertsonaleko eta sozialeko zerbitzuak ematea
Lanpostu arrunteko erregimenean sartzeko bidea izatea ahalik eta gizabanako gehienentzat.

Baina urritasuna duen pertsonaren lanerako ahalmenarengatik berau enplegu zentro berezi batean sartzea ezinezkoa denean, LISMIk **Lanbideratze-zentroetan** (LZ) sartzeko aukera jasotzen du.

Legearen 53. artikuluan zera esaten da, hain zuzen ere: *"Beren urritasun nabarmena dela eta, izan hau behin behinekoa nahiz behin betikoa, enpresa batean edo enplegu zentro berezi batean sar ezin daitezkeen urritasuna duten pertsonei lanaren bidezko terapia eta egokitze pertsonal nahiz sozialeko zerbitzuak ziurtatzea da laneratze-zentroen helburua"*.

Laneratze-zentro hauek 1986ko azaroaren 18ko Gizarte-zerbitzuei buruzko Dekretuan arautu ziren eta **Euskal Herriari** dagokionez, eta ezaugarri hauek dituzte, besteak beste:

1 Urritasun psikikoa, fisikoa edo zentzumenena nahiz urritasun mistoa dutenei zuzenduak daude.
2 Egokitze psikosomatikorako eta bizi duten gizartera ahalik eta hobekien egokitzeko bitarteko edo terapia nagusi bezala lana erabiltzen dute.
3 Lanaren emaitza, antolaketa, lanerako teknikak eta diziplina ere funtsezko helburuak dira, baina aurrekoaren mendekoak.
4 Dena den, zentro hauetako erabiltzaileak enplegu zentro berezietako lanpostuetara igarotzea ere helburu dute.
5 Ez dago lan-harremanik.
6 Erabiltzaileek hirugarrenen aurrean lortutako etekinen proportzionala izango den ordainsaria jasoko dute.
7 Lan-jarduerez gain prestakuntza teknikoa, gizatiarra nahiz soziala eta birgaitzeko ekimenak sustatuko dira.

Lanbideratze-zentroak, enplegu zentro bereziak eta lanpostu arruntak ibilbide baten modukoak dira, hots, **urritasuna duten pertsonak lan-munduan txertatzera** bideratutako hiru aukera dira. Eta aurrerago ikusiko dugu nola hirurak ala hirurak badauden **Lantegi Batuak**-en.

3.1.2
Langile kopurua eta langile kopuruaren bilakaera

1986. urtean, LISMI legea onartu zenetik lau urtetara eta EAEan Laneratze-zentroen Dekretua onartu zen urtean, **Lantegi Batuak-ek 580 langile zituen**: 437 (%75) Laneratze-zentroan eta 75 (%13) besterik ez Enplegu Zentro Berezian. Denak ala denak adimen-urritasuna zutenak ziren.

Hasiera hartan enplegu zentro berezia gutxiengo argia zen lanbideratze-zentroarekiko. Baina helburua jakina zen. Urritasuna duten pertsonak lanaren bidez gizarteratzea lortu behar zen eta **Lantegi Batuak**-ek, babestutako enplegu-enpresa bat izaki, erantzukizun hori beregan hartu zuen. Hau da, ahal zen neurrian, hots, baldintza pertsonalek aukera hori ematen zuten guztietan, esku-hartzeak enplegu zentro berezia izango zuen helburu nagusi, bai bertara zuzenean sartuz nola lanbideratze-zentrotik igaroz.

Bost urte beranduago, **1990**. urtean, langile kopuruak %38 egina zuen gora eta ordurako **803 lagun** ziren. Baina **EBZ**ari zegokionez, langile kopurua hasierako 75etik **216**ra hazi zen **(+%188)** eta ordurako **langile kopuru osoaren %27** ziren (1986an, berriz, %13). Urritasun fisikoa nahiz zentzumenena zutenak ere sartzen hasiak ziren gainera, nahiz eta oraindik oso neurri txikian (216tik 15). Bitartean lanbideratze-zentroan, bertan adimen-urritasuna zutenak soilik zeuden, gehikuntza 65 lagunekoa zen (+%15) eta **Lantegi Batuak**-eko langile guztien %75 beharrean %63 ziren orduan.

Langile kopurua hurrengo urteetan ere hazi egin zen, nahiz eta ez abiadura berean zentro mota guztietan: mantsoagoa (baita negatiboa ere) lanbideratze-zentroan eta bizkorragoa enplegu zentro berezian, zenbait urtetan +%18ko tasarekin.

Hain zuzen ere **1995ean** bazeuden 400 lagun EZBan eta **Lantegi Batuak**-eko langile kopuru osoaren (**1.072 lagun**) %40 ziren. 400 hauetatik 321 (%80) adimen-urritasuna zutenak baziren ere, gero eta gehiago ziren urritasun fisikoa nahiz zentzumenetakoa zutenak; hauek ordurako 81 ziren (%20). Lanbideratze-zentroari zegokionez, berriz, 562 lagun ziren guztira bertan, hau da, 1986an baino 127 gehiago (+%29), eta erakundeko langileen %75 beharrean %52 ziren.

EZBaren hazkuntza-tasa LZkoaren gainetik mantendu da beti, harik eta 1998an bi zentroetako langile kopuruak pare-parean kokatu ziren arte. 1999tik EZBak jende gehiago du.

Lantegi Batuak-eko langile kopurua eta langile kopuruaren bilakaera. 2001-2005

3.1 koadroa

	Lanbideratze zentroa	Enplegu zentro berezia: urritasuna			Urritasunik gabeak	Guztira
		Adimen-urritasuna	U. fisikoa/ zentzumenekoa	Buru-nahastea		
1986	437	75	0	0	68	**580**
1987	444	121	3	0	70	**638**
1988	428	160	5	0	75	**668**
1989	465	166	8	0	80	**719**
1990	502	201	15	0	85	**803**
1991	533	235	20	0	102	**890**
1992	527	268	33	0	102	**930**
1993	554	282	54	0	103	**993**
1994	534	307	57	0	105	**1.003**
1995	562	321	81	0	108	**1.072**
1996	569	336	93	0	113	**1.111**
1997	566	363	117	0	131	**1.177**
1998	566	407	150	0	142	**1.265**
1999	566	432	203	0	180	**1.381**
2000	616	473	282	0	180	**1.551**
2001	641	539	325	14	193	**1.712**
2002	691	532	348	31	197	**1.799**
2003	727	529	364	59	224	**1.903**
2004	733	548	422	76	269	**2.048**
2005	751	581	470	98	265	**2.165**

Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

Eta, azkenik, 2005. urtean 2.165 langile ditu guztira Lantegi Batuak-ek. Hauetatik **1.149 (%53) Enplegu Zentro Berezian** daude ordaindutako lanpostu egonkor batean, eta **751 (%35)**, berriz, **Lanbideratze-Zentroan** daude, hau da, lan-egiteko bat dute egokitze psikosomatikorako eta bizi duten gizartera moldatzeko lanabes.

Lantegi Batuak-eko langile kopuruaren bilakaera, 1986-2005

3.1 grafikoa



Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

Cainerako 265 langileak (%12) enpresako zuzendaritzan eta administrazioan nahiz tailer buru, arduradun eta abar lanean ari diren urritasunik gabekoak dira. Hauen proportzioa nahiko egonkor mantendu da denboran zehar nahiz eta kopuru absolutua 1986ko 68 langiletik egungo 265 langilera (+%290) pasa den.

Urritasuna duten pertsonentzat lan-aukerak sortuko zituen erakunde irmoa izateko **Lantegi Batuak**-ek laurogeigarren hamarkadan bere gain hartu zuen ardura agerian geratzen da 1986tik 2005era bitarteko epean hala orokorrean nola bi eredu posibleetan (EZB eta LZ) izandako bilakaerari erreparatzean.

Langile kopuruaren gehikuntza zentro motaren arabera, 1986-2005

3.2 grafikoa



Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

Hogei urte hauetan **1986an erakundeak guztira zituen 580 langiletik gaur egungo 2.165era pasa. Hau da, denbora bitarte honetan 1.585 langile gehiago izatera iritsi da (+%273,3)**.

Horretan lagundu dute urtero izan diren gehikuntzek; gehikuntza hauek +%3,6tik (1996) +12,3ra (2000) bitartekoak izan dira. Cai honi buruz nahikoa bedi esatea 2001etik 2005era **Lantegi Batuak**-eko langile kopurua 453 lagun hazi dela; honek bost urte hauetako hazkunde-tasa +%26,5ean kokatzen du, eta Lantegi Batuak-eko langileen %21ek 5 urte baino gutxiago daramatza bertan lanean.

Baina bilakaera honek **ez du indar bera izan** enplegu zentro berezian eta lanbideratze-zentroan.

Enplegu zentro berezian Lantegi Batuak-ek lanpostu gisa eskainitako lan-aukeren onuradun izan direnak 1986. urtean 75 izatetik 2005. urtean 1.149 izatera pasa dira, hau da, +%1.432ko hazkunde tasa izan da. Eta erakunde barruan enplegu zentro bereziak duen pisua %13tik %53ra pasa da.

Hau izan daiteke lanaren bidez urritasuna duten pertsonak normalizatzeko bidean egindako apustuaren eta **lanbideratze-zentroen** aurrean ahal den guztietan hobetsi den zetro mota dela erakusteko adierazle onena. Honi dagokionez, esan 1986 eta 2005 bitartean **Lantegi Batuak**-en sartu diren 1.585 lagunetatik 1.074 (%68) EZBan daudela.

Lanbideratze-zentroak, berriz, bilakaera apalagoa izan du eta 437 lagun izatetik 751 izatera pasa da (+%72). Erakundean duen garrantzia 1986an zuen %75etik 2005ean %35 izatera pasa da. Gogoratu aukera honek izaera prestatzailea duela oso, eta EZBra igarotzeko prestatzeko behin behineko egoera izan daiteke, baina baita behin betiko egoera ere urritasuna duen pertsonaren ahalmenek hala aholkatzen dutenean.

Langile kopuruaren banaketa, zentro motaren arabera. 1986-2005 (%)

3.3 grafikoa



Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

3.1.3
Langileen banaketa urritasun motaren arabera

Lantegi Batuak-ek urte hauetan izan duen dinamismoak ez du **urritasuna duten pertsonen eta ez dutenen** portzentajeen banaketa aldatzea ekarri. Portzentaje hauek nahiko egonkor mantendu dira denbora joan ahala.

Lehenago ere esan dugunez, 2005ean Lantegi Batuak-en zeuden 2.165 langileetatik 265ek (%12) ez dute urritasunik eta **gainerako 1.900ak (%88) urritasuna duten pertsonak dira**.

Urritasun motari begiratzen badiogu, berriz, talde jendetsuena –**Lantegi Batuak**-en sorrerarekin duen lotura dela eta– adimen-urritasuna dutenek osatzen dutena da, eta 2005ean **1.332 ziren** hauek (**langile guztien %61,5**). Lehen esan bezala, hauetako batzuk (751) lanbideratze-zentroan daude eta besteak enplegu zentro berezian (581).

Bilakaerari dagokionez, azkenik, gaur egun 1986an baino 820 lagun gehiago (+%160) dira adimen-urritasuna dutenak baina, bestelako urritasuna dutenak sartu direnez, pisua galdu dute langile kopuru osoarekiko; hasieran langileen %88 ziren, 2001ean %69 eta gaur egun, esan bezala, %61,5 dira.

Langile kopuruaren bilakaera urritasun motaren arabera. 2001-2005

3.2 koadroa

	2001	2002	2003	2004	2005	epeko % Δ
Langile kopurua (l.k.) guztira	**1.712**	**1.799**	**1.903**	**2.048**	**2.165**	**26,5**
Urritasunik gabeko l.k. osoa	11,3	11,0	11,8	13,1	12,2	**37,3**
Urritasuna duten l.k. osoa	88,7	89,0	88,2	86,9	87,8	**25,1**
adimen-urritasuna	68,9	68,0	66,0	62,6	61,5	**12,9**
urritasun fisikoa nahiz zentzumenetakoa	19,0	19,3	19,1	20,6	21,7	**44,6**
buru-nahastea	0,8	1,7	3,1	3,7	4,5	**600,0**
Langile kopurua guztira	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	

Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

Langile kopuruaren banaketa urritasun motaren arabera. 1986-2005 (%)

3.4 grafikoa



Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

Hurrengo taldea, garrantziaren arabera, **urritasun fisikoren bat nahiz zentzumen-urritasunen bat** dutenen taldea da –denak ala denak EZBan– eta **gaur egun 470 lagunek** osatzen dute, **langile talde osoaren %21,7k**, alegia. **Handitzen ari den taldea** da: azken bost urteetan taldea bera +%45 eta erakundean duen pisua ehunekoetan hiru puntu hazi da.

Azkenik esan **2001etik Lantegi Batuak-ek buru-nahastea dutenei** ere lana ematen diela. Eta gutxiengo diren arren –98 lagun 2005ean, langile talde osoaren %4,5– azken bi urteetan **urteko %29ko hazkunde tasa** izan duen taldea da hau.

Langile kopuruaren bilakaera, urritasunaren arabera. 1986-2005

3.5 grafikoa



* Urritasun fisikoa nahiz zentzumenekoa dutenak elkartean sartu ziren lehen urtea 1987 da
**Buru-nahastea dutenak elkartean sartu ziren lehen urtea 2001 da
Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

3.1.4
Langileen banaketa jarduera alorraren arabera

Lantegi Batuak-ek bere jarduera komertziala bi alor handitan banatzen du: **industria-alorra** eta **zerbitzu-alorra**.

Lehenengo alorrekoak dira mekanizazioak eta muntaiak, elektronika, osagai eta tresneria elektrikoak eta bestelako muntaiak. Zerbitzu-alorrean garbiketa, lorezaintza eta zuzeneko publizitatea nabarmentzen dira.

Lantegi Batuak-en historian **industria-alorra izan da beti –eta oraindik ere hala izaten jarraitzen du– lanpostu gehien ematen dituena**. Horrela, 2005. urtean lanean ari ziren 1.900 urritasuna duten pertsonetatik ia %71 alor honetan ari ziren lanean, %28 **zerbitzu-alorrean** eta %0,8 laguntza-jardueretan (administrazioa, ...).

Hala ere, azken bost urteetan hala alor batek nola besteak izan duten bilakaera aztertuta, zera ikus dezakegu, alegia, **zerbitzu-alorrak** hazkunde handiagoa (+%36) izan duela **industria-alorrak** (+%23) baino. Eta zerbitzu-alorrak elkartean duen pisua ere handituz joan da. 2001. urtean bere baitan urritasuna duten pertsonen %26 biltzen bazituen ere, 2006. urtean, aipatu berri dugunez, %28 hartzen ditu.

Urritasuna duten langile kopuruaren bilakaera, jarduera alorrarena arabera. 2001-2005 — 3.3 koadroa

	2001	2002	2003	2004	2005	epeko %Δ
Urritasuna duten langile kopuru osoa	1.519	1.602	1.679	1.779	1.900	25,01
Banaketa, alorren arabera (%)						
Industria-alorra	72,7	69,8	71,8	71,1	70,8	22,76
Zerbitzu-alorra	26,2	29,4	27,6	28,0	28,3	35,95
Laguntza-alorrak	1,1	0,9	0,6	0,9	0,8	0,00
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	

Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

Urritasuna duten langile kopuruaren bilakaera, alorraren arabera, eta epean izandako gehikuntza (%). 2001-2005

3.6 grafikoa





Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

Lantegi Batuak-ek egiten duen jarduera komertzial orok langile teknikari espezialisten laguntza behar du bai urritasuna duen langilearen behar eta eskariei dagokienez nola produktuaren kalitateari dagokionez. Industria-alorrean gainbegiratze-lan hauek egiteko behar den jendea ez da zerbitzu-alorrean behar izaten dena bezain ugaria. Izan ere, industria-alorreko jarduerak espazio mugatuagoan egiten dira eta muntaiak maiz egiten dira. Zerbitzu-alorrean, berriz, batetik jarduerak (lorezaintza, gasolindegiak, eta abar) lurraldean barreiaturik daudelako eta bestetik taldearen tamaina dela eta, laguntzako lagun bakoitzeko dagoen urritasuna duten pertsona kopurua neurtzen dituen ratioa jaitsi egiten da.

Alor baten eta bestearen artean, **laguntza osagarriaren baldintzetan** dagoen desberdintasun honek ondorio zuzena du alor bakoitzeko urritasunik gabeko langileen eta urritasuna duten pertsonen arteko proportzioan.

Urritasuna duten pertsonen proportzioaren bilakaera, jarduera alorren arabera

3.7 grafikoa



Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

Lehen ere esan dugunez, **Lantegi Batuak**-eko langileen %88k urritasunen bat dute eta gainerako %12k, berriz, ez. **Industria-alorra** soilik hartzen badugu kontuan, urritasuna dutenen proportzioa %91ra igotzen da, zerbitzu-alorra soilik kontuan hartzen dugunean %86ra jaisten den bitartean, gainerako %14 urritasunik gabeak direlarik.

Kopuru hauek **Lantegi Batuak**-ek batetik **zerbitzu-alorra** industria-alorraren aurrean indartzen saiatzeko eta bestetik zerbitzu-alorraren barruan urritasuna duten pertsonen proportzioa mantentzeko duen borroka erakusten dute. Urritasuna duten pertsonen proportzioa mantentzea funtsezkoa da fundazioaren helburuak betetzeko eta Administrazioaren eskakizunei erantzuteko (adibidez, diru-laguntza jakin batzuk jasotzeko).

3.1.5
Gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko ibilbidea edo sustapen-prozesuak

Lanbideratze-zentrotik enplegu zentro berezira (EZB)

Lantegi Batuak-ek sortzen dituen lan-aukerak urritasuna duen pertsonari gizarteratzen eta lan-munduan sartzen laguntzeko ibilbide bezala ulertu behar dira eta urritasuna duten pertsonen ahalmenak ahalik eta gehien lantzeko aukera eman behar dute.

Urritasuna duten pertsonei erabat gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko aukera ematen dien ibilbide honen hasieran orientazioa eta prestakuntza daude eta amaieran, berriz, lanpostu arruntetara heltzea. Bitartean lanbideratze-zentroa, enplegu zentro berezia eta lagundutako enplegua daude; hauetan urritasuna duten pertsonek beren lan-jarduera egiten dute.

Lantegi Batuak-ek urritasuna duten pertsonei hasieran egiten dien balorazio eta ebaluazioaren ondorioz hauek, EZBra edo LZra joango diren erabakitzen da. Azken hau, lehen ere esan dugu, **integratzeko zailtasun handiagoak dituzten adimen-urritasuna dutenei** zuzendua dago eta bertan lana urritasuna duten pertsonak gaitzen laguntzeko lanabesa da.

LZek ere gizarteratzea eta lan-munduan txertatzea dituzte helburu. Horregatik pertsonak enplegu zentro berezira igarotzeko prozesuak sustatzen saiatzen dira etengabe, enplegu zentro berezian lana ordaindutakoa baita dagoeneko.

Hain da horrela, ezen **Lantegi Batuak**-ek erakunde bezala duen Eginkizuna horrela agertu baitu: *"adimen-urritasuna dutenen garapen-tasak urtean LZtik EZBra %2 eta EZBtik enplegu arruntera %1,5 igarotzen laguntzeko moduan mantendu behar ditugu".*

Arreta LZtik EZBra igarotzeko prozesuan jartzen badugu, azken bost urteetan **sustapen-indizeak** beti %2ren gainetik mantendu direla ikusiko dugu.

LZtik EZBra urtean 16 eta 23 lagun bitartean igaro dira urtero kopuru absolutuak kontuan hartuz; LZko langile kopuru osoarekiko neurtuaz, berriz, %2,3 eta %3,6 bitarteko portzentajeak ematen dituzte.

Zehaztuz, azken urtean, 2005ean, LZtik EZBra 17 lagun igaro dira, hau da, %2,3.

Lanbide-zentroko langileen mugimenduak. 2001-2005

3.4 koadroa

	2001	2002	2003	2004	2005
Langile kopuru osoa	**641**	**691**	**727**	**733**	**751**
Urtean izandako bajak	**47**	**30**	**44**	**51**	**58**
Erregimen berezira igarotzeagatik	23	16	18	19	17
Irten direlako, utzi dutelako, ...	24	14	26	32	41
Sustapen-indizea (%)	**3,6**	**2,3**	**2,5**	**2,6**	**2,3**
Irteera-indizea (%)	**3,7**	**2,0**	**2,2**	**4,4**	**5,5**
Urtean izandako altak	**70**	**80**	**81**	**60**	**78**
Itxaronzerrendatik	70	79	84	60	77
Gehikuntza garbia (%)	**3,6**	**7,2**	**5,1**	**1,2**	**2,7**
Saldo garbia (altak/bajak)	**1,49**	**2,67**	**1,84**	**1,18**	**1,34**

Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

EBZra igaro diren 17 lagun hauez gain beste 41ek utzi dute LZ 2005. urtean; beraz, LZan izan diren bajak bertako langile kopuruaren %7,7 izan dira. Aurreko urteetako baja proportzioen oso antzekoa da hau, hain zuzen ere (%7 2004. urtean, %7,3 2001. urtean).

Irteera hauei, alabaina, alta kopuru altuago batekin egin zaie aurre urtero eta gainditu egin dira. Altak bajak baino gehiago izanik, LZak hazten jarraitzen du. Azken bost urteetan urteko sarrera berriak 60 (2004) eta 80 (2002) bitartekoak izan dira. 2005. urtean 78 izan ziren zehazki eta hauetatik 77 itxaron zerrendatik zetozen. Saldo garbia aztertuz, beraz, **baja bakoitzeko 1,34 alta izan dira, hau da, langile kopuruak %2,7ko gehikuntza garbia izan du**.

Baina sustapen-dinamika hau lotu-lotua dago **Lantegi Batuak**-en LZan dauden lagun guztiekin egiten den etengabeko prestakuntzarekin. Prestakuntza hau banakako programen bidez egiten da.

Banakako programak **hasierako ebaluazioaren eta jarraipen ebaluazioaren** bidez lantzen dira. Urritasuna duen pertsonaren eta bere ahalmenen ebaluazioa, berriz, **eginkizuna pertsonari egokitzeko profilen metodoaren** bidez egiten da, erakundeak berak landutako metodoa da berau.

Prestakuntza-programa honek hainbat alor jorratzen ditu, hala nola itxura eta norberaren zainketa, autonomia eta trebetasun sozialak, laneko jarrerak, mugikortasuna komunitatean, informazioa prozesatzea, gaitasun fisikoak, eta segurtasuna eta osasuna; eta baita zeregin jakinak egiteko lan-prestakuntza ere.

Aldagai hauetatik guztietatik abiatuta, pertsona bakoitzaren profila zehazten da, eta denboran zehar jarraipena egiten zaio. Jarraipenak bere aurrerapenak eta hobekuntzak zehazteko, egokitze pertsonaleko eta sozialeko esku-hartzeak lantzeko eta, ondorioz, LZBra igarotzeko nahiz etorkizuneko prestakuntza beharren egokitasuna erabakitzeko aukera ematen du.

Baina ebaluazio-prozesu honez gain bada enplegu zentro berezirako ibilbide honetan kezka eragiten duen eta baloratzen den beste kontu bat ere: kokaleku berrian pertsonak bere lanpostua mantentzeko nahikoa baliabide sortzeko aukera ba ote duen, alegia. Izan ere, lanean ari den pertsona bakoitzarengatik enpleguko institutu nazionaletik (EIN) jasotzen den diru-laguntza (lanbide arteko gutxieneko soldataren %50) ez baita nahikoa benetako kostua berdintzeko. Jakin 2008an lanbide arteko gutxieneko soldata 600 euro ingurukoa izango dela uste dela.

Horregatik da garrantzitsua EZBrako sustapena egiterakoan pertsonak produkzioari dagokionez ere dituen ahalmenak baloratzea.

Lanbideratze-zentroan langileen mugikortasunak izan duen bilakaera. 2001-2005 (%)

3.8 grafikoa



Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

Enplegu Zentro Berezia

Enplegu Zentro Berezia lan-munduan txertatzeko formula bat da, **Lantegi Batuak** enplegu babestuko enpresa bezala bereizten duena eta merkatuan era lehiakorrean eskuhartzea bilatzen duena.

Cogoratuko duzuenez (3.1 koadroa), 1986tik 2005era bitarteko epean EZBa 75 langile izatetik 1.149 langile izatera pasa da, hau da, 1.074 langileko gehikuntza (+%1.432) izan du).

Abian jarri eta lehen urteetan, hau da, 1986 eta 1991 bitartean, urteko hazkunde-tasa oso handiak izan zituen (%20 eta %30 baino handiagoak), urte haietan LZtik langile ugari igaro zelako. Egoera honek 1991 eta 1992 urteetan ere iraun zuen (+%18).

Urte horietatik aurrera hazkundea moteldu egin zen, nahiz eta altua izaten jarraitzen duen, %10etik gorakoa, hain zuzen ere. 2000 eta 2001 urteetan berriz ere indartu zen hazkuntza (+%19 eta +%16 hurrenez hurren).

2001-2005 urteetako altak eta bajak aztertzean zera ikusten da: **erregimen hau oraindik ere hedatzen ari dela**, nahiz eta alten eta bajen arteko erlazioa urtetik urtera moteltzen ari den.

Enplegu zentro bereziko langileen mugimenduak. 2001-2005

3.5 koadroa

	2001	2002	2003	2004	2005
Langile kopuru osoa	**878**	**911**	**952**	**1.046**	**1.149**
Urtean izandako bajak	**24**	**30**	**46**	**59**	**64**
- Enplegu arruntera igarotzeagatik	14	15	18	16	17
Irteera-indize osoa (%)	**2,7**	**3,3**	**4,8**	**5,6**	**5,6**
- Sustapen-indizea (%)	1,6	1,7	1,9	1,5	1,5
- Irteera-indizea (%)	1,5	1,7	2,9	4,1	4,1
Urtean izandako altak	**82**	**89**	**85**	**113**	**112**
- Itxaron zerrendatik	56	75	66	92	91
- Lanbideratze-zentrotik igota	23	16	19	19	17
- Bestela	3	–	–	2	4
LZtik igotakoen indizea, langile kopuru osoarekiko (%)	**2,6**	**1,8**	**2,0**	**1,8**	**1,5**
Gehikuntza garbia (%)	**6,6**	**6,5**	**4,1**	**5,2**	**4,2**
Saldo garbia (altak/bajak)	**3,42**	**2,97**	**1,85**	**1,92**	**1,75**

Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

Erregimen bereziko langileen mugikortasunak izan duen bilakaera. 2001-2005 (%)

3.9 grafikoa



Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

Altei dagokienez, berriz, **urteko kopuruan gehikuntza** izan dela ikus daiteke; **2001-2003 bitartean 82-90 laguni** eman zitzaion alta eta **2004an eta 2005ean 110** baino gehiagori.

Zehazki 2005ean 112 alta izan dira. Hauetatik 17 (%15) **LZtik igo diren** urritasuna duten pertsonak izan dira eta 91 (%81), berriz, **itxaron zerrendatik** datoz.

Itxaron zerrendaren ekarpen hau 2005eko langile kopuruaren %8koa da eta LZtik datozenak, berriz, %1,5.

Baina urtetik urtera **irteera-indizeak ere gora** egiten duela ikus daiteke. Irteera indizeak bi osagarri desberdin ditu.

Alde batetik, **lanpostu arruntetara egindako igoerei dagokien irteera-indizea** dago, **Lantegi Batuak**-ek berea duen urritasuna duen pertsonak lan-munduan erabat txertatzeko helburua nola betetzen den erakusten duena. Indize hau nahiko egonkor mantendu da eta, urtearen arabera, %1,5 (2004an eta 2005ean) eta %1,9 (2003an) bitartekoa izan da.

Bestetik, **irteera-indizea bera dago, zentzu hertsian esanda**, zentroa nahita utzi dutenen kopurua adierazten duena eta azken bost urteetan gorakada izan duena. 2001ean indizea langile talde osoaren %1,5 bazen, 2004an eta 2005ean hurrenez hurren **Lantegi Batuak** utzi duten 43 eta 47 lagunek urte bakoitzean %4,1eko indizea adierazten dute.

Irteeren gorakada honek, baina, ez du, kopuru garbiak hartzen baditugu, LZBa geroz eta handiagoa izatea eragozten. Hala erakusten dute alten eta bajen arteko erlazioek, 2005ean **1,75 alta izan zen baja bakoitzeko**, eta langile talde osoarekiko gehikuntza garbiak berak (+%4,2).

Enplegua ingurune arruntean

Urritasuna duten pertsonen garapen profesionalerako ibilbide honetan azken maila da enplegu arrunta, benetako gizarteratzea lortzeko bidean azken helburua.

Lantegi Batuak-en helburua, hala jasotzen du erakunde bezala ezarri duen Eginkizunean, **urtero bere langileen %1,5 lanpostu arruntetara igarotzea da**.

2005ean lanpostu arruntetara igarotzeko sustapenak **17 onuradun (%0,9)** izan ditu; zera esan nahi du honek, alegia, 82 lagun daudela egoera honetan, alegia, **Lantegi Batuak**-eko langile kopuruaren **%4,3**.

Denboran zehar izandako bilakaera aztertuz lanpostu arruntetan daudenen portzentajea apal baina etengabe gora doala ikus daiteke; 2001ean %3,4 ziren, 2003an %4 izan zen eta 2005ean, berriz, %4,3.

Lanpostu arruntetara iristeaz gain, mistoa dei genezakeen beste bide bat agertu da oraindik orain: **enklabeak** hain zuzen ere.

Eredu honetan urritasuna duten pertsonek bere lan-jarduera enpresa arruntetan egiten dute, baina **Lantegi Batuak**-ekin duten kontratu-lotura galdu gabe. Honek alde batetik lan-inguru arruntarekin ohitzeko aukera ematen die, eta bestetik **Lantegi Batuak**-en laguntza, prestakuntza eta ebaluazio zerbitzuak izaten jarraitzen dute. Kasu askotan eredu honek ikasketa-prozesua eta lanpostu arruntera egokitzea erraztu egiten ditu. Batzuetan enpresek berek eskatzen dute eredu hau, **Lantegi Batuak**-i ematen dioten lana beren egoitzan bertan egitea nahiago izaten baitute.

2005. urtean programa mota honetan parte hartzen ari ziren urritasuna duten pertsonak **190** ziren, hau da, urritasuna duten langile kopuru osoaren **%10**.

Azken lau urteetan kopuru hau gutxienez 170 lagunekoa izan da (2003) eta gehienez 190 lagunekoa (2005), nahiz eta proportzioa nahikoa egonkor mantendu den lau urte hauetan.

Urritasun motaren arabera, enklabeetan dauden %63k urritasun fisikoa nahiz zentzumenetakoa dute eta %37k adimen-urritasuna.

Ingurune arruntean lanean ari den langile kopurua. 2001-2005

3.10 grafikoa



Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

Ingurune arruntean lanean ari diren langile kopuruaren bilakaera. 2001-2005

3.6 koadroa

	2001	2002	2003	2004	2005	epeko % Δ
Urritasuna duten langile kopuru osoa	**1.519**	**1.602**	**1.679**	**1.779**	**1.900**	
Lanpostu arrunta dutenen kopurua	52	56	68	75	82	57,7
Sustapen-indizea (%)	3,42	3,50	4,05	4,22	4,32	
Enklabeak:						
Guztira	**115**	**179**	**170**	**182**	**190**	**65,22**
Urteko hazkunde-indizea	43,75	55,65	-5,03	7,06	4,40	
Langile kopuru osoarekiko urteko %	7,57	11,17	10,13	10,23	10,00	

Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

3.1.6
Urritasuna duten pertsonak onartzeko eskarien bilakaera

Lantegi-Batuak-ek lan babesturako erakunde bezala izan duen hedapenak ez dirudi etorkizun hurbilean aldatuko den zerbait, eskariaren ikuspuntutik behinik behin. Izan ere, jasotzen dituen onarpen eskariak ikusita, urritasuna duten pertsonei lan-aukerak eskaintzen dizkien erakunde bezala finkatzen ari da oraindik ere **Lantegi Batuak**.

Lantegi Batuak-en onartzeko eskariei erantzunez egiten dituzten elkarrizketak erabiltzaileei eta beren familiei orientazioa eta laguntza emateko zerbitzuen esparruan kokatzen dira. Elkarrizketa hauek elkartean sartzeko atea eta pertsona onartzeko nahiz kontratatzeko lehenengo pausoa dira.

Orientazio zerbitzuak honako eginkizun hauek ditu bere baitan:

1 Eskariak jasotzea

- **E**skariak arretaz hartzea
- **E**rregistroa
- **I**txaronzerrendak egitea
- **O**rientazioa
- **L**anbideko zerbitzuetara sartzeko aukera
- **L**anbideratze-prestakuntza nahiz lan-prestakuntza

2 Adimen-urritasuna dutenen aukeraketa eta harrera

- **E**rabiltzailearen gizarte- eta familiarteko historia

Ahalmenen eta ezintasunen diagnosia, eta baita premiena eta beharrezko laguntzena ere
Desabantaila sozial, gizarte-bazterkeria nahiz marjinazio egoerak
Erabiltzaileak-familiak **Lantegi Batuak**-ekiko duen itxaropena eta libre egotea
Harrera: **Lantegi Batuak**-ek eskaintzen dituen programa eta zerbitzuen berri ematea

3 Erabiltzaileei-familiei orientazioa eta laguntza

Erabiltzaileak berak-familiak bere egoera ulertzea
Urritasunak lantzea
Autobalorazioa indartzea
Diru-laguntzei buruzko informazioa
Laguntza teknikoak
Erkidegoaren baliabideak, erakundeetakoak nahiz pribatuak
Gizartean parte-hartzea.

Hamarkadaren hasieran, 2001ean, 265 eskari onartu ziren; hauetatik 109 (%41) **adimen-urritasuna** zutenei zegozkien, 86 (%32,5) urritasun fisikoa nahiz zentzumenetakoa zutenei eta 70 (%26,5), berriz, **buru-nahastea** zutenei.

2001etik aurrera eskariak etengabe ugarituz joan dira 2005era arte. Urte horretan 469 eskari jaso ziren (+%77 epe horretan).

Esan beharra dago bitarte honetan onarpen eskarien barne-osaketa aldatuz joan dela urritasun motari dagokionez. Hiru egoera nabarmentzen dira argi eta garbi.

Lehenik eta behin, 2001. urtetik izan diren **adimen-nahastea duten pertsonen** onarpenak. Lehen urte hartan 70 izan ziren talde honetako eskariak (%26). 2004an, berriz, jaso ziren 414 eskarietarik 140 izan ziren (%33,8). Eta urte bat beranduago, 2005ean, 159 izan ziren, hau da, jaso ziren 469 eskarietatik %33,9.

Bigarrenik, **urritasun fisikoa nahiz zentzumenetakoa** dutenen eskarien bilakaera irregularra. Bosturtekoaren hasieran, 2001 eta 2002 urteetan, %32 eta %28 izan ziren hurrenez hurren, 86 eta 95 eskari jaso baitziren. 2003an jasotako 186ak eskari guztien %46 izan ziren. Eta hurrengo bi urteetan talde honetatik jasotako eskariak eskarien %41 izan dira gutxi gorabehera.

Jasotako onarpen eskarien bilakaera. 2001-2005

3.7 koadroa

	2001	2002	2003	2004	2005	Onarpen indizea 2005
Onarpen eskariak	265	336	404	414	469	62,9%
Banaketa, urritasun motaren arabera (%)						
adimen urritasuna	41,1	28,6	24,8	23,7	22,8	66,4%
urritasun fisikoa nahiz zentzumenetakoa	32,5	28,3	46,0	40,8	41,8	82,1%
nahaste kranio-entzefalikoa			0,2	1,7	1,5	28,6%
buru-eritasuna	26,4	43,1	29,0	33,8	33,9	38,4%
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	

Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

Azkenik, ugariena izan den taldeari dagokionez, **adimen-urritasuna** dutenei dagokienez, alegia, bosturtekoan zehar urtean 100 eskari inguru jaso badira ere, eskari guztiekiko bere pisua nabarmen murriztu da eta murrizten jarraitzen du: 2001eko %41etik 2005eko %23ra jaitsi da.

Elkarrizketa itxuran egiten den lehen harreman honetan bildutako informazioak pertsonaren ahalmenen balorazioa egiteko eta enplegura, lanbideratzera nahiz beste zerbitzu batzuetara bideratzeko aukera ematen dio **Lantegi Batuak**-i.

2005. urtean jaso ziren 469 eskarietatik **hautaketa/onarpen-indizea %63koa izan zen**; hau da, **295 lagun kopuru absolutuetan**. Baina portzentaje hau taldearen arabera aldatu egiten da.

Onarpen-indizerik altuena **urritasun fisikoa nahiz zentzumenetakoa** dutenena izan da: 196 eskarietatik 161 aukeratu dira (%82). Hauen atzetik daude adimen-urritasuna dutenak, 107tik 71 aukeratu baitira, hau da, %66. Eta azkenik buru-nahastea dutenen eskarietan, jasotako 159tik 61 (%38) onartu dira.

Eskari honek (293 lagun) behar hauei neurriko enplegu-aukerak sortzen jarraitzeko engaiamenduaren aurrean jartzen du **Lantegi Batuak**; izan ere badaki horrela egiten ez badu itxaron zerrenda geroz eta luzeago bat izango dutela.

Onarpen eskari kopuruaren bilakaera. 2001-2005

3.11 grafikoa

Eskari kopuruaren bilakaera



Urteko eskarien garrantzia, urritasun motaren arabera



Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

Aurreko urteetako **itxaron zerrendarik** ez dagoela suposatzen badugu eta 2005ean aukeratutako lagun kopurua (293) urte horretan lanbideratze-zentroak eta enplegu zentro bereziak elkarrekin izan duten gehikuntzarekin (121) parekatzen badugu, 172 laguneko defizita dagoela ikusiko dugu; eta hauek, hasiera batean, itxaronzerrendara joango lirateke, **Lantegi Batuak**-ek eta erakunde bezala duen mugikortasunak elkartean sartzea ahalbidetzeko zain. Momentuan, enplegu zentro berezian behintzat bai, eskari hauei erantzuna ematea **Lantegi Batuak**-i, bere ahalmen komertzialari eta bere eskabide-zorroari baitagokio.

Lanbideratze-zentroan, berriz, toki kopurua gehitzea foru-ekimenaren baitan dago eta zenbait unetan geldialdiak izan badira era, azken urteetan toki berriak sortzen ari dira eta apenas dagoen itxaron zerrendarik.

Honi dagokionez, nahikoa da itxaron zerrendak azken urteetan izan duen bilakaera ikustea. 1996an adimen-urritasuna zutenen itxaron zerrenda 283koa bazen (1997an 313koa), kopuru hau zorrotz jaitsi da 2005ean eta 38 besterik ez dira orain.

Adimen-urritasuna dutenen itxaron zerrendaren bilakaera. 1996-2005

3.12 grafikoa



Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

Urritasuna duten pertsonei laguntza eman eta jarraipena egiteko zerbitzuak

3.2

3.2.1 Sarrera

Bere jarduerak hasi zituenetik, urritasuna duten pertsonak gizarteratzera eta lan-munduan sartzera zuzendutako bere esku-hartzeak ikuspegi orokorra baina bakoitzari banan-banan egokitua behar zuela onartu zuen **Lantegi Batuak**-ek. Egia da edozein erakundetan –eta are gehiago 2.165 langile dituen **Lantegi Batuak**-en neurriko batean– giza baliabideek ekoizpenaren edo salmenten kudeaketa-alorra bezain alor handia osatzen dute. Prestakuntzak, etengabeko hobekuntzak, kalitateak, lan-arriskuen prebentzioak eta baita erabakiak hartzeak ere giza baliabideak dituzte jarduera ardatz, eta pisu eta protagonismo ukaezina eskuratu dituzte.

Baina **Lantegi Batuak**-en kasuan kudeaketa pertsonei begira egitea ezin da inondik ere elkartearen izaeratik banatu, honen funtzionamendua ezin baita pertsonak kontuan hartuz eta pertsonen garapena helburu behienena izanez baizik ulertu.

Eredu honek laneko garapenean jartzen du arreta, ahalik eta gizarteratze maila handienak lortzeko. Horregatik ez dira lan-jarduera egiten duten langileak edo erabiltzaileak soilik, baizik eta Lantegi Batuak-en bezero ere badira, benetako gizarteratzea lortzeko hobetzen eta pertsona bezala garatzen laguntzeko ematen zaien orientazio-zerbitzu pertsonalaren bezero, hain zuzen ere.

Hau da beste enpresa batzuekiko **Lantegi Batuak**-ek duen desberdintasun handia eta gizarte-eragile nabarmen eta urritasunarekiko engaiatuaren izaera ematen diona. Lantegi Batuak-ik ez balego, gizarteak, bere osotasunean, gaur egun urritasuna duten pertsonen autonomiaren eta beren eskubideez baliatzearen aldeko joerekin bat datozen beste irtenbide batzuk mahaigaineratu beharko lituzke.

Lantegi Batuak-ek erabiltzaileei eta beren familiei eskaintzen dizkien laguntza eta jarraipen zerbitzuen artean aurreko atalean aipatu berri dugun orientazio eta laguntza zerbitzuaz gain beste hauek nabarmentzen dira:

- **P**restakuntza zerbitzuak
- **P**ertsonen garapenerako zerbitzuak
- **P**rebentzio eta osasun zerbitzua

3.2.2
Egokitze pertsonaleko eta sozialeko zerbitzuak

Egokitze programak lanpostuan bertan gauzatzen diren banakako prestakuntza sistemak dira; lanpostuaren eta pertsonaren arteko egokitze zuzena lortzea eta erabiltzaile bakoitzaren bilakaeraren bidez bere sustapen-aukerak zehaztea dituzte helburu.

Programa hau aurrera eramateko, **Lantegi Batuak**-ek berariazko lanabes bat sortu du, **"Eginkizuna pertsonari egokitzeko profilen metodoa"** deitua. Metodo honen bidez gauzatzen da banakako prestakuntza sistema hau. 1995ean sortu zen metodoa eta bederatzi urtez erabili ondoren, 2004an, bigarren berrikuste bati ekin zitzaion agerian gelditu ziren mugak gainditzen lagunduko zuten hobekuntzak egiteko asmoarekin.

Dagoeneko aipatu dugunez, lanabes honekin pertsonaren 29 aldagai ebaluatzen dira (itxura eta norberaren zainketa, eginkizunak egiten ikastea, ardura, koordinazio manipulatiboa, ...), eta hauei eskerrak, dagokien pisua eman ondoren, pertsona bakoitzaren profila lortzen da. Praktikan urte batean LZan daudenak ebaluatzen dira eta hurrengo urtean EZBan daudenak.

Horrela, 2004an EZBko 522 langile ebaluatu ziren soil-soilik eta 2005ean, berriz, 851; hauetatik %88 lanbidertze-zentrokoak eta %12 EZBkoak.

2005ean ebaluatu ziren LZko 749ak LZko langile kopuru ia osoa izan ziren, 2004an LZBan zeudenen erdiak ebaluatu ziren bitartean.

Egokitze-programen bilakaera. 2001-2005 — 3.8 koadroa

	2001	2002	2003	2004	2005
Ebaluatutakoak, guztira	**680**	**598**	**305**	**522**	**851**
Banaketa, erregimenaren arabera (%)					
Lanbideratze-zentroa	100,0	–	100,0	–	88,0
Enplegu zentro berezia	–	100,0	–	100,0	12,0
Guztira	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**
%, dagokion erregimeneko langile kopuruarekiko	106%	63,2%	42,0%	49,9%	99,7% 8,9%

Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

Lantegi Batuak-ek egiten dituen egokitze-ekintza hauez gain, bere zentroetako erabiltzaileei laguntza emateko estrategiaren barruan baditu urtero egiten dituen beste **egokitze pertsonal eta sozial** batzuk ere. Hala nola:

1 Esku-hartze kognitibo konduktualeko programak:

Behaketa sistematikoaren eta ohizkoak ez diren erregistroen bidez jokabidea aztertzea

Estrategien bidezko parte-hartzea, ikasketaren psikologiatik eta psikologia kognitibotik eratorritako teknikak erabiliz; hau gauzatzeko beharrezkoa da begiraleen, tailer buruen eta langile teknikarien arteko koordinazioa.

2 Erabiltzaileekin lantzen diren helburuak lortzeko lanean familiek parte hartzeko azken hauekin egiten den lana.

3 Beste gizarte eta osasun zerbitzuekin koordinazioa.

4 Zentroa/erabiltzaileak/familia koordinazioa. Parte-hartzea eta komunikazioa.

Jarraipeneko elkarrizketak, banakakoak eta familiekin

Erabiltzaileekin bilerak, zentroan

Familiekin bilerak, zentroan

"**A**teak zabalik" eguna

"**L**an Hotsa" barne-aldizkaria banatzea, iragarki-taulak, iradokizunen postontzia, web orria, intranet, egokitutako intranet, ...

Egokitze pertsonal eta sozialerako ekintzen bilakaera. 2001-2005

3.9 koadroa

	2001	2002	2003	2004	2005	epeko % Δ
Egokitze pertsonal eta sozialerako ekintzak	658	687	692	620	1.218	85,11
Banaketa, ekintzaren arabera (%)						
Banakako esku-hartzeak	29,3	27,5	30,3	33,1	29,2	84,46
Familiako esku-hartzeak	33,4	37,0	40,0	37,1	38,7	114,09
Esku-hartzeak lantegiko nahiz zerbitzuko profesionalekin	18,2	17,9	13,4	19,8	15,2	54,17
Erkidegoko zerbitzuak (Gorabide, adimen-osasuneko zentroa, GUFE, eta abar)	18,5	17,6	16,0	10,0	15,7	56,56
Bestelako esku-hartzeak	0,5	0,0	0,1	0,0	1,2	400,00
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	

Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

Egokitze pertsonal eta sozialerako ekintzen bilakaera. 2001-2005

3.13 grafikoa



Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

Ekintza hauek gorakada nabarmena izan dute 2005. urtean aurreko urteetako kopuruekiko. 2001etik 2004ra 600-700 egokitze-ekintza egiten zen urtean, eta 2005ean, berriz, 1.218 egin dira.

Kasuen %68tan pertsonekin edo beren familiekin zerikusi zuzena duten esku-hartzeak izaten dira. Adibidez, nabarmendu daiteke LZan 286 banakako elkarrizketa egin direla familiekin eta 201 langileekin beraiekin, eta EZBan, berriz, 49 eta 229 elkarrizketa izan dira hurrenez hurren. Ekintza hauetako beste %15 lantegietako profesionalekin egindakoak edo bestelakoak izan dira eta ia beste %16 (191 ekintza) Gorabide, GUFE, adimen-osasuneko zentroa eta abarrekin egindakoak izan dira. Eta honek argi erakusten du urritasuna duten pertsonei parte-hartze osoa emateko eragile eta hizketakide nabarmena dela **Lantegi Batuak** Bizkaiko Lurralde Historikoan.

3.2.3
Prestakuntza-jardueren hedadura

Prestakuntza **pertsonen gaitasun eta trebetasunen eta egin behar dituzten lanen arteko doitze eta egokitzearen bermea da Lantegi Batuak**-en.

Honako hauek daude prestakuntza-zerbitzuen artean:

1 Hasierako ebaluazioa egin ondoren lana pertsonari egokitzeko, banakako sustapen planak finkatzeko, lanpostu jakinetarako hautaketak egiteko, eta abarretarako egiten diren banakako programak. Programa hauetan horrelako gaiak hartzen dira kontuan:

Itxura eta zainketa: jantziak, garbitasuna, janaria, ...
Autonomia eta trebetasun soziala: zerbitzu publikoen erabilera, telefonoa, diruaren erabilera, ordulariaren erabilera, gastuen aurreikuspena, eta abar
Lanarekiko jarrerak: lan egiteko autonomia, eginkizunak betetzea, errepikakortasuna, arreta, antolaketa, segurtasuna, interesa, eta abar
Mugikortasuna Erkidegoan: garraio publikoa erabiltzea
Informazioa prozesatzea: ikuste-eskakizunak, orientazio espaziala, zenbakien ezagutza, hizkuntza adierazgarria eta ulergarria, idazten jakitea, irakurtzea, eta abar
Gaitasun fisikoak: koordinazio dinamikoa, maneiuaren koordinazioa, lantresnak erabiltzea
Segurtasuna eta osasuna: lan-arriskuei aurrea hartzea, osasuna sustatzea, bide-hezkuntza, eta abar.

2 Informazioaren teknologia berrietara sarbidea: Gradior programa, clic programa, intranet egokitua.
3 Pertsona arteko gaitasunak eta gaitasun sozialak lantzeko mintegiak eta taldekako ikastaroak.

Urtero partaide asko dituen jarduera iraunkorra da.

2005ean 1.834 lagunek hartu zuten parte **taldekako prestakuntza-jardueretan**, langile kopuru osoaren %85ek hain zuzen ere.

Adimen-urritasuna eta buru-nahastea dutenei dagokienez, berriz, 1.061ek hartu dute parte, hau da, %74k.

Talde-prestakuntzan egindako lanaren bilakaera. 2002-2005

3.14 grafikoa

Prestakuntza-orduen bilakaera, urritasunaren arabera. 2002-2005



Pertsona bakoitzeko prestakuntza-orduak ratioaren bilakaera. 2002-2005



Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

Talde-prestakuntzan egindako lanaren bilakaera. 2002-2005

3.15 grafikoa

	2002		2003		2004		2005	
	Parte-hartzaileak	Orduak	Parte-hartzaileak	Orduak	Parte-hartzaileak	Orduak	Parte-hartzaileak	Orduak
Adimen-urritasuna eta buru-eritasuna	1.299	6.806	2.287	16.136	1.183	13.933	1.061	16.816
Bestelako urritasunak eta u. gabe	2.851	7.015	989	15.512	657	9.808	773	8.165
Parte-hartzaile bakoitzeko talde-prestakuntza orduen ratioa								
Adimen-urritasuna eta buru-eritasuna	5,24		7,06		11,78		15,85	
Bestelako urritasunak eta u. gabe	2,49		15,68		14,93		10,56	

Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

Parte-hartzaile bakoitzeko prestakuntza orduak ratioa hartzen badugu, **adimen-urritasuna nahiz buru-eritasuna** dutenek **15,85 orduko talde-prestakuntza izan dute batez beste** parte-hartzaile bakoitzeko. Urritasunik ez dutenek nahiz urritasun fisikoa dutenek, berriz, parte-hartzaile bakoitzeko 10,56 orduko batez bestekoa.

3.2.4 Prebentzio eta osasun zerbitzua

Lantegi Batuak bezalako elkarte batean, pertsonen kudeaketa soziala helburu saihestezina duen elkartea izaki, lan-arriskuen prebentzioari buruzko kezka eta osasuna sustatzea funtsezkoak dira.

Arlo hau gauzatzeko bost programa hauek daude:

1 Osasuna zaintzeko programa, jarduera jakinak dituen. Hala nola: osasun-egoera aldizka zaintzea, urtero gripearen aurka txertatzea, bestelako txertoak eta jarduera jakinak.

2 Arriskuak ebaluatzeko programa, arriskuei aurre egiteko eta beren ezaugarri pertsonal eta ahalmen psikofisikoekin bat etorriz erabiltzaileen segurtasuna eta osasuna zaintzeko.

3 Larrialdietako neurrien programa suteen aurkako borrokari buruzko neurriak garatuz, urtero ebakuazio-simulazioak eginez.

4 Istripuetan laguntza emateko programa, lehen sorospenak eta lesioak direnean laguntza ematea, istripu eta ezbeharren azterketa eta prebentzio-neurriak zehaztea barne.

5 Zentroetako ergonomia hobetzeko programa, ERGOHOBE, abian jarri zenetik sei urte jarraian daramatzana. Lanpostuen ergonomia egokitzeko eta traba arkitektonikoak kentzeko programa da.

6 Laguntza-arloarekin koordinazioa osasun-jarduerak nahiz lanpostuetara egokitzeak behar dituzten kasuetan esku-hartzeko eta jarraipena egiteko.

Prebentzio-jardueren artean nabarmentzekoak dira **mediku-azterketak**. 2005ean 1.804 mediku-azterketa egin dira, hau da, **langile kopuru osoaren %83ri** egin zaie. Dena den, portzentaje hau argitu egin behar da.

Alde batetik, benetan langileak direnei, hau da, EZBkoak nahiz urritasunik ez dutenei, 1.160 mediku-azterketa egin zaizkie. Kontuan hartzen badugu 2005ean bi talde hauek 1.414 langilek osatzen zituztela, %82ri egin zitzaion mediku-azterketa. Aurreko urteetako proportzioen oso antzekoa berau, eta Eusko Jaurlaritzak euskal langile-multzoarentzat 2004an egin zuen Lan Baldintzen Inkestak eman zuenaren (%70) oso goitik dagoena.

Baina nabarmentzekoa da 2001etik LZan daudenek ere honetan parte hartzen dutela, nahiz ez den beharrezkoa langile izaerarik ez dutelako. 2005ean egin ziren 1.804 mediku-azterketetatik 644 LZko pertsonei egin zitzaizkien, LZko erabiltzaileen %86ri, hain zuzen ere.

Azkenik azaldu behar da 2004an 2003an baion txikiagoa izan zen **istripu-tasa** 2005ean berriz ere handitu eta 78an kokatu zela. Kopuru hau 2003ko Osalanen txostenak industria-sektoreari buruz emandakoa (101,7) baino txikiagoa da, dena den.

Mediku-azterketen bilakaera. 2001-2005

3.10 koadroa

	2001	2002	2003	2004	2005	epeko % Δ
Mediku-azterketak	1.023	1.062	1.591	1.080	1.804	76,3%
- LZB	897	980	972	1.080	1.160	
% langile kopuru osoarekiko (EZB eta urritasunik gabeak)	83,8%	88,4%	82,7%	82,1%	82,0%	
% EAEko soldatapekoak	71,3%*			70,0%		

*2000 urtea

Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak. Eusko Jaurlaritza, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila. Lan-baldintzei buruzko inkesta. 2000 eta 20004 eta egileak berak landua.

Mediku-azterketen bilakaera. 2001-2005

3.16 grafikoa



Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

3.2.5
Pertsonen gogobetetasunaren balorazioa

Lantegi Batuak-ek urritasuna duten pertsonei erabateko parte-hartzea bermatzeko garatu dituen laguntza eta jarraipen zerbitzuei, etengabeko hobekuntza lortzera zuzenduta dauden zerbitzuei, alegia, buruzko atal honetan **Lantegi Batuak**-ek berak bere ekimenez 2004an elkartea osatzen dutenek elkartearekiko zuten gogobetetasunari buruz egin zuen azterketaren emaitzei tarte bat egin behar zaie. 2000. urtean egin zen beste azterketa baten eguneratzea izan zen hau.

Cogobetetasun-azterketa **zazpi ikuspegi desberdinetatik** egiten da, eta ikuspegi bakoitza galdera gai kopuru jankin baten bitartez gauzatzen da. Gai hauek garrantziaren arabera ("bat ere ez"-etik "asko"-ra) eta gogobetetasunaren arabera ("bat ere ez"-etik "asko"-ra) baloratzeko eskatzen zen.

Cogobetetasunarekin zerikusia duten zazpi ikuspegiak hauek dira:

1 Emoziozko-harremanezko ikuspegia:

Cizabanakoaren eta bere nagusiaren arteko harremanari (informazioa, iritziaren balorazioa, arazoetan laguntza, nola sentitzen den lanpostuan, eta abar) eta harreman horren giroari (konfiantza, harrera, ...) buruzkoa da batez ere.

2 Garapenaren ikuspegia:

Ikuspegi honetan lanaren beraren helburuei, begiraleekiko harremanei, zalantzei, hobetzeko aukerei, aurrera egiteko aukerei, enpresa arruntetan txertatzeari eta abarri buruzkoak dira kezka nagusiak.

3 Cizarte-harremanen ikuspegia:

Auzoko nahiz herriko beste jardueretan parte hartzeko, beste harremanak egiteko, lagunekin gustura egiteko **Lantegi Batuak**-en lan egiteak duen eragina neurtzea du helburu.

4 Baldintza ekonomikoen ikuspegia:

Ordainsariaren balorazioa: sailkapen profesionala, egiten den lanarekiko egokitasuna, eta abar, dena ala dena ikuspegi kualitatibo batetik.

5 Baldintza ez-ekonomikoen ikuspegia:

Jantziak eta janaria, ahalegina eta ergonomia (ordutegia, atsedenaldiak, giroa, erabiltzen diren lantresnak nahiz makinak) bezalakoak baloratzeak ikuspegi hau garatzeko balio du.

6 Politika eta estrategiaren ikuspegia:

Ikuspegi hau elkarteko kide izatearen kontzientziarekin, produktibitatearen eskakizunak eta pertsonen interesak bizitzeko moduarekin eta abarrekin erlazionaturik dago. Egiten diren galderen artean **Lantegi Batuak**-en helburuak zein diren ezagutzen ote den, gauzak egunetik egunera hobetzeak merezi duen eta abar daude.

7 Cidaritzaren ikuspegia:

Ikuspegi honek buruzagien jarduerek, jarrerek eta parte-hartze pertsonalak egokiak ote diren jakitea du helburu, eta horretarako erabiltzaileei elkartearen arduradunekin zerikusia duten kontuetan beren gogobetetasun-maila zein den adierazteko eskatzen zaie.

Kontua ez da hemen inkesta hauen ondorioz egin zen azterketa luzea berriz ere jartzea, baizik eta lortu ziren emaitzarik garrantzitsuenak eta **Lantegi Batuak**-ekiko dagoen gogobetetasunaren egoera adierazten duten emaitzak azpimarratzea.

Lehenik eta behin, txostenak **parte-hartze handia** azpimarratzen du lehenengo gertaera positibo bezala. Hasieran 700 lagunek erantzun zuten beren borondatez, eta gogorarazteko egindako telefono deien ondoren 900 lagunen erantzunak jaso ziren; honek lagin-akats txikia egozten die datuei. Bigarrenik, zuzendaritzaren eta enpresa batzordearen parte-hartzea ere oso kontu positibo bezala nabarmentzen du; hauek era aktiboan hartu dute parte prozesu osoan, prozesuari balio eta egiazkotasun handia emanaz.

Lantegi Batuak-eko pertsonen gogobetetasuna. Batez bestekoa. 2004

3.11 koadroa

	Adimen urritasuna dutenak	Adimen urritasunik ez dutenak
Emozioen ikuspegia	2,90	2.85
Garapenaren ikuspegia	2,99	2,70
Gizarte-harremanen ikuspegia	3,15	2,70
Baldintza ekonomikoak	kualitatiboa	2,58
Baldintza ez-ekonomikoak		
Jantziak eta janaria	2,97	
Ahalegina - ergonomia	3,08	
Instalazioak		2,68
Familia-bizitza eta gizarte-bizitza		2,81
Segurtasuna		2,97
Lanpostura egokitzapena		2,84
Politika eta estrategia	3,1	2,93
Gidaritza	3,2	3,15
Familien balorazioa	3,0	

Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Lantegi Batuak-eko pertsonen gogobetetasun-inkesta 2004 eta egileak berak landua.

Lehenago aipatu ditugun ikuspegi bakoitzarentzat honako datu hauek eman dira: batez besteko puntuazio itxuran ikuspegi bakoitzarentzat lortutako gogobetetasun-indizea 1 eta 4 bitarteko eskalan ("batere gogobetetasunik ez"-etik, oso "gogobetea"-raino).

Adimen-urritasuna dutenei dagokienez, esan behar da **emaitzarik gehienak** "nahiko gogobetea"-ren baliokidea den eskalako **3 balioaren** inguruan daudela ikuspegiaren alderdi guztietan (emoziozkoan, garapenean, gizarte-harremanetan, baldintza ez-ekonomikoetan, gidaritzan eta abarretan).

Bai urritasuna duten pertsonek eta bai familiek ere duten hautematea da hau.

Adimen-ezintasunik ez duten urritasuna duten pertsonek zein inolako urritasunik ez dutenek emandako emaitzetan **puntuazioak** adimen-urritasuna zutenenaren **azpitik** daude, nahiz eta 3tik gertuago (nahiko gogobetea) mantentzen diren balio hauek 2tik (pixka bat gogobetea) baino.

Batez besteko **puntuaziorik baxuena** lortu duen ikuspegia **baldintza ekonomikoei** dagokiena da (2,58), eskalan 2aren (pixka bat gogobetea) eta 3aren (nahiko gogobetea) arean kokatuko litzatekeena. Honen gainetik daude **instalazioen balorazioa** (2,68), **garapenaren ikuspegia** (2,70) eta **gizarte-harremanak** (2,70).

Hautemate positibo hauek azterketaren txosten orokorrean ere jasotzen dira, eta ondorio nagusi bezala ***gogobetetasun-indize altua*** nabarmentzen du. Egindako inkesta kuantitatiboaren ondorioa da hau eta berari esker **Lantegi Batuak** elkarte engaiatua eta urritasunaren alde esku-hartzean erreferentea dela baiezta dezakegu.

Ondorio bezala zera zehazten du txostenak:

Lantegi **Batuak**-eko kideek emoziozko eta harremanezko ikuspegian agertu zuten gogobetetasun handiena
Aurreko azterketarekiko ongi egindako lanaren aitorpenaren eta nagusiekiko komunikazioaren gogobetetasuna hobetu egin da
Prestakuntza ongi baloratu den ikuspegia izan da
Enpleguaren egonkortasuna eta pertsona lanpostura egokitzea alderdi positibo bezala azpimarratu dira.

Familientzat oso garrantzitsua da garapen pertsonal eta profesionaleko (sustapena) aukeren itxaropena mantentzea. Alderdi honek etorkizunari begira lan-aukerei dagokionez ardura ematen dio **Lantegi Batuak**-i. Lan-aukera hauek sortzera beste gizarte eta ekonomia eragile batzuk ere deituak izan dira, batez ere Bizkaikoak.

Lantegi Batuak-eko pertsonen gogobetetasun-indizea. Batez bestekoa

3.17 grafikoa



Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa. Hainbat urtetako memoriak eta egileak berak landua.

Jardueraren *azterketa eta eragin ekonomikoa*

4 Jardueraren azterketa eta eragin ekonomikoa

Lantegi Batuak Bizkaiko ekonomiari ekarpen garrantzitsua egiten dion erakundea da.

Ekarpen honen alderdi zuzenetako batzuk dira 1.500 lagun baino gehiagori lana ematea eta, lanpostu hauen bidez, hainbat enpresa eta erakunderi ematen zaizkion produkzioa eta zerbitzuak.

Lantegi Batuak-en etengabeko hazkundearen ondorioz elkarteak bere instalazioetan eta ekoizpen-prozesuetan egiten dituen inbestimenduekiko politika aktiboa du.

Nabarmentzekoa da, baita ere, **Lantegi Batuak**-ek orain arte erakundearen itzultze-kontu ofizialean sartu ez diren hainbat ekarpen egiten duela. Ekarpen hauek lau esparruri dagozkie:

Enplegua
Osasun-sisteman egiten den aurreztea
Politika pasiboetan egiten den aurreztea (pentsioak)
Lantegi Batuak-eko urritasuna duten pertsonen familiak berak.

Sarrera

4.1

Dagoeneko argi geratu da **Lantegi Batuak** dela **Bizkaiko ekimenik handiena** urritasuna duten pertsonen lan-aukerei dagokienez. **Lantegi Batuak**-en ustetan enplegua da gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko lanabesik onena eta ahalik eta lan-aukera normalizatuenak sortuz gauzatzen da.

Eta honek fundazioaren urteetako ibilbidean 6 negozio-unitate, 17 lantegi eta 9 zerbitzu sortzea ekarri du. Negozio-unitate, lantegi eta zerbitzu hauek, enpresa-egitura orok bezala, merkatuan irauteko eta merkatuko eskariari egokitzeko bokazioa dute.

Horregatik zerbitzuak eskaintzeko orduan **enpresa-irizpidea** erabili behar da –urritasuna duten pertsonen garapen pertsonala ahaztu gabe, noski–, eta helburuek honako hauek izan behar dute: salmenta eta fakturazioa, enplegua, kalitatea, efikazia eta eraginkortasuna, lehiakortasuna, ...

Hain zuzen ere, hor daude enpresa-irizpideekin egindako kudeaketara behartzen duten kopuruak: aipatutako lantegi eta negozio-unitateez gain **Lantegi Batuak**-en 2.000 langile baino gehiago daude, ia 1.900 urritasuna duten pertsona, azken urtean fakturazioa 38 milioi eurokoa baino handiagoa izan da, ekindako urteko inbestimenduak 1,5 milioi euro ingurukoak, ...

Laburbilduz, kopuru hauek argi ematen dute aditzera **Lantegi Batuak**-ek gaur egun duen proiektuaren tamaina eta begien bistakoa da erakunde honek Bizkaiko ekonomian duen papera.

Kapitulu honetan, beraz, Bizkaiko ekonomia orokorrari ekarpen garrantzitsua egiten dion erakunde ekonomiko bezala aurkeztu eta neurtu nahi da **Lantegi Batuak**.

Bizkaiko jarduera ekonomikoari egiten dion ekarpena 4.2

Lantegi Batuak-en jarduera ekonomikoa izaera **industriala** duten jarduerek osatzen dute nagusiki. 2004an **industria-alorraren izan zen balio erantsi osoaren %79 eta zerbitzu-alorrarena gainerako %21a**.

Ikuspegi honekin jarraituz, datu hauek Bizkaiko eta EAEko ekonomia orokorreko balio erantsiaren banaketarekin alderatzen baditugu, **Lantegi Batuak**-ek industria-jarduerarekiko mendekotasun handiagoa duela ikusiko dugu.

Lantegi Batuak-eko balio erantsi gordina ez da Bizkaiko ekonomia orokorraren balio erantsi osoaren %0,15era heltzen, nahiz eta **Lantegi Batuak**-ek Bizkaiko ekonomi orokorrean duen pisua azken aldian handitu egin den.

Ildo beretik jarraituz zera ikusiko dugu, alegia, **Lantegi Batuak**-eko balio erantsiaren urteko gehikuntza Bizkaia osokoa baino nabarmen handiagoa izan dela aztertzen ari garen epean.

Balio erantsi gordinaren banaketa: Lantegi Batuak vs. EAE — 4.1 koadroa

	EAE 2004	Bizkaia 2004	Lantegi Batuak Balio erantsia 2004
Nekazaritza eta arrantza	1%	1%	–
Industria	29%	25%	79%
Eraikuntza	9%	9%	–
Zerbitzuak	61%	65%	21%
GUZTIRA	100%	100%	100%

Iturria: Urteko kontuak 2004 Eustat, Lantegi Batuak Fundazioa. Egileak berak landua.

Balio erantsi gordinaren bilakaera: Lantegi Batuak vs. Bizkaia

4.2 koadroa

Milaka eurotan

	1999	2000	2001	2002	2003	2004
BEG Bizkaia	17.574.361	18.927.244	20.084.755	21.241.949	22.649.942	24.327.998
BEG Lantegi Batuak	17.883	22.316	27.102	27.189	29.473	33.130
BEGren urteko gehikuntza Bizkaia	8,1%	7,7%	6,1%	5,8%	6,6%	7,4%
BEGren urteko gehikuntza Lantegi Batuak	37,4%	24,8%	21,4%	0,3%	8,4%	12,4%
LB/Bizkaia (%)	0,10%	0,12%	0,13%	0,13%	0,13%	0,14%

Datuak xehetasun handiagoz begiratuta, **Lantegi Batuak**-ek Bizkaiko industria-jarduera orokorraren zati bezala nahiko pisu txikia du, adibidez, balio erantsi gordinari (%0,3), pertsonal-kostuari (%0,4), ekoizpenaren soberakin garbiari (%0,1) eta egindako inbertsioari (0,2%) dagokienez; denak ala denak 1998-2003 epeko datuak dira.

Hala eta guztiz ere, 1998-2003 epean adierazle hauek izan duten bilakaerari erreparatuta **Lantegi Batuak**-ek Bizkaiko industria-jarduerak bere osotasunean hartuta izan dituen gehikuntzak gainditu egin dituela ikusiko dugu.

Eta diferentzia hau nabarmenagoa izan da ekoizpenaren soberakin garbiari (alorrak %16 vs. **Lantegi Batuak**-ek %146) eta egindako inbestimenduari (alorrak %71 vs. **Lantegi Batuak**-ek 449%) dagokienez.

Lanpostu kopuruaren bilakaera ere hobea izan da **Lantegi Batuak**-en kasuan (%23, Bizkaiko industriaren %16ren aurrean). Eta esan daiteke antzekoa gertatu dela pertsonal-kostuekin ere (%89 **Lantegi Batuak**-ek vs. %25 Bizkaiko industria-taldea).

Lantegi Batuak Bizkaiko industria-jardueraren zati bezala

4.2 koadroa bis

milaka eurotan

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	Bilakaera
Bizkaiko industria osoa							
• Langileak (kopurua)	90.492	94.888	98.969	102.201	103.749	104.619	15,6%
• Egindako lan-orduak (milaka)	155.307	162.214	167.578	173.987	174.749	175.852	13,2%
• Balio erantsi gordina faktore kostuetan	4.459.474	4.761.645	5.204.674	5.316.234	5.371.448	5.561.854	24,7%
• Pertsonal-kostuak	2.563.539	2.645.691	2.745.932	2.945.430	3.108.386	3.273.633	27,7%
- Soldatak eta soldata gordinak	1.932.320	2.058.406	2.120.320	2.284.094	2.412.264	2.541.138	31,5%
- Gizarte-kotizazioak	631.219	587.285	625.612	661.336	696.122	732.495	16,0%
• Ekoizpenaren soberakin gordina	1.895.935	2.115.953	2.458.742	2.370.804	2.263.062	2.288.221	20,7%
• Amortizazioetarako zuzkidurak	656.474	723.979	814.185	788.434	833.986	853.360	30,0%
• Ekoizpenaren soberakin garbia	1.239.461	1.391.974	1.644.557	1.582.370	1.429.076	1.434.861	15,8%
• Egindako inbertsioa	797.958	1.034.877	1.179.007	1.319.163	1.459.249	1.364.705	71,0%
Lantegi Batuak							
• Langileak (kopurua)	1.265	1.381	1551	1698	1834	1904	23%
• Balio erantsi gordina faktore-kostuetan	11.236	12.964	15.215	18.608	20.236	22.030	96%
• Pertsonal-kostuak	7.958	9.047	10.269	12.157	13.718	15.074	89%
• Ekoizpenaren soberakin garbia	934	1.132	1.571	2.369	2.268	2.295	146%
• Egindako inbertsioa	889	2.122	2.586	1.965	2.325	4.880	449%
Lantegi Batuak / Bizkaiko osoa							
• Langileak (kopurua)	1,4%	1,5%	1,6%	1,7%	1,8%	1,8%	1,2%
• Balio erantsi gordina faktore-kostuetan	0,3%	0,3%	0,3%	0,4%	0,4%	0,4%	0,3%
• Pertsonal-kostuak	0,3%	0,3%	0,4%	0,4%	0,4%	0,5%	0,4%
• Ekoizpenaren soberakin garbia	0,0%	0,1%	0,1%	0,1%	0,1%	0,1%	0,1%
• Egindako inbertsioa	0,1%	0,2%	0,2%	0,1%	0,2%	0,4%	0,2%

Iturria: Industria-kontuak, Eustat, Lantegi Batuak Fundazioa. Egileak berak landua.
"Balio erantsi gordina" Lantegi Batuak-eko galera eta irabazien kontuko marjina gordinari dagokio. "Ekoizpenaren soberakin gar bia" ustiapeneko emaitzari dagokio.
Lantegi Batuak-eko zenbatekoak Fundazio osoarenak dira, zerbitzu-alorra barne.

Jarduera ekonomikoan, hala industria-alorrean nola zerbitzu-alorrean, geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari da azpikontratazioa.

Azpikontratazioa, orokorrean, oso presente dago gure ingurune hurbilean. EAEko zifrek erakusten digute nola enpleguaren %30 eta industria-jarduera osoaren fakturazioaren %23 enpresa azpikontratistetakoak diren.

Azpikontratazioaren presentzia EAEko ekonomian, 2001

4.3 koadroa

Azalpena	EAE	
	Azpikontratazioa	%/Industria
Enpresa kopurua	4.173	27,6%
Enplegua	67.612	31,1%
Fakturazioa (milioika eurotan)	7.689	23,4%

Iturria: EAEko industria-azpikontratazioa, Hego Euskal Herriko Aurrezki-Kutxen Federazioa, euskal merkataritza-ganberak.

Azpikontratazioa definitzeko esan daiteke produkzioaren zati bat hirugarren bati ematea dela; eta dinamika honetan azkeneko bezeroari fakturatzen dion enpresa ez da enpresa azpikontratista, baizik eta hau kontratatu zuena. Hau horrela da industria-ekoizpen nahiz uki daitezkeen gaiekin. Zerbitzuen kasuan, berriz, azpikontratazioa enpresa barruko lan batzuk egiteko kanpoko enpresa bateko zerbitzuak erabiltzea izaten da gehienetan. Sarri ikusten diren azpikontratazio mota honen adibide batzuk dira garbiketa, lorezaintza, telemarketina, eta abar.

Azpikontratazioak eskaintzen dituen abantailetako bat zera da: enpresaren kostuak eskulanaren kostu finkoekin zamatu gabe produkzio-helburuak lortzeko gaitasuna ematen duela. Enpresaren egitura ekonomikoaren malgutasun honek errentagarria eta arrakastatsua izaten laguntzen dio; eta hauek gaur egungo ekonomia aldakor eta oso lehiakorrean lortzeko geroz eta zailagoak diren helburuak dira.

Bizkaiko esparruan azpikontratazioen bidez lortutako malgutasunak enpresei beren eragiketak Bizkaian bertan egiten jarraitzeko aukera ere ematen die, eskulana merkeagoa den beste herri batzuetara eraman gabe. **Lantegi Batuak**-ek eskaintzen dituen zerbitzuek ezin dute, noski, gertatzen ari den enpresen deslokalizazioa geldiarazi, baina era garrantzitsuan laguntzen dute Bizkaiko enpresa-sarea mantentzen eta Bizkaiko enpresen lehiakortasunari zuzenean laguntzen diote horrela.

Lantegi Batuak arrazoi askorengatik da erakunde berezia. Besteak beste funtsean bere jardueren %100 azpikontratatutako jarduerak direlako. –hala zerbitzu-alorrean nola industria-alorrean.

Lantegi Batuak-ek Bizkaiko azpikontratazio-jarduera multzoan duen papera neurtzeko ariketa batean bere jarduerak bi taldetan banatuta hartuko ditugu: industria-jarduerak eta zerbitzu-jarduerak. Hurrengo tauletan agertuko denez, **Lantegi Batuak**-ek Bizkaiko azpikontratazioari egindako ekarpena handiagoa da enpleguari dagokionez fakturazioari dagokionez baino. Ondorio hau baliozkoa da bi jarduera motentzat.

Lantegi Batuak Bizkaiko industri-azpikontratazio osoaren zati bezala: Fakturazioa eta lanpostuak

4.4 koadroa

Azalpena	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2000-2005 bilakaera
Bizkaiko azpikontratazioaren **fakturazioa** (milaka €)	4.371.461	3.498.347	3.585.103	3.721.739	3.987.442	4.162.890	+19%
LB-en industria-jardueraren **fakturazioa** (milaka €)	18.147	22.114	20.283	22.876	26.040	29.899	+35%
LB/Bizkaiko azpikontratazio osoa **fakturazioa** (%)	0,42%	0,63%	0,57%	0,61%	0,65%	0,72%	—
Bizkaiko azpikontratazioaren **enplegua** (milaka €)	30.779	28.413	28.843	29.085	29.029	29.258	+3%
LB-en industria-jardueraren **enplegua** (milaka €) (EZB soilik)	428	475	476	505	556	618	+30%
LB/Bizkaiko azpikontratazio osoa **enplegua** (%)	1,4%	1,7%	1,7%	1,7%	1,9%	2,1%	–

Iturria: EUSTAT, Industria-kontuak, industri produkzioaren indizea; Lantegi Batuak, Egileak berak landua.

Lantegi Batuak Bizkaiko zerbitzu*-azpikontratazio osoaren zati bezala: Fakturazioa eta lanpostuak

4.5 koadroa

Azalpena	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2000-2005 bilakaera
Bizkaiko azpikontratazioaren **fakturazioa** (milaka €)	387.441	480.421	600.876	757.679	962.664	1.013.666	+162%
LB-en industria-jardueraren **fakturazioa** (milaka €)	4.169	4.988	5.831	6.597	7.090	8.053	+61%
LB/Bizkaiko azpikontratazio osoa **fakturazioa** (%)	1,08%	1,04%	0,97%	0,87%	0,74%	0,79%	—
Bizkaiko azpikontratazioaren **enplegua** (milaka €)	11.352	12.052	12.797	13.588	14.429	14.543	+28%
LB-en industria-jardueraren **enplegua** (milaka €) (EZB soilik)	311	373	456	438	474	511	+64%
LB/Bizkaiko azpikontratazio osoa **enplegua** (%)	2,74%	3,09%	3,56%	3,22%	3,29%	3,51%	—

*Kontuan hartu diren zerbitzuak EIES 747 garbiketa industriala, eta EIES 7484 bestelako enpresa-jarduerak dira.
Iturria: EUSTAT, Industria-kontuak, industri produkzioaren indizea; Lantegi Batuak, Egileak berak landua.

Egoera honen azalpen bat zera izan daiteke, **Lantegi Batuak**-ek, bere ezaugarriengatik, zeregin batzuk egiteko urritasuna duten pertsonik gabeko enpresa batek beharko lituzkeen baino langile gehiago behar dituela (gainbegiratze-lanetan langile gehiago eta ahalmen murritzagoa duten langile gehiago, adibidez).

Zerbitzuetako jardueretan bereziki nabarmena da **Lantegi Batuak**-ek Bizkaiko jarduera osoaren zati bezala enpleguari eta fakturazioari buruz emandako portzentajeen arteko desberdintasuna. Hau bat dator **Lantegi Batuak**-ek zerbitzu-jardueretan behar diren laguntzako langileen ratioa industria-jardueretan behar duen baino handiagoa izatearekin, eta enpresa "arrunt" batek egingo duen lan bera egiteko behar diren urritasuna duten pertsona kopurua ere handiagoa da. Era berean, **Lantegi Batuak**-eko zerbitzu-jarduerak ez daude oraindik industria-alorrekoak bezain finkatuta orokorrean eta horregatik ematen dute hazten ari den fakturazio maila.

4.3 Lantegi Batuak-en barne-kudeaketa

4.3.1 Portaera ekonomiko-finantzarioa

Urritasuna duten pertsonak erabat gizarteratzea lortzeko hauentzat lan-aukerak sortzeari dagokionez **Lantegi Batuak**-ek azken urteotan izan duen bilakaera ikusgarria izanda, eta Alderdi ekonomikoari dagokionez errealitatea ez da oso desberdina izan.

Izan ere, horrela erakusten dute **1998tik 2004**rako epeko adierazle nagusienetako batzuk:

Negozio-zifraren zenbateko garbia %154 hazi zen
Ustiapeneko emaitza %140 hazi zen, beti ere diru-sarreren %5 eta %7 bitartean mantenduz
Ekitaldiko emaitza garbia %72 hazi zen, urtero diru-sarreren %6 eta %9 bitartean
Laneko kapitala %200 hazi da
Kaudimen-ratioa oso altua da (3,2)

Zorpetze-maila, 1998rako txikia zena (%42) murriztuz joan da 2004an %25 izan arte

Inbertsioen balioa %360 baino gehiago hazi da 1998-2005 bitartean, 0,9 milioi €-tik 4,1 milioi €-ra igaroz eta, metatuz, 22 milioitako kopurua gaindituz

Lantegi Batuak-ek 1998-2003 bitartean egindako **inbertsioaren** bilakaera Bizkaiko industriaren bilakaera baino askoz ere hobea izan zen (%450 vs. %71)

Ustiapeneko diru-laguntzek ustiapeneko diru-sarrera osoarekiko duten pisua murriztu egin da, 1998ko %25etik 2004ko %19ra jaitsiz.

Inbestimenduen bilakaera: Lantegi Batuak vs. Bizkaiko industria osoa. 1998-2003

4.6 koadroa

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Urteko inbertsioa gordina (Eurotan)	889	2.122	2.586	1.965	2.325	4.880	3.134	4.102
Bizkaiko industria inbertsioa (milaka euro)	797.958	1.034.877	1.179.007	1.319.163	1.459.249	1.364.705	N/D	N/D
Lantegi Batuak Bizkaia osoko % bezala	0,1%	0,2%	0,2%	0,1%	0,2%	0,4%	N/D	N/D

Iturria: Eustat, Lantegi Batuak Fundazioa. Egileak berak landua.

Inbertsioei buruz nabarmentzekoa da higiezinetan inbestitzea sustatzeko (adibidez instalazioetan eta makinerian) enpleguaren institutu nazionalak enplegua sortzeagatik ematen duen diru-laguntzak baldintza bat du, higiezin produktibo berria erosteko erabili behar dela, alegia.

Azkenik, ondorio bezala esan dezakegu **Lantegi Batuak Fundazioak** oso **balantze saneatua** duela, **Lantegi Batuak**-i urritasuna duten pertsonentzat lan-aukerak sortzerakoan elementu bultzatzailea izaten jarraitzeko aukera ematen diona eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak dituena.

4.3.2 Diru-laguntzak

Lantegi Batuak-en irabazietan duten garrantziarengatik aipamen berezia merezi dute diru-laguntzek.

Lantegi Batuak-en jardueren izaera eta bertan lan egiten dutenen ezaugarriak direla eta, ez da harritzekoa elkarteak herri administrazioengandik diru-laguntza handiak jasotzea. Ernst & Young enpresak egindako ikuskaritza-txostenean agertzen den bezala: *"enpresaren jarraipena beharrezko diru-laguntzak era iraunkorrean jasotzearen baitan edo, bestela, laguntza instituzional berriak lortzearen baitan dago"*.

Hala eta guztiz ere, aurreko atalean adierazi denez, garrantzitsua da 1998-2004 epean **Lantegi Batuak**-ek **bere autonomia-maila nabarmen handitu** duela, eta honekin ustiapeneko diru-laguntzek ustiapen diru-sarrera osoen zati bezala duten pisua nabarmen jaitsi da eta 1998an %25 izatetik 2004an %19 izatera iritsi da.

Nabarmendu beharreko beste kontu bat zera da: **diru-laguntzarik gehienak diru-laguntza operatiboak edo ustiapeneko diru-laguntzak direla**. Zehazki esateko 2001-2005 urteetan jasotako diru-laguntza guztien %91 izan dira hauek batez beste. Kapital-laguntzak izan dira gainerako %9a.

Ustiapeneko diru-laguntzarik garrantzitsuenetako bat **EIN-en diru-laguntza** da. Honek soldatapeko urritasuna duten pertsonen LCSren %50 ordaintzen du. Diru-laguntza hau ustiapeneko diru-sarrera guztien %7 izan azen.

Ustiapeneko beste diru-laguntza bat **Bizkaiko Foru Aldundiak** lanbide zentroko (LZ) lekuak mantentzeko ematen duena da. **Lantegi Batuak**-ek beti jaso du foru laguntza hau, eta ustiapeneko diru-sarreren zati handia da dagoeneko (2002-2005ean **%9**).

EINk lan-postuak sortzeko ematen duen diru laguntza *Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen* ondorioz urteroko diru-laguntza izateari utzi eta prozedura garbiago batekin ematera pasa da.

Diru-laguntza garrantzitsuenen ezaugarriak

4.7 koadroa

Izena edo diru-laguntza mota	Babeslea	Baldintzak	Aldizkakotasuna
Inbertsioarentzat kapital-laguntzak	EIN	Enpleguaren sorrerarekin lotua eta higiezinetan inbestitzera bideratua	Deialdia
Lanbidearteko gutxieneko soldataren (LGS) %50%	EIN	LGXren %50 urritasuna duen soldatapeko bakoitzeko	Hileroko likidazioa
LZko lekuak mantentzeko	Bizkaiko Foru Aldundia	Hitzarmenean jasotako lanpostuei arreta	Urtean behin
Errendmendu baxuko EZBko lanpostuak mantentzeko	Bizkaiko Foru Aldundia	Hitzarmenean jasotako lanpostuei arreta	Urtean behin
Ustiapeneko diru-laguntza ofiziala	Eusko Jaurlaritza	Kontratu mugagabeetara igarotzeagatik	Kontratuz
Ustiapeneko diru-laguntza ofiziala	Udalak	Garraioa	Urtean behin
7. ardatza azpiprograma	Eusko Jaurlaritza eta Europako Gizarte-Funtsa	Lan-munduan sartzeko programa	Urtean behin

Iturria: Lantegi Batuak. Egileak berak landua.

4.3.3 Kudeaketa-eredua

Lantegi Batuak-ek enpresa bezala bere buruarentzat ezarri duen Eginkizunean elkartea irabazteko asmorik gabekoa dela eta emaitzak bere helburuak lortzeko berriro inbestituko dituela jasotzen da. **Lantegi Batuak**-ek duen forma juridikoak, Fundazioak, ere emaitzen gutxienez %70 fundazioaren helburu sozialean inbestitzeko beharra bultzatzen laguntzen du.

Hori lortzeko bere kudeaketa etikoa, solidarioa, parte-hartzailea, dinamikoa eta eraginkorra da eta etengabe ari da bere taldearen, bezeroen eta, orokorrean, gizartearen laneko egonkortasuna eta gogobetetasuna lortzeko lanean.

Jarraian **Lantegi Batuak**-ek kudeaketan bikaintasuna bilatzen duen erakundea den aldetik dituen alderdi nabarmenenak azpimarratuko dira:

Dagoeneko joan da denbora **Lantegi Batuak gogoeta estrategikoa** egiten hasi zenetik. Gogoeta estrategiko hau hiru urtera begira egiten da eta elkarteko bertako lagun ugarik hartzen du parte bertan (azken planean –2006/2008– 65 bat lagunek hartu zuten parte)

Lantegi **Batuak**-ek era jarraian neurtzen ditu lortutako emaitzak, kudeaketa-adierazleen bidez. Gutxi gorabehera 60 dira **kudeaketa-adierazleak** eta hauen bitartez fundazioaren alderdi ekonomiko eta produktibo nagusienen kontrola eta jarraipena egiten da

Barne-kudeaketa honez gain, zuzendaritzak beti uste izan du lehentasunezkoa zela kudeaketa ekonomiko-finantzarioa sendoa ez ezik gardena ere izatea. Horregatik fundazioaren **kontu ekonomikoak** urtero **ikuskatzen** dira (azken ikuskatzea Ernst & Young enpresak egina)

Hala langileen nola bezeroen **gogobetetasuna** da fundazioaren kudeatzaileak kezkatzen dituen beste ikuspegietako bat, eta arreta berezia ematen zaio aspaldian

Azkenik, nabarmendu azken urteetan asko izan direla **Lantegi Batuak**-i eman zaizkion **esker onak**, hala gizarte-arloan nola enpresa-arloan. Honen ildotik aipatu daiteke **Lantegi Batuak** babestutako enpleguaren inguruan kalitatearen kudeaketa-sistemaren ziurtagiria lortzen lehenengo enpresetako bat izan zela estatu mailan, lehenengo lantegia 1995ean ziurtatu zuen eta egun 13 dira egiaztatutako zentroak.

Lantegi Batuak-eko kudeaketarako erabilitako adierazle nagusien aukeraketa

• Gaitasuna/benetako presentzia	• Lanean ari direnen kopuruaren aldaketa
• Faktura daitezkeen orduan (bezeroari egozgarria)	• Urritasuna dutenak/lantalde osoa %
• Lanbideratze erregimenean dagoen lagun kopurua	• Istripu kopuru osoa/arriskua izan dezakeen pertsona kopurua (%)
• Enplegu erregimen berezian dagoen langile-kopurua	• Adimen-urritasuna dutenak/langile kopuru osoa (%)
• Urtean ireki diren prebentziozko jarduera kopurua	• Adimen-urritasuna dutenen artean izandako iragaiteak eta sustapenak
• Taldekako prestakuntzako jardueretara bertaratze-ordu kopurua	• Onartutako inbestimenduak
• Balio erantsia	• Balio erantsia/pertsonal-gastuak (%)
• Balio erantsia/ lanordu produktiboak (%)	• Onartutako eskaintza komertzialak/ egindakoak (%)
• Biltegiaren errotazioa	• Errentagarritasun ekonomikoa (emaitza/aktiboa) (%)
• Batez besteko kobratze epea	• Bezeroaren gogobetetze-indizea
• Bezeroek egindako itzultzeak (Erreklamazio kopurua/guztira emandakoak)	• Entregen batez besteko desbiderapena

Iturria: Lantegi Batuak, egileak berak landua.

Eragin ekonomikoa

4.4

Kapitulu honen barruan, azkenik, **Lantegi Batuak**-en jardueraren azterketa sakonduko dugu ikuspegi ekonomikotik, gizarteko hainbat esparrutatik bere jardueraz egin ohi den azterketa soilik soziala alde batera utzita.

Caur egun **Lantegi Batuak**, urritasuna duten pertsonentzat lan-aukerak sortzen dituen ingurune eredugarria, ez izateak Bizkaiko gizartearentzat izango lukeen eragina neurtzeko aukera eman behar digu azterketa honek.

Honetarako, lau ikuspuntutik ekin zaio ekerketari:

Lana (enplegua)
Osasuna (osasun gastuetan aurreztea)
Gizartea ((Zergarik ordaintzen ez duten pentsioetan aurreztea)
Familia (zaintzaile ez formalen gastuan aurreztea)

4.4.1
Enplegua

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean (NBE, 1948, 23. art.), Espainiako Konstituzioan (1978, 35. art) eta Langileen Estatutuan (martxoaren 24ko 1/1995 Errege Dekretua) lana oinarrizko eskubide bat dela jasotzen da.

Enpleguaren bidez pertsonek, izan urritasuna duten pertsonak edo ez, diru-sarrera bat lortzeaz gain gizarteratzea lortzen dute.

Lantegi Batuak urritasuna duten pertsonentzat lan-aukerak sortzen jarduten den erakundea da, batez ere adimen-urritasuna dutenak eta Bizkaian bizi direnak badira, eta haiek gizarteratzea eta lan-munduan sartzea hobetzeko funtsezko lana egiten du.

Eta, honi buruz esan **Lantegi Batuak** bere helburu nagusia betetzen ari dela, izan ere, elkarteak eskainitako lanpostu kopurua azken urteetan era iraunkorrean hazi da. Horrela 2000. urtean fundazioak zuen lanpostu kopurua 1.551 zen, eta 2005. urtean kopuru hori 2.161 izatera iritsi zen. Hau da, 610 lanpostu gehiago (%39).

Bizkaian 1998tik 2004ra bitarteko epean enpleguaren bilakaera nabarmen handiagoa izan da **Lantegi Batuak**-entzat (%32 Lurralde Historikoan lortutako %10 beharrean).

Lanpostuen gehikuntzak bereziki garrantzitsuak izan dira urte jakinetan. Adibidez, 2001ean **Lantegi Batuak**-en gehikuntza Bizkaian izan zen gehikuntza osoaren %12 baino gehiago izan zen.

Enpleguaren bilakaera: Lantegi Batuak vs. Bizkaia osokoa. 2000-2004

4.8 koadroa

	2000	2001	2002	2003	2004	Evolucion
Enplegua Lantegi Batuak-en	1.551	1.698	1.834	1.904	2.048	32%
Enplegua Bizkaian	313.733	314.910	328.685	336.957	344.099	10%
Aurreko urtekoarekiko enpleguaren gehikuntza, Lantegi Batuak-en	170	147	136	70	144	Guztira: 497
Aurreko urtearekiko enpleguaren gehikuntza, Bizkaia	9.804	1.177	13.775	8.272	7.142	Guztira: 30.366
Enpleguaren gehikuntza LB / Bizkaia (%)	1,7%	12,5%	0,9%	0,8%	2,0%	Batez-beste: %1,6

Iturria: Eustat, Lantegi Batuak Fundazioa. Egileak berak landua.
Eustat-en kopuruek Bizkaiko enpresetako enplegua adierazten dute.

Enplegua sortzea sustatzeko badira hainbat neurri eta diru-laguntza enpresentzat. Hauetako bat urtarrilaren 11ko 170/2004 Errege Dekretuaren (urtarrilaren 11ko B.O.E.), lehenago maiatzaren 11ko 1451/1983 Errege Dekretua zenaren, arabera urritasuna duten pertsonei kontratazio mugagabea egiteagatik ematen den diru-laguntza da, izan kontratua lanaldi osokoa nahiz lanaldi partzialekoa.

Hasierako legearen arabera Cizarte Segurantzak 3.005 €ko diru-laguntza (500.000 pta.) kudeatzen duen lanaldi osoko kontratu bakoitzeko. 170/2004 Errege Dekretua onartzean, berriz, kopuru hau 3.907 €ra igo zen.

Enpleguaren sorrerak izan dezakeen balioaren balioeste honek **Lantegi Batuak**-ek urte hauetan guztietan kudeatu duen enplegu-sorreraren balioa zenbatekoa den esaten laguntzen du.

Adibidez, **2000-2005 urteetan** zehar **Lantegi Batuak-ek 597 lanpostu sortu zituen**. Indarrean dauden diru-laguntza hauen balioa kontuan hartzen badugu, fundazioak epe honetan sortu dituen **lanpostuak 2,5 milioi € baino gehiagotan balioetsi ditzakegu**.

Lantegi Batuak-ek sortutako enpleguaren balioetsitako balioa

4.9 koadroa

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	Bilakaera
Lantegi Batuak-eko enplegua	1.551	1.698	1.834	1.904	2.048	2.148	32%
Lantegi Batuak-eko enplegu gehikuntza	170	147	136	70	144	100	Total: 597
Lanpostu baten balioa (€)	3.005	3.005	3.005	3.005	3.907	3.907	
Balioetsitako balio osoa: 2000-2005 (€)	Guztira: 2.524.923€						

Iturria: 1451/1983 ED, 170/2004 ED, Lantegi Batuak Fundazioa. Egileak berak landua.

Lantegi Batuak-ek Bizkaiko jardueraren zati bezala egin duen enplegu ekarpenaz gain, *Minusbaliatuak Cizarteratzeko 13/82 Legeari (LISMI)* dagokionez izan duen papera ere aztertu daiteke, hau urritasuna duten pertsonak lan-munduan sartzea lortzeko mekanismo garrantzitsua delako.

Nahiz eta **Lantegi Batuak**-en izateko arrazoia urritasuna dutenei lan-aukerak ematea den, fundazioa Bizkaiko beste enpresa batzuk LISMI legea dela eta dituzten eginbeharrak betetzen laguntzeko lanabesa ere badela esna daiteke.

Lege honen arabera, **50 langile baino gehiago dituzten enpresek egiten dituzten lanpostuetatik %2 urritasuna duten pertsonentzat gorde behar dituzte.**

Honen arabera balioztatzen da Bizkaian 2004. urtean **3.118 lanpostuk egon beharko luketela urritasuna dutenentzat gordeta Bizkaiko enpresetan.**

2004. urtean **Lantegi Batuak Fundazioan** lanean ari ziren urritasuna duten pertsonak **1.046 lagun** ziren.

Hau da, **Lantegi Batuak-ek berak bakarrik Bizkaia osoan urritasuna duten pertsonentzat gorde behar diren lanpostu guztien %33 estali zituen.**

Iturria: Txosten Sozioekonomikoa, EGAB 2003, Ararteko aren txostena, Lantegi Batuak Fundazioa. Egileak berak landua.

Bizkaiko enpresa kopurua, langile kopuruaren arabera, eta teknikoko urritasuna duten pertsonentzat gorde behar den lanpostu kopurua (2004)

4.10 koadroa

Enplegu-kopuru tartea	Bizkaiko enpresa kopurua 2004	Lanpostuak	LISMIren %2ko kuota
50etik 99ra	649	44.640	892
100etik 249ra	325	49.072	981
250etik 499ra	73	25.105	502
500etik gora	46	37.155	743
GUZTIRA	1.680	262.438	3.118

Iturria: Eustat. Egileak berak landua.

4.4.2 Osasun-sistema

Lantegi Batuak-ek bere langileei osasun-arloan eskaintzen dizkien zerbitzuak asko dira. Begi bistakoa den bat eta garrantzitsuenetakoa **Lantegi Batuak**-ek egiten dituen mediku-azterketak dira, bai orokorrak bai lanekoak.

Hurrengo taulan agertuko dugun bezala, **Lantegi Batuak**-ek urtean 1.000 mediku-azterketa baino gehiago egin ditu 2000 eta 2005 urte-bitartean. Enplegu zentro bereziko langileak izan dira arreta berezia jaso dutenak: 2000-2005 urte-bitarte osoan egindako mediku azterketak / lantalde osoa portzentajea %83tik gorakoa izan da.

Eta, **Lantegi Batuak**-ek dituen kanpoko baliabideez gain, enpresako medikuak eta lanean hasi berria den OLT batek osatzen dute langileek gaur egun dituen urritasunak behatzeko giltza. Behaketa mota hau ezinbestekoa da urritasunak kontrolatzeko orduan, hauek denborarekin okerrera egitea eragozteko.

Laneko mediku-azterketak egitea **Lantegi Batuak**-ek bere langileetan egiten duen inbestimendua dira.

Hau dela eta, mediku-azterketa hauen balioa zenbat den balioetsi da. Ariketa honek **Lantegi Batuak**-eko medikuak eta bertan lanean hasi berri den OLTak lan hauetarako hartzen duten denboraz gain kanpoko hornitzaileek (Fremap enplegu zentro bereziaren kasuan eta Juber lanbideratze-zentroarenean) egindako gastua ere sartzen da.

Mediku-azterketen laburpena, taldeka. 2000-2005

4.11 koadroa

Biztanleria	2005			2004			2003			2002			2001			2000		
	Lan. kop.	Egin ak	%	Lan. kop.	Egin ak	% %	Lan. kop.	Egin ak	% %	Lan. kop.	Egin ak	% %	Lan. kop.	Egin ak	% %	Lan. kop.	Egin ak	% %
Enplegu zentro berezia	1149	973	85%	1046	891	85%	953	887	93%	946	843	89%	864	748	87%	755	631	84%
Lanbideratze zentroa	751	644	86%	733	0	0%	727	597	82%	691	78	11%	641	120	19%	616	450	73%
Urritasunik gabe	265	187	71%	269	196	73%	224	186	83%	197	176	89%	193	168	87%	180	124	69%
GUZTIRA	2165	1804	83%	2048	1087	53%	1904	1670	88%	1834	1097	60%	1698	1036	61%	1551	1205	78%

Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa, Egileak berak landua.

Lantegi Batuak-en lanean ari diren urritasuna duten pertsonak bertan jaso duten arretaren ondorioz, euskal osasun-sistemara ez joateak berekin euskal osasun-sistemarentzat dakarren aurrezkia ez kalkulatzea erabaki da. Nahiz eta, zalantzarik gabe, aurrezte hau funtsezkoa den, osasunaren pertzepzio subjektiboa jardunarekin hobetu egiten delako, eta bere urritasunarengatik langabezian nahiz zereginik gabe dagoen biztanleriak behar duen arreta kopurua handiagoa delako.

Mediku-azterketen balioa, dirutan (2005)

4.12 koadroa

Urtean mediku azterketak egiten emandako orduak	1.134
Lantegi Batuak-eko medikuaren kostua orduko	29€
Mediku-azterketak egiteko medikuaren kostu zuzena	32.886€
Egindako analisien kostua:	
Fremap (EZB)	78.911€
Juber (LZ)	33.065€
Mediku-azterketen kostu zuzena, GUZTIRA	**144.862€**

Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa, Egileak berak landua.

Hauez gain, **Lantegi Batuak**-ek bere langileen osasuna hobetzeko edo gutxienez bere horretan mantentzeko beste jarduera batzuk ere egiten ditu zuzenean eta zeharka.

Elkarteak egiten duen jarduera bat **Lantegi Batuak**-ek berak langileen otorduak prestatzeko kontratatutako katering-enpresak prestatutako menuak berraztertzea da. Lan honek garrantzia gutxikoa badirudi ere, funtsezkoa da gizabanakoen osasunerako.

Puntu honetan kontuan izan behar da **Lantegi Batuak**-eko langileek gehiegizko pisua eta gizentasunarekin zerikusia duten arazoak izateko joera berezia dutela (**Lantegi Batuak**-eko urritasuna duten pertsonen %24 gizenak dira, EAEko biztanleria orokorraren %10 eta Espainiakoaren %14,5 gizenak diren bitartean).

Egoneko bizitzatik babesteak soilak **Lantegi Batuak**-eko langileei gehiegizko pisuarekin dituzten arazoak nolabait hobeto kontrolatzen laguntzen die. Gizentasunari eta gehiegizko pisuari aurre egiteko helburu hau Eusko Jaurlaritzak bere 2002-2010 Osasun Planean ezarritakoarekin bat dator.

Lantegi Batuak-ek elkarteko kide direnen gehiegizko pisu nahiz gizentasun egoera hobetzera bideratutako bitartekoez gain, badira orokorrean langileen osasuna hobetzera bideratutako beste kanpaina batzuk ere:

Tabakoaren aurkako kanpaina. **Lantegi Batuak-ek** langile erretzaileei zuzendutako lan-talde bat sortu zuren 2005. urtean. Burututako ekintzak honako hauek izan ziren:

- **20** orduko prestakuntza prestatzaileentzat (8 erretzaile ohi) + beste prestakuntza bat bi teknikari eta zuzendari batzentzat
- **T**abakorik gabe bizitzeak osasunari dakarzkion alde onei buruzko informazio kanpaina baten diseinua egitea eta lantegietan zabaltzea

Inkesta erretzaileen artean ("utziko al zenioke erretzeari?")
Erretzeari utzi nahi diotenei laguntza (**Lantegi Batuak** barruko baliabideak eta, gainera, erkidegoan eskuragarri dauden zerbitzuak)
Ohitura osasungarriei buruzko ikastaroak.

2006an legeak lantokietan erretzea debekatu zuen unetik aurrera, **Lantegi Batuak**-ek prestakuntza emateko eta kontzientzia harrarazteko kanpaina bati ekin zion, lantegietako hautsontziak kendu zituen eta disuasio-kartelak jarri zituen kanpoan erretzeko debekua adierazten duten seinaleekin batera.

Gripearen aurkako txertoa. Gripeari aurrea hartzeko kanpainaren barruan **Lantegi Batuak**-ek txertoak jartzen ditu hala bere lantegietan nola osasun-zentroekin elkarlanean.
2005ean **Lantegi Batuak**-ek 397 txertaketa egin zituen bere lantegietan (hauetatik 127 Osakidetzako langileen laguntzarekin). **Lantegi Batuak**-ek egiten duen gripearen aurkako txertoaren kanpaina zuzen honek Osakidetzari zeharkako aurrezkia dakarkiola esan dezakegu, bestela berak jarri beharko bai lituzke txertoak.

Bide-hezkuntza. **Lantegi Batuak**-eko langile taldea osatzen duten askok garraio publikoa eta antzekoak erabiltzeko esperientzia handirik ez dutenez, 2005ean honi buruzko prestakuntza-saioak egin ziren fundazioaren lantegietan bertan. Guztira 89 lagunek hartu zuten parte saio hauetan, eta honek prestatzaileen kostu gehigarria bere gain hartzea ekarri zion elkarteari.

4.4.3
Gizarte-aurrezkia

Legearen eta gaur egun urritasuna dutenentzat dagoen pentsio-egituraren arabera, %65eko edo gehiagoko minusbaliotasuna dutenek pentsio bat jasotzeko eskubidea dute bai Bizkaiko Foru Aldunditik, bai Gizarte Segurantzatik. Hala eta guztiz ere, lanean ari diren urritasuna duten pertsonek pentsio hau jasotzeko eskubiderik ez dutenez, **Lantegi Batuak**-ek, lan-postuz hornitzen dituen neurrian, sistema publikoari aurrezkia dakarkio.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Pentsioa 301,55 €ko 14 ordainsaritan banatzen da, urtean 4.222 € emateko (2005).

Kalkulua: %65eko urritasuna edo handiagoa dutenei pentsio ekarpen txikiagoa egiteagatik sistema publikoak aurrezten duena.

4.13 koadroa

LZBko pertsona kopurua (2005)	1.145
%65eko urritasuna edo handiagoa dutenak	191
Bizkaiko Foru Aldundiaren pentsioa jasoko luketen pertsona kopuruaren zenbatespena (guztien %50)	95
Bizkaiko Foru Aldundiaren pentsioaren urteko balioa (2005)	4.222€
Bizkaiko Foru Aldundiaren 2005eko aurrezkia	401.090€
Gizarte Segurantzaren pentsioa jasoko luketen pertsona kopuruaren zenbatespena (guztien %50)	96
Gizarte Segurantzaren pentsioaren urteko balioa (2005)	3.619€
Gizarte Segurantzaren 2005eko aurrezkia	347.424€
%65eko urritasuna edo handiagoa dutenei pentsioak direla eta sistema publikoak aurreztutakoa	**748.514€**

Iturria: Lantegi Batuak Fundazioa, Egileak berak landua.

Cizarte Segurantzaren pentsioa 301,55 €-tako 12 ordainsaritan banatzen da, urtean 3.619 € emateko (2005.

Lantegi Batuak-ek sistema publikoari ekartzen dion aurrezkiaren balio batera iristeko ontzat eman da enplegu zentro berezian lanean ari diren %65eko urritasuna edo handiagoa dutenen %50ek pentsioa Bizkaiko Foru Aldunditik jasoko luketela eta beste %50ek, berriz, Cizarte Segurantzatik jasoko luketela.

Hurrengo taulan aurkeztu den moduan, sistema publikoak aurrezten duena ia 750.000 € direla balioetsi da (2005. urtea).

4.4.4 Familien gastua

Lantegi Batuak-eko lanbideratze-zentroan aritzen diren urritasuna duten pertsonek ez dute soldatarik jasotzen, baina bai otordu eta garraio gastuak ordaindu ahal izateko ordainsari bat.

Beraz, LZko jarduerak ere badu zeharkako balio ekonomiko bat bertan aritzen direnen familientzat. Izan ere, **Lantegi Batuak**-ek ordainsari hau emango ez balu familiak berak izan beharko lukete gastu hauek beren gain hartu beharko luketenak.

Otorduen gastuak Eustatek argitaratutako Elikagaien, Edarien eta Tabakoaren urteko gastuaren arabera balioetsi dira.

Halaber, hileko 42 €tan balioetsi da garraiotarako gastua. Balio hau LISMIk garraio gastuak ordaintzeko sartutako diru-laguntzari dagokio.

Hauez gain, urritasuna duten lagun hauek **Lantegi Batuak**-en Lanbideratze-zentrora etorri ezean asko eta asko beren etxeetan egongo lirateke eta pertsona gaitu baten arreta beharko lukete.

Era honetako laguntzaile baten kostua kalkulatzeko batez besteko tarifa, 8,73 €/orduko, eta hilean 175 orduko beharra ezarri dira, hau da, familiek hilero beren gain hartu beharko luketen 1.528 €-tako gastua. Kopuru hau merkatuan laguntza profesionala emateko tarifei dagokie (2005. urtea). Aurreko urteetarako kopuru honi urteko %3an balioetsi den KPIa kendu zaio.

Urritasunari laguntzeko ardura duten eragileak nor diren jakiteko txosten honetarako egindako inkestaren arabera, erantzun dutenen %40ren iritzia izan zen urritasuna duten pertsonak beren etxeetan egongo zirela ez balego **Lantegi Batuak** bezalako aukerarik.

Familiek beren etxeko urritasuna duen pertsona zaintzeko zaintzaile bat kontratatzeagatik beren gain hartu beharreko koste gehigarria balioesteko, lanbideratze-zentroan daudenen %40k laguntzailea hartu beharko luketela iritzi da.

Familien zeharkako aurrezte osoa, 2000-2005 tarterako, 2,8 milioi €koa da gutxi gorabehera.

Urritasuna duten pertsonak lanbideratze-zentroan egoteagatik familiek zeharka aurrezten dutenaren kalkulua

4.14 koadroa

	2000	2001	2002	2003	2004	2005
LZko pertsona kopurua	616	641	691	727	733	751
LZrik ezean beren familien gain egongo liratekeen pertsona kopurua (guztiaren %40)	246	256	276	290	293	300
Jakien gastuak						
Elikagaiak, edaria eta tabakoa, gastu osoa (€)	1.454	1.498	1,611	1,747	1,817	1,734
Urteko jakien gastua	357.684	383.488	444.636	506.630	532.381	520.200
Urteko egunak LZan (22 egun /hil x 11 hil)	242	242	242	242	242	242
LZko egunei dagokien urteko jakien gastua	237.149	254.258	294.800	335.903	352.976	344.900
GUZTIRA (€)	**1.819.985**					
Garraioaren gastua						
Hileko zenbatekoa	42	42	42	42	42	42
Urte bakoitzeko hilak	11	11	11	11	11	11
Urteko garraioaren gastua	462	462	462	462	462	462
GUZTIRA (€)	**2.772**					
Zaintzaileen gastua						
Hileko zenbatekoa	1.318	1.357	1.398	1.440	1.483	1.528
Urte bakoitzeko hilak	11	11	11	11	11	11
Urteko zaintzaileen gastua	14.499	14.934	15.382	15.843	16.318	16.808
GUZTIRA (€)	**93.784**					
LZri ordaintzea dagokionaren zeharkako aurreztea	**372.645**	**398.884**	**460.480**	**522.935**	**549.161**	**537.470**
GUZTIRA (€)						**2.841.575**

Iturria: EUSTAT, Txosten Sozioekonomikoa, EGAB 2003, Lantegi Batuak Fundazioa; ikei-k landua.

Berrikusitako itzultze-kontua 4.5

Lantegi Batuak-ek gizartean duen eraginkortasuna eta etekina neurtzeko erabiltzen diren adierazle nagusienetakoa da itzultze-kontua.

Funtsean itzultze-kontuak neurtzen duena da **Lantegi Batuak**-ek herri administraziotik jasotzen dituen ekarpenen zein portzentaje itzultzen duen berriz fundazioak sektore-publikora.

1998-2005 bitartean **Lantegi Batuak**-en Itzultze Kontuaren bilakaera oso ona izan da, 1998ko %73tik 2005eko %80ra hazi baita.

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Itzultze-kontua	73%	71%	76%	81%	81%	80%	83%	80%

Orain arte aurreko puntuetan azaldutako ekarpen ekonomikoak –(i) enplegua sortzea, (ii) osasun-sistemak zeharka aurreztutako dirua, (iii) herri administrazioek pentsioekin zeharka aurreztutako dirua, (iv) familiako gastuan aurreztea– ez daude itzultze-kontuaren kalkuluetan sartuta.

Hala eta guztiz ere, kopuru hauek itzultze-kontuan txertatuko bagenitu, eta 2005 urtea adibide bezala erabilita, **Lantegi Batuak**-en Itzultze-Portzentajea %96ra handituko litzateke.

Berrikusitako Itzultze-Kontuaren kalkulua

4.15 koadroa

€

Azalpena/Urtea	2005
Administrazioaren ordainketak	
Bizkaiko Foru Aldundiko diru-laguntzak	4.202.398
EINen diru-laguntzak eta hobariak	7.128.030
Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak	473.405
GUZTIRA	**11.803.833**
Administrazioaren diru-sarrerak	
Zergak	2.243.081
PFEZ	822.921
GS. Langilea eta enpresa	6.411.945
GUZTIRA	**9.477.947**
Azalpen berriak	
Enplegua sortzea	**390.700**
Osasun-sistemak zeharka aurreztutakoa	**144.862**
Pentsioekin zeharka aurreztutakoa	**748.514**
Familiako gastuetan zeharka aurreztutakoa (LZkoen familietan)	**537.470**
GUZTIRA	**1.821.546**
Hasierako diferentzia	2.325.886
Berrikusitako diferentzia	504.340
Hasierako diferentziaren %	**80%**
Berrikusitako diferentziaren %	**96%**

Gizarteak *urritasuna ulertzeko* duen modua

5 Gizarteak urritasuna ulertzeko duen modua

Caur egun, urritasuna laguntzeko **gizartearen pentsamoldea aldatu** beharra dago. Kontua ez da urritasuna duten pertsonak gizartera moldatzea baizik eta gizartea gizabanako guztiak berdintasunean bere baitan hartzea.

Berdintasunaren oinarrizko printzipio hau gizarte eta ekonomi egitura guztiek nahitaez igorri behar duten erreferentzia puntua da, honek hainbat **eragile integrazioa** bultzatzen duten ekimenak sartzera bultzatzen ditu.

Egoera honetan zalantza bat sortzen da: **zein puntutaraino** da errealitate honen jabe **Bizkaiko gizartea**? Egindako inkestaren arabera **urritasuna eta urritasun mota desberdinak** guztioz ezagutzen dugun kontua da, nahiz eta zailtasun handiagoak dauden urritasunaren oraintsuko eta etorkizuneko bilakaera zehazteko orduan.

Berdintasun-baldintzei dagokienez, berriz, **urritasuna duten pertsonek besteek baino aukera gutxiago dituztela** onartzen da, eta bereziki **enpleguari** (%92), mugikortasunari eta hirietako irisgarritasunari (%92) eta bizitza burujabea bizitzeari (%90) buruz.

Honetan badu, zalantzarik gabe, bere eragina gizarte bezala urritasuna duten pertsonak **eskubide osoko kide** bezala ezagutzeko oraindik ere dugun **zailtasunak**. Hautemate honekin bat zetorren %79. Hala era guztiz ere, bada oso zabalduta dagoen iritzi bat (%91) esaten duena urritasuna duten pertsonak **ahal bada beren lanetik bizi** behar dutela eta ez pentsio batetik. Gizarteratua sentitzea, autonomia eta norberaren diru-sarrera dira lanari egozten zaizkion abantaila nagusiak.

Urritasunari laguntzak, orokorrean **Bizkaian** garatua izan denak, desadostasunak sorrarazten ditu: %45,6rentzat nahiko edo oso egokia da, %35ek iritzi txarra du eta %19k ez du iritzirik eman.

Ikuspegi zehatzagoei buruzko,alegia, hezkuntza sisteman integratzeari, hesi arkitektonikoak kentzeari, bizileku-baliabideei, **lan-aukerei**, eta abarri buruzko, balorazio honetan balorazioak desberdinak dira baina lan-aukerei buruzkoa (%76) izan da, hain zuzen ere, okerren baloratu dena.

Urritasuna duten pertsonak gizarteratzea partekatutako ardura bada ere, **Eusko Jaurlaritzari eta Foru Aldundiari** egozten zaie erantzukizun gehien (%74 eta %72 hurrenez hurren).

Biztanleriaren %44k ez du **lan-aukerak sortzeko zentroen** berri, baina %55ek bai.

Lantegi Batuak da ezagunena (%23k berez eta %40k iradokita), baina ez dakite enpleguari dagokionez bere tamaina gehiegi zehazten. Bere **lantegiei** dagokienez Bizkaian ongien ezagutzen direnak Deriokoa eta Loiukoa dira (%30 eta %23) eta **zerbitzuei** dagokienez, berriz, **lorezaintza** (%51).

Lantegi Batuak bezalako zentrorik ez balego gehien aurkeztu diren irtenbideak **gizarte-zerbitzuetara jotzea** (%41) eta **etxean geratzea** (%40) izan dira.

Sarrera

5.1

1964an Gorabiden elkartuta zeuden adimen-urritasuna zuten pertsonen gurasoen taldeak lanbideratze eta lan babestuko lehenengo esperientziak Bizkaian abian jarri zituenean, seguruenera ere gizarteak orokorrean nolabaiteko sorpresaz erantzun zuen. Urritasunaren inguruan ordura arte egiten ari zenarekin –hau da, ia ezertxo ere ez– alderatuta hain aldaketa handia ekarri zuen honek, ekimen hauek lortu nahi zituzten helburuak gauzatzeko zituzten aukerekiko susmo txarra eta mesfidantza eragin izango zizkiotela bat baino gehiagori.

Hala eta guztiz ere, denborak arrazoia eman die guraso haiei eta gaur, 40 urte beranduago, horren froga garbia dira **Lantegi Batuak** osatzen duten 2.165 lagunak edo, zehatzago esanda, 1.900 urritasuna duten pertsonak.

Lantegi Batuak-ek alor honetan esku-hartzen jarraitzeko asmo osoa du eta irmoki engaiatuta dago honekin, izan ere **urritasuna duten pertsonen aukera-berdintasunean** sinesten du eta aukera hauen artean **bereziki lan-aukeren berdintasunean**.

Baina lan-aukerak sortzeko borroka hau ez da soilik **Lantegi Batuak**-en kontua, aldiz, **gizarteak urritasuna ulertzeko duen modua** gizarte-sistemak berezkoa duen giza-aniztasuna onartuz eta aintzat hartuz aldatzeko beharraren aldeko gizarte-mugimendu baterantz doa. Kontua ez da urritasuna duten pertsonak gizartera moldatzea, baizik eta gizartea gizabanako guztiak bere baitan berdintasunean hartzeko gai izatea, bakoitzaren izaera dena dela.

Berdintasunaren oinarrizko printzipio hau gizarte egiturek eta egitura ekonomikoek nahitaez atxiki beharreko erreferentzia puntua dela uste da gaur egun, eta honek gizarteratzea bultzatuko duten ekimenak txertatzeko deia egiten du.

Hezkuntzan dagoeneko egin da gizarteratze hau; lan-munduan, berriz, honen alde ari dira lanean eta **Lantegi Batuak**-ek ongi daki hori.

Dena den, **Lantegi Batuak** bera aldatuz joan den prozesu luze honetan zehar esku-hartzeko estrategia berriak erantsi dira, prestakuntzan, eginkizunetan eta abarretan erronka berriak onartuz. Eta galderak sortu dira: **zein puntutaraino** hartzen du parte **Bizkaiko gizarteak** errealitate honetan, **zer daki urritasunari buruz**, zerekin lotzen du, nola baloratzen du aukera-berdintasuna, zein puntutaraino ezagutzen du indarrean dagoen araudia, ezagutzen ote dute **Lantegi Batuak** enplegu babestuko enpresa bezala, eta egiten dituen jarduerak, eta abar.

Laburbilduz, **Lantegi Batuak**-en jardueraren zuzeneko onuraduna den gizartea denez, Bizkaiko gizarteak urritasunari buruz duen sentiberatasuna eta fundazioarekiko duen gertutasuna ezagutzeko ageriko interesa zegoen. Horretarako 400 etxetan egin den galdeketa-prozesu bat lantzea erabaki zen, jarraian aztertuko dugun inkesta oinarri hartuta.

Urritasun mota desberdinen ezaguera eta bilakaera

5.2

Kapitulu honetan Bizkaiko familia-lagin bati urritasuna ikerketa-gai nagusi zuela egindako inkestaren emaitzarik nabarmenenak jasotzen dira.

Inolako zalantzarik gabe esan daiteke **mundu guztiak dakiela urritasuna zer den**, baina urritasuna mota batzuk besteak baino gehiago lotzen dira kontzeptu honekin.

Honako galdera hau egin ondoren: "Zein urritasun mota bereiz ditzakezu", **inkesta egin zaienetatik %82k urritasun fisikoren bat aipatu du, %44k adimen-ezintasunen bat**, eta askoz ere gutxiago aipatu dira zentzumenetako urritasuna (%26) eta buru-eritasuna (%21).

Adinaren arabera urritasun mota desberdinen sailkapena nahiz garrantzia aldatzen ez bada ere, berez emandako erantzunaren indizea handiarazi edo txikiarazi egiten du..

Hau da, adin talde guztietan beti eman da berezkotasun handiagoz urritasun fisikoren bat, gero adimen-urritasuna, zentzumenetako urritasuna eta, azkenenik, buru-eritasuna. Baina 45 urtez beherakoek zaharragoek baino aipamen gehiago egiteko joera dago.

Urritasun moten berezko ezaguera

5.1 koadroa

berezko aipamenak %

	Guztira	Adina			
		18-29	30-44	45-59	60-74
Zein urritasun mota bereiz ditzakezu?:					
Fisikoa	**82,1**	84,3	89,9	78,0	73,7
Adimenekoa	**44,3**	40,8	53,0	42,0	36,6
Zentzumenetakoa	**26,1**	27,9	32,5	24,4	16,9
Burukoa	**21,4**	24,7	26,2	17,6	15,5

Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Urritasun moten berezko ezaguera, adinaren arabera. (%)

5.1 grafikoa



Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Urritasun mota desberdinen berezko aipamenen arteko diferentzia hau desagertu egiten da urritasun mota bakoitzari buruz zuzenean galdetzean, izan ere, orduan denek ala denek baiezkoa erantzuten dute.

Honek ondorio honetara garamatza: **gizartea bada urritasunaren jakitun** eta, gainera, bere aniztasuna ezagutzen du.

Hala eta guztiz ere arazo honen duela gutxiko bilakaera zein izan den azaltzea oso zaila gertatu da, **erantzunik eman ez dutenen indize altuak** ikustea besterik ez dago. Hau izan da, zalantzarik gabe, gertakari nabarmenena urritasun fisikoa, adimen-urritasuna, zentzumen-urritasuna nahiz buru-eritasuna zutenen kopurua azken 10 urteetan nola aldatu den galdetu denean.

Ezjakintasun-indizerik handiena zentzumen-urritasunak jaso du, galdeketa egin zaienetatik %47k ez baitu zer erantzun jakin. Atzetik du urritasun fisikoa (%44) eta azkenik, bakoitzak %40-kin, adimen urritasuna eta buru-eritasuna.

Urritasun mota desberdinek azken urteetan Euskadin izan duten bilakaera

5.2 koadroa

% horizontala

	Guztira	Gutxitu egin da	Berdin mantendu da	Ugaritu egin da	Ed/Ede
Nola aldatu da azken 10 urteetan urritasuna duten pertsona-kopurua?:					
Fisikoa	**100,0**	12,5	16,2	27,3	43,9
Adimenekoa	**100,0**	25,3	17,7	17,4	39,7
Zentzumenetakoa	**100,0**	14,4	23,2	15,0	47,4
Burukoa	**100,0**	3,5	7,5	49,3	39,6

Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Bilakaeraren joerari buruzko erantzuna eman dutenen artean adostasun handiena **buru-eritasunaren goranzko joeran** izan da (%49); beste erantzunak sakabanatuagoak daude eta ez da iritzi sozial argi bereizirik.

Hala eta guztiz ere, erantzun gehien jaso duten aukerak kontuan hartuz, horrela pentsatzeko joera dagoela dirudi:

Urritasun fisikoa ugaritu egin da (%27)
Adimen-urritasuna urritu egin da (%25), eta
Zentzumen-urritasuna berdin mantendu da (%23).

Azken urteetan gertatutakoari buruzko iritzirik ez ematera bultzatzen zuen zuhurtasuna arindu egiten da etorkizunera begira aurreikuspenak egiten hastean; asko handitzen dira bata ala bestea erantzuten dutenen kopuruak. Horrela erantzunik eman ez dutenen indizea jaitsi egin da –oraindik ere altuak diren arren– eta %20 (buru-eritasuna) eta %27 (urritasun fisikoa) bitartean kokatzen da.

Oraingoan ere adostasun handiena **buru-eritasunak etorkizunean ugaritu** egingo direla esaterakoan eman da; iritzi hau bera dute galdetutakoen %58k. Beste kasuetan iritziak sakabanatuta daude berriz ere.

Ohikoena hala urritasun fisikoa (%30) nola adimen-urritasuna (%39) eta zentzumen-urritasuna (%29) hurrengo hamar urteetan gutxitu egingo direla pentsatzea da. Baina urritasun fisikoari dagokionez bigarren iritzi ugariena ugaritu egingo dela (%23) da, eta beste bietan, berriz, bigarren erantzun ugariena egonkortasunaren aldekoa da.

Laburbilduz, zera esan genezake:

Buru-eritasunak ugaritzen ari direla uste du gehiengoak (%58)
Aitzitik, **adimen-urritasuna eta zentzumen-urritasuna ugaritzen ari direla uste dutenak gutxiengoa dira** (%14 eta %18, hurrenez hurren)
Urritasun fisikoaren bilakaerak eragiten du desadostasun gehien, nahiz eta gutxituko dela esan dutenak (%30) ugarituko dela esan dutenak (%23)baino gehiago izan.

Urritasun mota desberdinek etorkizunean Euskadin izango duten bilakaeraren balorazioa

5.3 koadroa

% horizontala

	Guztira	Gutxitu egingo da	Berdin mantenduko da	Ugaritu egingo da	Ed/Ede
Zer bilakaera izango du datozen 10 urteetan urritasuna duten pertsona-kopuruak?					
Fisikoa	**100,0**	30,3	19,1	23,3	27,2
Adimenekoa	**100,0**	39,3	21,6	13,8	25,3
Zentzumenetakoa	**100,0**	28,6	26,5	17,6	27,3
Burukoa	**100,0**	12,4	10,1	57,6	19,9

Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Urritasun mota desberdinen azken urteetako eta etorkizuneko bilakaera. (%)

5.2 grafikoa

Azken urteetako bilakaera



Etorkizuneko bilakaera



Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Urritasun mota desberdinen azken urteetako eta etorkizuneko bilakaera. Batez besteko puntu-kopurua

5.3 grafikoa

Azken urteetako bilakaera



Etorkizuneko bilakaera



Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Urritasuna duten pertsonen artean aukera-berdintasunaren hedapena

5.3

Azken urteetan urritasunak izan duen bilakaera zehazteko zailtasunak ez du aukera-berdintasunari dagokionez, urritasuna duten pertsonek orokorrean urritasunik ez dutenek baino aukera gutxiago dutela ikustea eragozten.

Zazpi galdera hauek egin zaizkie inkestan:

Hezkuntzara/prestakuntzara sarbidea
Enplegura sarbidea
Etxebizitzara sarbidea
Kultura, aisia, kirol-jardueretara eta abarretara sarbidea eta parte-hartzea
Teknologia berrietara sarbidea
Mugikortasuna eta hirien erabilerraztasuna
Bizitza independentea.

Lehen begirada batek oraingoan erantzun ez dutenen kopurua aurreko bi galderetan baino askoz ere txikiagoa izan dela jartzen digu agerian; eta gainera, oraingoan bada gehiengoak duen iritzi sozial bat.

Urritasuna duten pertsonen aukera-berdintasunari buruzko balorazioa

5.4 koadroa

% horizontalak

	Guztira	Gutxiago	Berdin	Gehiago	Ed/Ede
Urritasunik ez dutenekin alderatuta, zer uste duzu, urritasuna duten pertsonek aukera gehiago, gutxiago edo gutxi gorabehera aukera-berdintasuna dutela?:					
Hezkuntza/prestakuntza	**100,0**	65,2	30,5	1,4	2,9
Enplegua	**100,0**	91,5	7,1	0,5	0,9
Etxebizitza	**100,0**	66,0	17,3	7,0	9,7
Kultura, aisia, kirol... jardueretara sarbidea eta parte-hartzea	**100,0**	64,7	28,3	0,9	6,0
Teknologia berrietara sarbidea	**100,0**	49,7	35,7	1,2	13,3
Mugikortasuna eta hirietako erabilerraztasuna	**100,0**	91,8	6,4	0,2	1,6
Bizitza independentea egitea	**100,0**	90,4	5,3	0,2	4,1

Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Ikus daitekeen bezala, urritasunen bat duenak desabantailan dago argi eta garbi proposatu diren gai guztietan; eta desabantailan daudela oso nabarmen onartua dago (%90 edo gehiagoz) **mugikortasuna eta hirietako erabilerraztasuna, enplegua eta bizitza independente bat egiteko aukerari** buruz galdetzean. **Hiru egoera hauetan du urritasuna duten pertsonak baztertua izateko arrisku** eta hirugarren pertsonekiko dependentzia handiagoa.

Hiru auzi hauen ondoren beste hiru gaiko multzo bat agertzen da: **etxebizitzara sarbidea, hezkuntza eta prestakuntza, eta kultura, aisia, nahiz kirol jardueretara** sarbidea eta parte-hartzea. Hauetan ere aurrekoaren antzeko balorazio soziala dago (aukera gutxiago dituzte) baina onarpen-indizea baxuagoa izan da (%65 ingurukoa), %30ek (hezkuntza eta jarduera kulturalak) urritasuna duten pertsonek kontu hauetan urritasuna duten pertsonak ez direnen aukera berak dituztela uste dutelako.

Azkenik **teknologia berrietara sarbidea** kontua dago, non biztanleriaren erdiak beste gaietan bezala pentsatzen jarraitzen duen %36k aukera berak dituztela uste duten bitartean.

Urritasuna duten pertsonen artean aukera-berdintasunaren hedapena. (%)

5.4 grafikoa



Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Baina urritasuna duten pertsonak ez dutenekin alderatuta enpleguan, mugikortasunean nahiz prestakuntzan berdintasunik ez dutela hain adostasun handiarekin onartzeak ez du esan nahi gizarteak urritasuna duten pertsonak naturaltasunez eskubide osoko kide bezala onartzen ikasi duenik.

Kontu honetan sakontzeko asmoz, honako esaldi honekin zein neurritan bat zetozen adierazteko eskatu zitzaien inkesta egin zitzaienei: *"urritasuna duten pertsonei laguntza emateko egin diren hobekuntzak gorabehera, orokorrean oraindik ere zaila zaigu urritasuna duten pertsonak eskubide osoko kide bezala onartzea"*. Ba elkarrizketatuen %79 ados dago esaldi honetan esaten denarekin, eta %20 ez dago ados. Adina kontuan hartzen badugu, 45 urtez gorakoetan esaldiak indar handiagoa hartzen du (%83) eta 45 urtez azpikoetan aurka agertzen direnak gehixeago dira (%25).

Urritasuna duten pertsonak eskubide osoko kide bezala onartzea. (%)

5.5 grafikoa

Adierazi honako esaldiarekin duzun adostasun-maila:
"Urritasuna dutenei laguntza emateko egin diren hobekuntzak gorabehera, orokorrean oraindik ere zaila zaigu urritasuna duten pertsonak eskubide osoko kide bezala onartzea":



Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Egoerak, beraz, honakoa dirudi: **Trantsizio-une** batean gaude; urritasuna dutenei gizabanakoen eskubideak nekez ukatuko zaizkien garaia da, baina oraindik ere norberak **garai bateko inertziak albo batera uztea falta da**. Horretarako urritasuna duten pertsonen bizitza-baldintzak hobetzeko ardura duten eragile dinamizatzaileak behar dira eta hezkuntzan integrazioa, desberdintasunak onartzea,... bezalako baloreak sustatzea.

Integrazioaren bidean **gehiengoak** (%91) **uste du urritasuna duen pertsonak bere lanetik bizi ahal izan behar duela, eta ez pentsio batetik**. Sentipen hau oso zabaldua dago 30-44 urte bitarteko helduen artean eta pixka bat gutxiago gazteen artean. Pentsio batetik bizi behar dutela uste dutenen talde handiena (%13) gazteena da.

Enpleguari ikusten zaion lehenengo abantaila zera da, enpleguaren bitartez urritasuna duen pertsonak **bere burua gizarteratua sentitzen duela** (%46), %25ek **norberaren autonomia hobetzen dela** dio eta %14k **nork bere diru-sarrera duela**. Berriz ere 30-44 urte bitarteko helduak dira integrazioaren abantailaren sentipena indartzen dutenak (%52).

Lehen eta bigarren tokian jarritako erantzunak elkarrekin batera lanak ematen dituen abantaila nagusi bezala hartuta, lanak integraziorako bidean ematen duenari dagokionez nagusi dira, %70ek aipatzen baititu.

Urritasuna duten pertsonen diru-iturria zehaztea. (%)

5.5 koadroa

% goitik beherakoak

	Guztira	Adina			
		18-29	30-44	45-59	60-74
Urritasuna duten pertsonen diru-iturri honetatik bizi beharko lukete:					
Ahal dela beren lanetik	**91,1**	87,2	94,8	90,8	89,9
Pentsio batetik	**7,6**	12,8	3,4	7,5	9,0
Ed/Ede	**1,3**	–	1,8	1,7	1,2
Guztira	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**

Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Enplegua izatearen abantaila nagusia. (%)

5.6 koadroa

% goitik beherakoak

	Guztira	Adina			
		18-29	30-44	45-59	60-74
Urritasuna duen pertsona batentzat zein uste duzu dela lana izatearen abantaila nagusia (eta lehena)?					
Nork bere diru-sarrera izatea	**14,1**	16,0	11,0	14,9	16,0
Gizarteratua sentitzea	**46,2**	46,0	51,8	40,7	45,2
Norberaren autonomia hobetzea	**25,3**	22,9	32,3	26,4	15,7
Norberaren gaitasunak lantzea	**9,3**	13,8	4,0	10,6	11,0
Trebetasun profesionalak lantzea	**0,2**	–	–	0,8	–
Denbora batez familia urritasuna duen pertsona zaindu behar izatetik libre uztea	**1,2**	1,3	–	1,7	2,4
Zerbitzu publikoetan laguntza-eskaria murriztea	**0,2**	–	–	0,9	–
Ed/Ede	**3,5**	–	0,9	4,1	9,8
Guztira	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**

Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Enplegua izatearen abantaila nagusia. (%)

5.6 grafikoa



Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren balorazioa

5.4

Zerbitzu publikoen sarea, alor guztietan, azken 30 urteetan **garatu da** Euskadin, **eta baita urritasunari laguntza ematea ere**. Honek ez du esan nahi aurretik elkarte sare bat ez zegoenik, aitzindaria kasu askotan, ordura arte ezezaguna zen erantzuna emateko antolatu nahian zebilena. Cuztion artean gaur egun urritasuna duten pertsonei laguntza emateko dugun elkartea eraikiz joan gara; elkarte honek hainbat zerbitzu, laguntza, profesional, erakunde, eta abar ditu bere baitan.

Bizkaiko biztanleek beren lurraldean urritasunari ematen zaion laguntza nola baloratzen duten jakin nahi zen eta honako galdera egin zen inkestan: *Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntza ez da batere egokia, ez da egokia, nahiko egokia da ala oso egokia da zure ustetan?*

Iritzi nagusienaren arabera (%41,7), laguntza hau nahiko egokia da, baina %31k ez dela egokia dio. Bi muturretako iritziek, hala positiboak nola negatiboak, antzeko pisua dute lagin osoarekiko, %4 inguru.

Adinak begiratzen baditugu, gehiengoaren iritzia (nahiko egokia) 60 urtez gorakoen artean eta gazteenen indartsuagoa dela ikusten dugu, 45-59 urte bitarteko helduak besteak baino kritikoagoak agertu diren bitartean, egokia ez dela adieraziz.

Lehenago ere gertatu den bezala nabarmendu behar da inkesta egin zaien bost lagunetik ia batek ez duela galdera honi erantzuten jakin. Arazo honekiko halako urruntasun sozial bat agertzen ari zaigu.

Erantzunak 0tik (ez da batere egokia) 10era (oso egokia da) doan gogobetetasun-eskala batean jartzen baditugu **lortutako batez bestekoa 5,2 da** lagin osoarentzat, hau da, adin talde guztietan errepikatzen den ozta-oztako nahiko bat.

Galdera honek urritasunarekin duen zerikusia aztertzen badugu, **balorazioa kaskartu egiten da inkesta egin zaionak urritasunarekiko duen harremana gerturatzen den neurrian**. Urritasunarekin harremanik ez dutenek 5,4 puntu ematen badituzte, urritasuna duten pertsonek 5,2 eman dituzte eta urritasuna duen pertsona bat duten familiek 4,5.

Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren balorazioa. (%)

5.7 koadroa

% goitik beherakoak

	Guztira	Adina			
		18-29	30-44	45-59	60-74
Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntza zera dela esango zenuke:					
Ez da batere egokia	**4,0**	5,6	4,0	2,5	4,4
Ez da egokia	**31,1**	29,8	29,8	35,1	28,9
Nahiko egokia da	**41,7**	44,7	37,6	39,6	47,4
Oso egokia da	**3,9**	5,8	2,6	3,7	4,4
Ed/Ede	**19,3**	14,0	26,0	19,2	14,9
Guztira	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**
Urritasunari ematen zaion laguntzaren gogobetetasun-indizea	**5,17**	**5,26**	**5,03**	**5,12**	**5,31**

Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren balorazioa. (%)

5.7 grafikoa



Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren gogobetetasun-indizea. Batez bestekoa

5.8 grafikoa



Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Laguntza honen alderdi jakinetan sakontzeko asmoz, inkesta egin zitzaienei zera eskatu zitzaien, 11 kontu oso gaizki-tik oso ongi-ra baloratzeko. Hauek dira kontu horiek:

Hezkuntza-sisteman sartzea
Lanerako prestakuntza eta trebakuntza
Lan-aukerak
Laguntza teknikoen eskuragarritasuna
Egokitutako babes ofizialeko etxeak
Udalerrietan hesi arkitektonikoak kentzea
Garraio publikoa egokitzea
Ikus-entzunezko bitartekoak egokitzea
64 urtez beherakoentzat laguntza etxean bertan
64 urtez beherakoentzat eguneko zentroak
64 urtez beherakoentzat egoitzak.

Bizkaian urritasunari laguntzeko hainbat prestaziok eta zerbitzuk duten egoeraren balorazioa. (%)

5.8 koadroa

% **horizontalak**

	Guztira	Egungo egoeraren eskala					
		Oso gaizki	Nahiko Gaizki	Hainbestean	Nahiko ongi	Oso ongi	Ed/Ede
Balora itzazu Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzarekin erlazionatutako honako egoera hauek oso gaizkitik oso ongira:							
Hezkuntza-sisteman sartzea	**100,0**	3,3	19,4	36,3	18,7	2,3	20,1
Lanerako prestakuntza / trebakuntza	**100,0**	6,6	32,4	27,9	10,6		22,5
Lan-aukerak	**100,0**	20,6	54,8	11,5	3,3		9,7
Laguntza teknikoen eskuragarritasuna	**100,0**	10,2	24,9	15,2	10,9	1,1	37,7
Egokitutako b.o.ko etxeak	**100,0**	7,4	26,7	23,5	9,6	0,5	32,3
Udalerrietan hesi arkitektonikoak kentzea	**100,0**	14,7	39,4	37,5	6,8	0,6	1,0
Garraio publikoa egokitzea	**100,0**	10,6	36,1	39,5	9,3	1,5	2,9
Ikus-entzunezkoak egokitzea	**100,0**	16,4	38,2	19,0	6,8	0,6	19,0
<64 urte, laguntza etxean bertan	**100,0**	9,1	25,3	12,2	6,4	0,3	46,6
<64 urte, eguneko zentroak	**100,0**	8,1	21,8	14,7	10,2	0,2	45,0
<64 urte, egoitzak	**100,0**	10,2	23,2	10,7	6,8	0,2	48,8

Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Lehenik eta behin azpimarratu behar da, oso adierazgarria delako, zenbait kontuetan eman den erantzunik eza; adibidez, etxez etxeko laguntza, eguneko zentroak eta egoitzak baloratzerakoan erantzun ez dutenen portzentajea %45 eta %49 bitartekoa izan da, laguntza teknikoen eskuragarritasuna baloratzerakoan %38koa izan da eta egokitutako babes ofizialeko etxeei buruz galdetzerakoan %32koa.

Cainera, badira %20-23 inguru hezkuntza, lanerako trebakuntza eta prestakuntza nahiz ikus-entzunezkoen egokitzea baloratzen jakin ez dutenak.

Lortutako erantzunak aztertuz gero ikusiko dugu **balorazioriK txarrena lan-aukerek izan dutela**, inkesta egin zaienen %76k balorazio txarra egin diote: %21ek oso gaizki dagoela uste dute eta gainontzeko %55ak nahiko gaizki. Beste kontuetan iritzia sakabanatuagoa dago.

Balorazio txarra onari gailendu zaien kontuen artean udalerrietan **hesi arkitektonikoak kentzea** eta **bitarteko ikus-entzunezkoak egokitzea** daude, biak ala biak hauen egoera Bizkaian oso gaizki edo nahiko gaizki dagoela uste duten %54rekin, egoera gutxienez onargarria dela uste duten %44 (hesiak) eta %26ren (ikus-entzunezkoak) aurka.

Bizkaian urritasunari laguntzeko hainbat prestaziok eta zerbitzuk duten egoeraren balorazioa. (%)

5.9 grafikoa



Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Aitzitik, **balorazio onek txarrak gainditzen dituzten alderdiak hezkuntza-sisteman sartzea eta garraio-publikoa egokitzea izan dira**.

Lehenengo kasuan (hezkuntza-sisteman sartzea), Bizkaian egoera onargarria dela uste duten %36 dagoen bitartean %21ek ongi edo oso ongi dagoela uste du, baina badira %23 alderdi honi ere "gutxiegi" eman diotenak.

Garraio publikoari dagokionez, berriz, iritzi banaketa handiena sortarazi duen auzia da. Alde batetik hainbestean dagoela uste dutenen multzo handiena duen ikuspegia da (40), eta ia %11k ongi edo oso ongi dagoela uste du; baina beste aldetik %47k gaizki edo oso gaizki dagoela uste du.

Kontu hauetako bakoitza 0tik 10era batez besteko puntutan adierazten baditugu, non 0 oso gaizki den eta 10, berriz, oso ongi, balorazio-indize sintetiko baten moduan, eskalako erdi-puntua iristen duen alderdi bat ere ez dagoela ikusiko dugu, alegia, ez duela inork ere "gainditu".

Lehenago aipatu dugun gehiengo iritzi txarrarekin bat etorriz, **batez besteko puntuaziorik baxuena lan-aukerena da** (2,43) eta puntuaziorik altuena lortu duena, gainditzetik gertu dagoena, berriz hezkuntza-sisteman sartze (4,92) da. Tartean daude beste guztiak, egoitzen 3,23 eta laneko prestakuntza eta trebakuntzaren 3,87 bitartean.

Mugikortasunarekin eta irisgarritasunarekin zerikusia duten bi kontuek, hesi arkitektonikoak kentzeak eta garraio publikoa egokitzeak, batez besteko 3,46 eta 3,54 puntu lortu dituzte hurrenez hurren.

Bizkaian urritasunari laguntza emateareKin zerikusia duten hainbat alderdiren balorazioa. Batez besteko puntuazioa

5.10 grafikoa

Garapen pertsonalerako ekintzak: prestakuntza eta lana



Autonomia fisikorako eta etxerako ekintzak



Mugikortasuna eta irisgarritasuna



Laguntza-zerbitzuak eta egoitza-zerbitzuak



Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Integrazioaren aldeko jardueren ezaguera. (%)

5.11 grafikoa

Adierazi honako esaldi honekin duzun adostasun-maila:
Egia esan, ez nago oso jakitun urritasuna duten pertsonak gizarteratzeko egiten ari denari buruz:



Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Galderetako batzutan erantzunik eman ez dutenen indize handiak erakusten ari zaizkigu **iritzi publikoa nola urritasuna duten pertsonak gizarteratzeko egiten ari den lanetik nahikoa kanpora dagoen**; eta intuizio hau, inkesta egin aurretik ere bazena, zuzenean frogatu nahi izan zen nolabait.

Hau frogatzeko inkesta erantzun zutenei honako esaldiarekin zuten adostasun-maila adierazteko eskatu zitzaien: *"Egia esan, ez nago oso jakitun urritasuna duten pertsonak gizarteratzeko egiten ari denari buruz"* eta emaitzek hasierako intuizio hura egiaztatu egin dute.

Inkesta egin dutenen ia %78 bat etorri dira esaldi honen zentzu eta edukiarekin, eta adostasun hau 45 urtez gorakoen artean %82ra iristen da, 45 urtez behekoen artean %73koa den bitartean. Dena den, gehiengo zabal honek gogoeta egitera dei egiten digu.

Urritasuna duten pertsonei ematen zaien laguntzaren erantzukizuna 5.5

Atal honek urritasuna duten pertsonei ematen zaien laguntzaren eragile erantzuleak identifikatzeari buruzko inkestaren emaitzak jasotzen ditu. Horretarako inkesta egin zaionari bere ustez emandako hainbat eragilek urritasuna duten pertsonak integratzeko orduan duten erantzukizun-maila esateko eskatu zitzaion (bat ere ez, txikia, nahikoa edo handia).

Honako 13 eragile edo taldeak aurkeztu zitzaizkien guztira:

Urritasuna duten pertsonak berak
Beren familiak
Dagoeneko hor dauden arloko elkarteak
Udalak
Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza
Hezkuntza-sistema
Enpresak
Enplegu babestuko zentroak
EIN
Sindikatuak
Gobernu zentrala
Komunikabideak.

Lehenik eta behin, azpimarratu behar dena zera da, **urritasuna duten pertsonak gizarteratzeko ardura partitua dagoela** edo, gutxienez horrela jasotzen dela lortutako emaitzetatik: emandako eragile guztiei eman zaie urritasuna duten pertsonen gizarteratzea sustatzeko orduan oso erantzukizun handia. "Erantzukizun handia" izan da kasu guztietan, urritasuna duten pertsonen beraien ardura neurtzerakoan izan ezik, pisu gehien duen aukera.

"Handia" gehien agertu den erantzuna izanik ere, bereziki maiz agertu da euskal erakundeez galdetzerakoan, eta **Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundia izan dira, hurrenez hurren, gehien nabarmendu diren eragileak**. Hain zuzen ere, galdeketa egin zaienen %74k egozten dio Eusko Jaurlaritzari erantzukizun oso handia eta %72 Foru Aldundiari.

Hauen atzetik agertzen dira gobernu zentrala (%69) eta udalak (%66). Datu hauekin herri administrazioa da, bere maila guztietan, urritasuna duten pertsonen gizarteratzearen eragile arduradun lehena eta nagusia.

Hauen atzetik %50 eta %57 arteko ardura handiarekin honako hauek daude: komunikabideak (%50), elkarteak (%53), enplegu babestuko zentroak (%53), hezkuntza-sistema (%54) eta familiak (%57).

Urritasuna duten pertsonen gizarteratzean hainbat eragileri egozten zaien erantzukizun-maila. (%)

5.9 koadroa

% horizontalak

	Guztira	Erantzukizuna				
		Bat ere ez	Txikia	Nahikoa	Handia	Ed/Ede
Zer erantzukizun maila egozten diezu honako eragileei urritasuna duten pertsonen integrazioa sustatzeko eta beren bizitza-kalitatea ziurtatzeko orduan?						
Urritasuna duten pertsonak berak	**100,0**	7,4	20,8	31,7	24,5	15,5
Beren familiak	**100,0**	1,4	8,6	29,2	57,2	3,6
Dagoeneko hor dauden elkarteak	**100,0**	0,2	5,0	35,7	53,0	6,1
• Udalak	**100,0**	0,6	3,8	28,3	65,7	1,6
• Foru Aldundia	**100,0**	0,3	1,7	24,4	72,0	1,5
• Eusko Jaurlaritza	**100,0**	–	1,8	22,9	74,2	1,1
• Hezkuntza-sistema	**100,0**	–	1,9	39,7	54,2	4,1
• Enpresak	**100,0**	1,4	10,7	37,7	45,7	4,4
• Enplegu babestuko zentroak	**100,0**	0,6	3,0	35,7	53,3	7,4
• EIN	**100,0**	1,5	8,9	31,1	49,1	9,3
• Sindikatuak	**100,0**	2,4	7,5	33,4	48,4	8,3
• Gobernu zentrala	**100,0**	1,6	4,1	22,9	68,6	2,8
• Komunikabideak	**100,0**	0,7	7,7	36,0	50,1	5,4

Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Eragile guztiek gizarteratze hau lortzeko bat egitea desiragarria da, baina interesgarria da ikustea honi buruz ze lehentasun ezartzen diren. Horretarako, lantzaren punta izatea, diferentzia ezarri eta besteentzat erreferentzia izatea nori zegokion ikusteko, inkestako galderetan emandako eragile guztien artean ardura nagusia norena den esateko eskatzen zen.

Badirudi berriz ere **ardura nagusia nagusiki publikoa**, autonomikoa eta goren mailakoa dela. **Inkesta egin zaienen %37k arduradun nagusia Eusko Jaurlaritza dela uste du**; baldintza hau 45 urtez gorakoek eman diote batez ere. Bere atzetik gobernu zentrala dago (%17), gero udalak (%13) eta Foru Aldundia (%10).

Azpimarratzekoa da eragile bezala ardura handia egozten zitzaien enplegu zentro bereziak, inkesta egin zaienen %53k hala iritzi diote, ez direla hautatuak izan ardura gorena dutenen artean.

Urritasuna duten pertsonen integrazioa sustatzeko ardura duten eragileak eman zaien erantzukizun-mailaren arabera. Batez besteko puntuazioa

5.12 grafikoa



Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Ardura gorena duen eragilea (%)

5.10 koadroa

% goitik beherakoak

	Guztira	Adina			
		18-29	30-44	45-59	60-74
Urritasuna duten pertsonak gizarteratzeko ardura gorena duen eragilea nabarmendu beharko bazenu, nor aukeratuko zenuke?					
Eusko Jaurlaritza	**37,0**	23,4	35,6	44,3	43,2
Gobernu zentrala	**17,2**	24,2	21,1	11,5	11,8
Udalak	**12,7**	13,0	12,4	12,4	13,3
Foru Aldundia	**10,0**	10,6	12,9	5,8	10,3
Beren familiak	**9,5**	10,4	5,1	15,1	8,2
Besteak	**7,6**	12,6	9,4	5,1	3,2
Ed/Ede	**6,0**	5,8	3,5	5,8	10,0
Guztira	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**

Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Urritasunari buruzko hurbiltze sozial honetan **indarrean dagoen araudia zenbateraino ezagutzen den** ere jakin nahi zen; izan ere, araudi honek 50 langile baino gehiago dituzten enpresak beren lanpostuen %2 urritasuna duten pertsonentzat gordetzera behartzen ditu. Galdera hau egitean **%62k baiezkoa erantzun du**, eta ezaguera 39 eta 59 urte bitarteko helduen artean handiagoa da.

Baietz erantzun dutenak gehiengoa badira ere, aipagarria da lege hau sortu zenetik (LISMI 1982) igaro diren urteak gorabehera oraindik %38 direla bere berri ez dutenak; eta portzentaje honek %53 iristen du 18 eta 29 urte bitarteko gazteen artean: hau da talderik hotzena eta arrotzena.

Baina lege honek ez du aukera-berdintasuna lortzeko ekarpen handirik egingo **berau betearazteko zaintza mekanismorik ezartzen ez bada**. Honi buruz ere galdetu zen eta galdeketa egin zitzaienen gehiengo nagusia bat dator honekin (%93), eta, kasu honetan, adinean desberdintasunik gabe. Eta hala 45 urtez gorakoen nola 45 urtez azpikoen artean %5 eskasek gai honi buruz eman zitzaien esaldiaren edukiarekin ados ez zeudela esan zuten. Honela zioen esaldi hark:

"Nekez lortu ahal izango da urritasuna duten pertsonen aukera-berdintasuna gaur egun indarrean dagoen araudia betetzen dela zaintzen ez bada. Araudi honek beren lanpostuen %2 urritasuna duten pertsonentzat gordetzera behartzen ditu enpresak".

Urritasuna duten pertsonentzat enpresetan lanpostuak gorde behar direla dioen araudiaren ezaguera (%)

5.11 koadroa

% goitik beherakoak

	Guztira	Adina			
		18-29	30-44	45-59	60-74
Badakizu badela lege bat 50 langile baino gehiago dituzten enpresak lanpostuen %2 urritasuna duten pertsonentzat gordetzera behartzen dituena?					
Bai	**62,4**	47,1	70,3	69,6	56,6
Ez	**37,1**	52,9	28,9	30,4	42,4
Ed/Ede	**0,5**	–	0,8	–	1,0
Guztira	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**

Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Indarrean dagoen araudia betearazteko zaintza. (%)

5.13 grafikoa

Adierazi zer adostasun-maila duzun honako esaldiarekin:
"Nekez lortu ahal izango da urritasuna duten pertsonen aukera-berdintasuna gaur egun indarrean dagoen araudia betetzen dela zaintzen ez bada. Araudi honek beren lanpostuen %2 urritasuna duten pertsonentzat gordetzera behartzen ditu enpresak."



Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Lan-aukerak sortzen dituzten zentroei buruzko ezagutza 5.6

Lantegi Batuak bezalako erakundeek gizarteratzean egin diren lorpenetan izandako protagonismoa zalantzarik gabekoa da gaia ezagutzen duen edonorentzat. Hala ere, inkesta honek agerian utzi du **oraindik badela biztanleriaren zati handi bat lan-aukerak sortzen dituzten enpresen berri ez duena**. %55ek zentro hauek ezagutzen dituela dio, baino %44k ezetz erantzun du. Adinen arabera, zentro hauek gehien ezagutzen dituztenak 30 eta 44 urte bitarteko helduak dira, eta gutxien ezagutzen dituztenak 60 urtez gorako helduak.

Zentro mota hau ezagutzen dela agerian utzi eta gero, ezagutzen zutenen artean **Lantegi Batuak-ek eta Bizkaiko antzeko beste zentroek duten berezko ospea zein den jakin nahi zen**. Horretarako inolako laguntzarik gabe zentroen izenak emateko eskatu zen. Berez **Lantegi Batuak** aipatzen ez zutenean soilik galdetu zen berariaz ia ezagutzen ote zuten.

Cogoratu behar da enplegu zentro bereziei buruz galdetzerakoan (izen zehatz horrekin) %55ek baietz erantzun duela. Baina denak ez ziren izenen bat emateko gai izan. Aitzitik, bi aldagai hauek kontuan harturik egindako banaketak (ezaguera eta ospea) zera lortzen da: laginaren **%34k ezagutzen ditu zentro hauek eta izenen bat esan du**, %22k ezagutzen ditu baina ez du izenik gogoratzen eta, azkenik, %44k ez ditu zentro hauek ezagutzen.

Bizkaian urritasuna duten pertsonak prestatzen dituzten eta urritasuna duten pertsonei lana ematen dieten enpresei buruzko ezaguera (%)

5.12 koadroa

% goitik behera

	Guztira	Adina			
		18-29	30-44	45-59	60-74
Ezagutzen duzu Bizkaian urritasuna duten pertsonak prestatzen dituzten eta urritasuna duten pertsonei lana ematen dieten enpresarik?					
Bai	**55,3**	53,7	60,6	59,7	43,3
Ez	**44,2**	46,3	38,6	40,3	55,7
Ed/Ede	**0,5**	–	0,8	–	1,0
Guztira	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**

Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Enpresa mota hau ezagutzen zutenen artean berez **Lantegi Batuak izan da gehien aipatu den erakundea** (%22,8) eta gero Usoa (%16,6), Ranzari (%4,9) eta Once (%4,6).

Portzentajeak lagin osoarekiko egiten baditugu –eta ez soilik enpresa mota hau ezagutzen dutenekiko– hau lortzen da: **%12,6k berez ezagutzen du Lantegi Batuak, %39,8 baietz erantzun du berariaz ezagutzen ote duen galdetu zaionean** (iradokitako ezaguera) **eta gainerako %47,6ak erakundea ezagutzen ez duela esan du**.

Berezko ezaguera handiagoa da 45 urtez azpikoetan eta, bereziki, 30 eta 44 urte bitartekoen taldean (%16); 60 urtez gorakoak dira, berriz, **Lantegi Batuak**-en berri gutxien dutenak. (%63).

Bizkaian urritasuna duten pertsonak prestatzen dituzten eta urritasuna duten pertsonei lana ematen dieten enpresei buruzko ezaguera (%)

5.14 grafikoa



Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Urritasuna duten pertsonak prestatzen dituzten eta urritasuna duten pertsonei lana ematen dieten erakundeen ospea. Oinarria: LZBak ezagutzen dituztenak (%)

5.15 grafikoa



Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Lantegi Batuak-en lantegien ezaguera (%)

5.13 koadroa

% baiezko erantzunak

	Lantegia dagoen inguru berean bizi direnak		% lagin osoarekiko
	Funtzio-eremua	Udalerria	
Ezagutzen dituen edo beren aditzea duen lantegiak:			
Txibila (Abadiño)	52,9		3,9
Amorebieta	32,8		2,7
Gernika	78,0	88,7	4,9
Derio	40,6	44,8*	30,1
Loiu 1	39,9	53,4*	22,7
Loiu 2	33,3	42,7*	19,1
Plazakola (Markina)	35,8	77,0	2,7
Zalla	72,1		2,4
Zalla-ko Lorelan zentroa	74,0		2,2
Basauri	19,6	57,0	15,8
Etxebarri	23,2	26,2	12,9
Gupost Etxebarrin	15,8	26,2	9,7
Errekalde (Bilbo)	19,4	23,8	13,9
Otxarkoaga (Bilbo)	16,4	21,3	12,8
Zorrotza (Bilbo)	19,0	32,0**	12,7
Garamendi (Bilbo)	8,1	10,8	5,6
Sestao	10,5	24,6***	7,8
Erandio	43,8	64,5	17,8

* **Txoriherri** *** **Santurtzi** ** **Barakaldo**

Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Baina **Lantegi Batuak** lantegi-sare zabala da, eta Bizkaiko lurralde osoan ditu lantegiak. Horregatik Lantegi Batuak-en jarduerari buruzko ezagueraren azterketan aurrera joatea egokia zela iritzi zen. Inkesta egin zitzaienei beraien bizitokiaren funtzio-eremuan zeuden lantegiei buruz galdetzea erabaki zen, beraz, ezagutzen zituzten edo ez jakiteko.

Hau da, ez zaie denei lantegi guztiei buruz galdetu, baizik eta gertutasunaren arabera egin da. Hau da, Durangaldean bizi direnei inguru horretako lantegiei buruz galdetu zaie, Enkarterrietakoei Zallakoei buruz, eta abar. .

Lortu diren ezaguera-indizeak udal mailako eremuekiko eman dira honek inkesta egiterakoan eremu bereiztu bat osatzen badu, baina baita eskualdearekiko nahiz funtzio-eremuarekiko eta laginaren osotasunarekiko ere. Baina udalerri bakoitzean egin den inkesta kopurua hain da urria batzuetan portzentajeak argigarriak izan daitezkeela baino ez dutela balio estatistikorik.

Lantegi Batuak-en lantegien ezaguera beren inguru hurbilenean (%)

5.16 grafikoa



Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Orokorrean esan daiteke **ezaguera-indizea handitu egien dela lantegiaren gertutasuna handitzen den heinean**.

Funtzio-eremu mailan (eskualdea) **lantegi ezagunenak Gernikakoa** (%78) eta **Zallako biak** (%74 eta %72) dira. Eta Loiubatekoa, berriz, Txoriherri inguruan inkesta egin zuenen %53k ezagutzen zuten, Deriokoa %45ek eta Loiubikoa %43k. Erandiokoak bere funtzio-eremuan %44ko ezaguera-indizea izan zuen.

Durangaldean %53k ezagutzen du Txibila lantegia (Abadiño) eta %33k Amorebietakoa.

Bilbo hiriburuan bertako lantegien ezagutza honako hauen artean dabil: Garamendikoaren, %10,8k ezagutzen dute hau, eta Errekaldekoaren, %24k ezagutzen dute, artean. Zorrotzakoa, berriz gehiago ezagutzen dute Barakaldon (%32) Bilbon bertan baino (%21).

Lagin osoarekiko ezaguera-indizeak lantegi bakoitzak Bizkaian duen ospearen berri ematen digu. Ezagunera Deriokoa da (%30), eta jarraian daude Loiuko biak (1a %23 eta 2a %19), Erandiokoa (%18), Basaurikoa (%16) eta Bilboko Errekaldekoa, Otxarkoagakoa eta Zorrotzakoa (hauek %13-14 inguruan).

Lantegi Batuak urritasuna duten pertsonak prestatzen dituen eta urritasuna duten pertsonei lana ematen dien enpresa bezala eta bere hainbat instalazio zein puntutaraino ezagutzen den zehazteko interes honetan orain eskaintzen dituen zerbitzuen eta jardueren txanda da.

Hiru zerbitzu mota handiei buruz galdetu da: garbiketa, lorezaintza eta bestelako zerbitzuak; azken honetan sartzen dira hiri-altzarien mantentze-lanak, industri pintura eta abar.

Datu hauek emateko bereizi egin ditugu lehenago **Lantegi Batuak** ezagutzen zutela esan zutenak, frogatu ahal izateko nola erakundea ezagutzen dutenen artean bere jarduerak zein diren dakitenak gehiago diren erakundea ezagutzen ez dutenen artean baino.

Ongien ezagutzen den zerbitzua lorezaintza (%51)da; eta atzetik ditu garbiketa (%41) eta bestelako zerbitzuak (%41) antzeko ospearekin.

Jakina, ezaguera-indizeak altuagoak dira **Lantegi Batuak** ezagutzen dutenen artean. **Lantegi Batuak** urritasuna duten pertsonak prestatzen dituen eta urritasuna duten pertsonei lana ematen dien enpresa bezala berez adierazi dutenen artean ongien ezagutzen den zerbitzua ez da lorezaintza (%65) baizik eta bestelako zerbitzuak (%67) eta gutxiena garbiketa (%57). Dena den, **Lantegi Batuak** berez nahiz iradokita ezagutzen dutenen artean lorezaintza da, berriz ere, zerbitzu ezagunena (%65).

Baina jarduerak ezagutzea bezain garrantzitsua da ez ezagutzea, azken hau Bizkaiko urritasunarekiko esku-hartze garrantzitsu batekiko dagoen urruntasun sozialaren adierazgarri delako. Eta horrela, **Lantegi Batuak ezagutzen dutenen artean %45ek ez daki zer egiten duen**, ez daki garbiketa-zerbitzua edo bestelako zerbitzuak eskaintzen dituela, eta %35ek bere lorezaintza-zerbitzua ez du ezagutzen.

Lantegi Batuak-en zerbitzuen ezagutza (%)

5.14 koadroa

% goitik behera

	Guztira	Lantegi Batuak-en ezagutza		
		Berezko ezagutza	Iradokitako ezagutza	Ez du ezagutzen
Badakizu LBk garbiketa zerbitzua ematen duela (eraikinak, bide publikoak, obrak, ...?				
Bai	40,8	57,1	53,2	26,1
Ez	58,2	42,9	45,6	72,7
Ed/Ede	1,0	–	1,2	1,1
Guztira	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**
Badakizu Lantegi Batuak-ek lorezaintza zerbitzua ematen duela?				
• Bai	51,0	64,6	63,9	36,7
• Ez	47,9	35,4	34,8	62,2
• Ed/Ede	1,0	–	1,2	1,1
Guztira	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**
Badakizu Lantegi Batuak-ek bestelako zerbitzuak ematen dituela, hala nola hiri-altzarien mantentze-lana, industri pintura ...)				
• Bai	40,9	67,0	51,2	25,4
• Ez	57,6	33,0	46,4	73,4
• Ed/Ede	1,5	–	2,5	1,1
Guztira	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**

Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Lantegi Batuak-en zerbitzuen ezaguera (%)

5.17 grafikoa



Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Erakundearen eta jardueraren arteko loturarik eza lehenago **Lantegi Batuak** ezagutzen ez zutela esan dutenen artean ere ematen da. Izan ere, orain, bere zerbitzuei buruz galdetzean ezagutzen dituztela esaten dute: lorezaintza (%37), garbiketa (%26), bestelako zerbitzuak (%25).

Izan ere, gutxi ezagutzen da Lantegi Batuak. Eta egozten zaion enplegu kopurua zehazteko eskatzean %66k ez du balioespen bat bota; portzentaje hau erakundea ezagutzen dutenen artean %51 izan da eta ezagutzen ez dutenen artean, berriz, %83. Gogoratu **Lantegi Batuak** ezagutzen ez dutenak %47 izan direla.

Lantegi Batuak-en zentro eta lantegietako enplegu kopuru osoaren balioespena (%)

5.15 koadroa

% goitik behera

	Lantegi Batuak ezagutzen dute	Ez dute Lantegi Batuak ezagutzen	Guztira
Bizkaiko Lantegi Batuak-en zentro eta lantegietan guztira zenbat urritasuna duten pertsonek lan egiten dutela uste duzu?			
100 baino gutxiago	2,9	4,3	**3,6**
100 eta 250 bitartean	5,0	1,5	**3,3**
250 eta 500 bitartean	13,4	3,3	**8,6**
500 eta 1.500 bitartean	12,0	2,8	**7,6**
1.500 baino gehiago	15,5	5,6	**10,8**
Ed/Ede	51,3	82,5	**66,2**
Guztira	**100,0**	**100,0**	**100,0**

Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Lantegi Batuak-eko langile kopurua 2005ean 2.161 lagunekoa zen. Baina zentro eta tailerretako langile kopuru osoa balioesteko eskatu denena **inkesta egin zaienen artean %11k** soilik (%15,5ek erakundea ezagutzen dutenen artean) **kokatu du 1.500 baino gehiagoko tartean**. Hori bai, hau izan da gehien aukeratu den tartea.

%4k 100 langile baino gutxiago egozten dizkio, langile kopurua 100 eta 250 bitartekoa dela balioetsi dutenen antzeko proportzioak, hain zuzen ere. Tarte hau enpresa ezagutzen zutenen %5ek aukeratu batzuen.

Balioespen oker hauek lehenago, galdera honetan jasotako erantzunik ezaren proportzio hain altuari buruz hitz egiterakoan, aipatutako ezagutzarik eza areagotu egiten dute, eta **komunikazioaren bidetik jarraitzeko gonbidapena egiten**, zalantzarik gabe.

Lantegi Batuak ezagutzen dutenen eta ezagutzen ez dutenen taldeen ezaugarri soziodemografikoen profilak agerian uzten du 60 urtetik aurrera ezagutza murriztu egiten dela eta zabalagoa dela emakumeen artean gizonezkoen artean baino.

Hala eta guztiz ere, **Lantegi Batuak** ezagutzen dutenen artean gehiago dira goi mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak eta Txoriherri-Caldakao inguruan edo Bilbo Handitik kanpora lantegiren baten inguruan bizi direnak.

Profil soziodemografikoa, Lantegi Batuak-en ezagueraren arabera (%)

5.16 koadroa

% goitik behera

	Lantegi Batuak ezagutzen dute	Ez dute Lantegi Batuak ezagutzen	Guztira
Adina			
18-29 urte	23,0	18,3	**20,7**
30-44 urte	34,4	28,0	**31,4**
45-59 urte	27,6	26,1	**26,9**
60-74 urte	15,0	27,6	**21,0**
Guztira	**100,0**	**100,0**	**100,0**
Guztira			
Emakumezkoa	46,8	54,7	**50,6**
Gizonezkoa	53,2	45,3	**49,4**
Guztira	**100,0**	**100,0**	**100,0**
Ikasketak			
Ikasketarik gabe	0,5	1,9	**1,2**
Lehen mailakoak	15,2	26,9	**20,8**
Eskola graduatua-OHO	11,9	23,0	**17,2**
Oinarrizko batxilergoa-LHI	7,3	8,3	**7,8**
Goi-mailako batxilergoa-LHII	23,5	21,4	**22,5**
Unibertsitateko ikasketa ertainak	14,8	6,4	**10,8**
Unibertsitateko goi-mailako ikasketak	26,8	12,0	**19,8**
Guztira	**100,0**	**100,0**	**100,0**
Bizitegi-eremua			
Txoriherri-Galdakao ingurua	23,8	16,0	**20,1**
Gainerako Bilbo Handia	56,2	68,4	**62,0**
Balmaseda-Zalla funtzio-eremua	3,4	1,8	**2,7**
Durango-Amorebieta funtzio-eremua	6,3	5,7	**6,0**
Markina-Gernika funtzio-eremua	6,1	6,6	**6,3**
Igorre funtzio-eremua	1,8	–	**0,9**
Mungia funtzio-eremua	2,4	1,4	**1,9**
Guztira	**100,0**	**100,0**	**100,0**

Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Lantegi Batuak ezagutzen dutenen ezaugarri nagusiak (%)

5.18 grafikoa



Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Lanaren kalitatea irudikatzeko orduan konfiantza da nagusi (%71) –**Lantegi Batuak** ezagutzen zutenen artean finkatuagoa (%78) ezagutzen ez dutenen artean baino (%64)–, **urritasuna duten pertsonek egiten dituzten lanek urritasunik ez dutenek egingo balituzte bezala asetzen dituzte bezeroaren eskakizunak.**

Hau da, **gehienek ez dute uste** elkartearen zeregin profesionalaz susmatzera eta, ondorioz, bere lan-aukerak murriztera, eramango lukeen **kalitatearen kalterik dagoenik**. Alderantziz baizik, inkesta egindako biztanleriaren ia %10ek uste du urritasunik ez dutenek baino hobeto betetzen dituztela bezeroen eskakizunak.

Izan ere, %5eko gutxiengo batek soilik uste du bezeroen eskakizunak asetzeko aukera urritasuna duten pertsonekin txikiagoa dela. Uste hau handiagoa da **Lantegi Batuak** ezagutzen ez dutenen artean (%7) ezagutzen dutenen artean baino (%3).

Egiten diren lanen kalitatearen balorazioa (%)

5.19 grafikoa



Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Lantegi Batuak-ek urritasuna duten pertsonak lanbideratzearen eta enpleguaren bidez gizarteratzen laguntzen duen erakunde bezala duen garrantzia ezin da zalantzan jarri.

Egoera hipotetiko batean, **zer gertatuko litzateke ez balego horrelako erakunderik**, hau da, zein izango ziren 16 eta 64 urte bitarteko urritasuna duten pertsonen aukerak, panorama ez da oso itxaropentsua.

%40k uste du etxean geratuko litzatekeela; iritzi honekin denak bat datoz, adina gorabehera, baina uste sendoagoarekin 45 eta 59 urtero helduen artean.

Beste %41entzat irtenbidea gizarte zerbitzuetara joatea izango litzateke eta eguneko zentro batean nahiz egoitza batean tokia lortzen saiatzea; bertan lanbideratzeko trebetasun eta abilezien garapenak ez du konparaziorik eta, gainera, autoestimuarentzat duen kalteak, baliagarritasuna, eta abar, norberari eragindako okertzea dago.

Portzentaje hauek gaur egun **Lantegi Batuak**-ek dituen langile kopuruari (2.161) ezarrita, gizarte zerbitzuei ia 900 laguneko eskaria helduko litzaioke eta beste 875 etxean geratuko lirateke beren familiartekoen zaintza eta arreten baitan eta gizarte-harremanak egiteko eta taldeko jardueretan parte hartzeko aukera murriztuarekin.

Lantegi Batuak-en ordezko irtenbidea (%)

5.17 koadroa

% goitik behera

	Guztira	Adina			
		18-29	30-44	45-59	60-74
16 eta 64 urte bitarteko urritasuna duen pertsona baten aukerak Lantegi Batuak bezalako erakunderik ez balego					
Gizarte zerbitzuetara joan eta eguneko zentroan, egoitzan tokia lortu.	**41,1**	46,3	39,9	39,4	39,8
Osasun zerbitzukoei arreta handiagoa eskatu	**4,0**	2,9	6,6	3,2	2,0
Etxean gelditu	**40,4**	40,4	40,2	42,4	37,9
Beste zerbait	**4,1**	2,7	2,5	4,9	6,8
Ed / Ede	**10,5**	7,7	10,8	10,0	13,5
Guztira	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**

Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Lantegi Batuak-en ordezko irtenbidea (%)

5.20 grafikoa



Iturria: Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzaren ezaguerari buruzko inkesta. 2006ko otsaila. Egileak berak landua.

Alde *indartsuak eta ahulak*

6 Alde indartsuak eta ahulak

Jarraian txostenean zehar agerian gelditu diren alde indartsu eta alde ahul nabarmenenak eskainiko dira era sintetikoan.

Alde indartsuak	Alde ahulak
Lanak gizarteratzeko estrategia bezala duen garrantzia	
• **Erakunde sendoa** urtero hazten ari den enpleguaren bilakaeraren ikuspegitik.	• **Industria-jarduerak egiteko sortutako erakundea**, zerbitzuak egiteko beharrean. Egokitzerakoan arazoak izan ditzake industria-jarduera jaisten bada (deslokalizazioa, ...)
• **Urritasun era berrietara zabalik**. Hauek berariazko laguntza-irizpide ekartzen dituzte.	• LZ eta EZBan aritzen direnek espazio eta lan berak egiten dituzte, eta horregatik beste informaziorik ez duen iritzi publikoak biek egindako ekarpenak alderatu eta errentagarritasunaren ikuspegitik LZaren baldintzak zalantzan jar ditzake.
• **Harrera prozesua**, erabat finkatua eta zehaztua bere balorazio irizpideetan eta pertsonei egokitzean.	• **Laguntza zerbitzuen estaldura gelditu egin da** nahiz eta eskariak ugaritzen ari diren.
• **Prestakuntzari laguntza**, gizabanakoak lanpostuetara egokitzeko lanabes bezala.	• **Enplegu arruntera igarotzea** ezarritako helburuak (%2) baino gutxiago, eta erakundeen artean elkarlanerako dauden zailtasunek lagundu egin dute.
• **LZtik EZBra urtero egiten den sustapenaren helburua betetzea.**	• **Lanbideratzea gizarteratzeko funtsezko estrategia bezala** batzutan nahikoa ez dela uste da LZan.
• **Etengabeko hobekuntza** egiteko hausnarketa eta azterketa prozesuak txertatzea (gogobetetasun-inkesta).	• EZBan **soldata-mailari** buruzko balorazio negatiboak.
Gizartean urritasunaz dagoen pertzepzioa	
• **Urritasunaren onarpen zabala gizartean**, fenomeno bezala emoziozko hurbiltasun egokian kokatzen du.	• Urritasun mota desberdinek **izan duten eta izango duten bilakaeraren ezagutzarik eza.**
• Urritasuna duten pertsonen eskubide berdintasunaren alde lanean ari diren **erakundeen existentzia**.	• Urritasuna duen pertsonak eskubide osoko kide ikustea zailtzen duen **iraganeko halako inertzia** bat.
• Urritasuna duten pertsonek **beren lanetik bizi behar dutela** uste zabaldua.	• Urritasuna duten pertsonek bizi duten aukera-berdintasunik gabeko egoeraren pertzepzio soziala.
• Urritasuna duten pertsonak gizarteratzeko egindako aurrerapenak aitortzea, hezkuntza-sistemaren barruan sartzea, hesi arkitektonikoak kentzea eta garraio publikoa egokitzea.	• Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzak "nahiko" justua atera du.
• Urritasuna duten pertsonei laguntza ematea **partitutako erantzukizuna** da, eta botere publikoek dute esku-hartze ardurarik handiena.	• **Urritasunari ematen zaion laguntzaren pertzepzioan hutsune nabarmenak**, batez ere lan-aukerei, ikus-entzunezkoak egokitzeari, hesi arkitektonikoak kentzeari eta garraio publikoa egokitzeari buruz.
• **Lantegi Batuak Bizkaian** prestakuntza eta enplegu sorkuntza egiten dutenen **artean ezagunena da**.	• **Enpresetan Europako araudiak ezarritakoa baino gutxiago eskatzen da**.
• Urritasuna duten pertsonek egiten duten **lanaren kalitateari** konfiantza osoa.	• Bizkaiko gizarteak ez du **Lantegi Batuak eta bere lantegi sarea** behar bezala ezagutzen.
• Lantegi Batuak Bizkaiko urritasuna duten pertsonak gizarteratzeko plataformako protagonista da.	• Urritasuna duten pertsonen gizarteratzea bilatzen dute beste aukerarik gabe, **erakundeek** urritasuna duten pertsonak prestatzen dituzten eta urritasuna duten pertsonei lana ematen dieten enpresentzat duten laguntza ez da nahikoa.

Alde indartsuak	Alde ahulak
Eragin ekonomikoa	
• **Jarduera eskaintza zabala** (lorezaintzak -> muntaia elektrikoa) sektore bakarrek duten arriskua apaltzen duena.	• **Industria-jarduerarekiko dagoen mendekotasun ekonomiko** handia zerbitzuekin alderatuta (2005ean industria-jarduera salmenten %79 izan zen).
• **Lantegi Batuak**-ek 1998-2003an Bizkaiko industriak baino **bilakaera positiboagoa** izan zuen kontu hauetan: - **Lantegi Batuak-eko lanpostu kopurua** (%23 **Lantegi Batuak**-en vs. 16% Bizkaiko industrian); - **ustiapeneko soberakin garbia** (%16 sektorearentzat vs. %146 **Lantegi Batuak**-entzat); eta - **egindako inbertsioa** (%71 sektoreak vs. %449 **Lantegi Batuak**-ek).	
• **Lantegi Batuak-en egoera-balantzearen egoera ona** Adibidez, **maniobra-fondo %200 gehitu zen** 1998 eta 2004 bitartean, 2004an 12,9 milioi €-tara.	
• **Ustiapeneko diru-laguntzak gutxitzea** Ustiapeneko diru-sarrera osoaren zati bezala; 1998an %25 izatetik 2004an %19 izatera pasa dira.	• Diru-laguntzen lege berria dela eta **EINetik enplegua sortzeagatik diru-laguntzak lortzeko zailtasunak izan daitezke**.
• **Lantegi Batuak-ek eragin ekonomikoa duten beste ekarpen batzuk ere egin ditu** gaur egun itzultze-kontuan ez daudenak. Alderdi hauek sartzen dira:enplegua, osasun sistema, pentsioak, eta familiaren gastua. - **Enplegua**: 1998-2004 bitartean **Lantegi Batuak**-eko enplegua %32 hazi zen, Bizkaiko %10 beharrean. - Osasun-alorra: **Lantegi Batuak**-ek egin dituen mediku azterketa langileen %83 hartu zituen. Gainera **Lantegi Batuak**-ek gizentasunari, erretzez uzteari eta bide-hezkuntzari buruzko jarduerak egin zituen bere langileen osasuna hobetzeko. - Pentsioetarako gastu publikoari dagokionez, berriz, 2005ean Bizkaiko Foru Aldundiak 400.000 € inguru aurreztu zituen ea Gizarte Segurantzatik beste 350.000, **Lantegi Batuak**-ek emandako lanei esker. - 2005ean kideak **Lantegi Batuak**-en zituzten familiek 530.000 € baino gehiago aurreztu zituzten **jana, garraioa ea zaintzaileak** bezalako kontuetan.	

Aholkuak

Gizarte-eragina 7.1

Lana gizarteratzeko estrategia bezala erabiltzeari dagokionez:

Zehatzago eta bereizita finkatu **lanbideratze-zerbitzuko eta enplegu zerbitzu bereziko** helburuak, erabilera-erak, aurreikusitako itxaropenak, iritsitako lorpen pertsonalak, eta abar, **Lantegi Batuak**-eko talde guztiek (bereziki gurasoek) bien arteko desberdintasunak argi izan ditzaten eta zerbitzu mota bakoitzari buruz ardura eta itxaropen berak izan ditzaten.

Desberdintasunei buruzko **komunikazio kanpaina** bat egitea gurasoei eta komunikabideei zuzendua..

Lanbideratze zerbitzuan **bestelako gizarteratzeko estrategiak** txertatzeko aukera kontuan hartzea.

Erregimen bereziko pertsonen **lan-baldintzak homologatzeko** bidean aurrera jarraitu.

Gizarteak urritasuna ulertzeko duen moduari buruz:

Urritasuna duten pertsonen eskubide- eta aukera-berdintasunari buruz hedapen-kanpaina bat bultzatzea (balioekin heztea).

Sektoreko elkarteei hezkuntza-zentroekin, udaletako kultura arloekin eta bestelako eragile publikoekin egiten duten lankidetza indartzeko proposamena egin, berdintasun-egoeran ez daudenen hedapenerako (balioen hezkuntza eta sustapena).

Udalen aurrean azpimarratu **hesi arkitektonikoak** kentzea lortzeko lanean jarraitzeko beharra.

Bizkaiko Foru Aldundira Bizkaiko urritasunari ematen zaion laguntzaren balorazioari buruz lortutako emaitzak bidaltzea eta programa bereziak garatzea proposatzea.

Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, Udalak, enpresa-elkarteak, EIN, eta abar behartu enpresetan **lanpostuak gordetzeko araudia** bete dadin eta urritasuna duten pertsonentzat zerbitzu publikoak kontratatzea aktiboki sustatu dezaten.

Lantegi Batuak-en ezaguerari buruz:

Lantegi Batuak erakundea, bere helburuak, jarduerak eta abar ezagutzera emateko sustapen eta publizitate kanpaina bat sustatzea.

Irudi korporatiboa hobetzea.

Eragin ekonomikoa 7.2

Zerbitzu-alorra indartzeko helburuarekin lotutako erronkak kontuan hartuta, **Lantegi Batuak-ek beste enplegu zentro berezi batzuen antzeko esperientzia ahal beste erabili behar du**, adibidez, Cureak.

Beste eragile batzuen **praktika onenak erabiliz** etorkizuneko zerbitzu-alorraren kokapenaren ondorio den negozio-eredu berriaren arriskuak ahalik eta txikien bihurtuko lirateke.

Lantegi Batuak-ek aktiboagoa izan beharko luke gaur egun gizarteari egiten dion ekarpenari buruz herri administrazioekin dituen komunikazioan.

Jarrera honek, batetik, Fundazioari bere irudi soziala hedabideen bidez hobetzen lagunduko dio.

Bestetik herri administrazioak jakitun egon behar du bere politiketako batzuk (adibidez, lanpostuak sortzea aktibo produktiboetan inbestimenduak egitearekin erlazionatuz) etorkizunean **Lantegi Batuak**-en bilakaera eta Bizkaia osoko gizarteari egiten dion baliozko ekarpena zapuztu ditzake.

A Eranskina: *Metodologia*

8 A Eranskina: Metodologia

Lantegi Batuak-ek Bizkaian duen gizarte-eraginari buruzko azterketa hiru osagai metodologikotan oinarritu da:

- Iturri dokumentalak
- Banakako elkarrizketak
- 18 eta 75 urte bitarteko Bizkaiko biztanleriaren lagin bati egindako inkesta

Hauetako bakoitzak ekarpen desberdina egin dio azterketa hau osatzen duten kapituluei. Horrela iturri dokumentala **Lantegi Batuak**-en aurkezpena egiteko, urritasuna duten pertsonekin egiten duen lana agerian jartzeko eta bere jarduera eta eragin ekonomikoa ezagutzeko osagai metodologiko nagusi eta ia bakarra izan bada ere, biztanleriari –18 eta 75 urte bitarteko biztanleriaren bidez– egindako inkestak Bizkaiko gizarteak urritasuna, bere azken urteotako bilakaera, etorkizunerako aurreikuspenak, egungo laguntzen kalitatea, eta abar eta baita urritasuna duten pertsonentzat lan-aukerak sortzen dituen enpresa izaki, **Lantegi Batuak** beraren ospean zehazki nola ikusten dituen ezagutzeko aukera eman digun lanabesa izan da.

Elkarrizketei dagokienez, berriz, beren ekarpena kualitatiboa izan da eta informazio kuantitatiboa osatzeko baliagarria izateaz gain **Lantegi Batuak**-eko alde indartsuaK eta alde ahulak zein ziren erabakitzeko eta zehazteko balio izan dute. Eta baita etorkizunerako beren lorpenak sendotzen eta mugak gainditzen nahiz aukerak baliatzen lagunduko duten aholkuak emateko ere.

Iturri dokumentalak

Urritasunarekin zerikusia duten lege eta arauak begiratu dira, baita urritasunarekin zerikusia duen material zientifikoa ere, agiri instituzionalak (Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa, EIN, ECIF, eta abar), datu baseak eta Euskadiko nahiz Bizkaiko jarduera ekonomikoaren azterketa eta estatistikak.

Banakako elkarrizketak

Lantegi Batuak-en gizarte-eragina zehazteak hasieratik zekarren berekin dimentsio kualitatibo bat sartzea, erakundearen jarduera ongi ezagutzen duten eta erronka estrategikoak nahiz urritasuna duten pertsonak gizarteratzea lortzeko esku-hartzean hobekuntzarako proposamenak egiteko irizpideak dituzten profesional eta adituei egindako banakako elkarrizketen haritik, hain zuzen ere.

Aditu eta profesional multzo hau 10 lagunek osatu dute guztira eta hauek aukeratzerakoan urritasunarekin erlazionaturik dagoen esku-hartzearekin zerikusia duten ikuspegi desberdinak estali nahi izan ziren.

Urritasuna duten pertsonen familien elkartze-mugimenduetako ordezkariak, prestakuntzan eta hezkuntzan adituak, erakundeko bertako zuzendariak, urritasunarekin zerikusi zuzena duten konpetentziak dituzten erakundeetako ordezkariak, eta alor hala pribatuk nola publikoko bezeroak izan dira azterketa hau posible egiteko beren ezagutza eta denbora eman dutenak.

Elkarrizketetan adierazi dituzten sentsibilitate, ezagutza, esperientzia eta itxaropenak zintzotasunez jaso eta ematen jakin ahal izan dugula espero dugu, eta lagun hauen laguntza baliagarria eskertu nahi dugu bihotzez:

Emilio Manuel ALDAZ VALERIO jauna
Enplegua Sustatzeko Sailburua
SPEE-EIN Bizkaiko zuzendaritza probintziala

Iñaki ALKORTA jauna
Zuzendari nagusia
Gureak Taldea

José Ramón CAUBILLA jauna
Lehendakariordea
Gorabide, Adimen-urritasuna duten pertsonen aldeko Bizkaiko elkartea

Fernando LOPEZ de EGUILAZ jauna
Gizarte-ekintzako zuzendaria
Bilbao Bizkaia KUTXA

Rafael MENDIA jauna
HPBetako arduraduna
ISEI-IVEI – Hezkuntza saila. Eusko Jaurlaritza

Iñigo POMBO jauna
Ume, Emakume eta Urritasuna duten pertsonen zuzendari nagusia
Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte-ekintza saila

Imanol GARAI jauna
Alkatea
Sopelanako Udala

José Luis BILBAO jauna
Industri zuzendaria
Ormazabal Bigarren Mailako Banaketa

Lantegi Batuak-eko zuzendari eta langileak.

Inkestaren fitxa teknikoa

Bizkaian urritasunari ematen zaion laguntzari buruz gizarteak duen pertzepzioaren azterketa Lurralde Historikoan bizi diren 18 eta 75 urte bitarteko populazioaren lagin batekin egin da

Lagina 400 pertsonatan finkatu zen. P=Q=%50 denean eta %95,5eko konfiantza-mailarekin, datu orokorrentzat +/-%5eko errore-marjina ematen digu

Inkesta otsailaren 15 eta 28 bitartean egin zen. Galderak telefonoz egin ziren erantzun itxiko galderak zituen galdera-sorta bat oinarri.

Lagina Bizkaikoa funtzio-eremuetako eta hiri handietako biztanleriaren pisuaren arabera proportzionalki banatu zen, honela:

Eremua	Kopurua
Bilbo	128
Bilbo Handia	116
Basauri	16
Santurtzi	17
Portugalete	19
Getxo	30
Barakaldo	34
Bilbo Handiko gainontzeko funtzio-eremua	82
Loiu, Derio, Sondika, Zamudio, Erandio, Leioa	50
Sopela, Gorliz, Plentzia	5
Galdakao, Etxebarri	27
Balmaseda - Zalla funtzio-eremua	11
Durango funtzio-eremua	25
Gernika - Markina funtzio-eremua	26
Gernika, Bermeo, Mundaka	18
Markina	8
Igorre funtzio-eremua	4
Mungia funtzio-eremua	8

Esparru geografiko bakoitzaren barruan lagina honako sexu eta adin kuota hauen arabera geruzatu zen:

Sexua:		
	Emakumezkoak	50%
	Gizonezkoak	50%
Adina:		
	18-29 urte	20,8%
	30-44 urte	31,2%
	45-59 urte	27,0%
	60-74 urte	21,0%